


Agustin Zinkunegi

Bizi naiak lege zorrotzak



Bizi naiak lege zorrotzak

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OLARTZUN (Gipuzkoa)

Agustin Zinkunegi

Bizi naiak lege zorrotzak

Auspoa Liburutegia
(1995)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-28-3

Legezko Gordailu: S.S. 888/95

Itz bi

AGUSTIN Zinkunegi Aranburu aspaldiko ezaguna degu. Garai bateko bertso-saioetan bein baiño geiagotan alkarrekin topo egin genduan.

Aren izena, berriz, maiztxo agertzen zan egunkarian, Basarriren saillean, bertso jator batzuen oiñean.

Orain urtebete, ordea, Andoaiñen bizi dan beste lagun zaar batek onela esan zidan:

- Zure ezaguna eta adiskidea dan Agustin Zinkunegik idazteari ekin dio, eta orri mordoska bat bete ere egin duala uste det.

Ala, arratsalde batean Andoaiña joan nintzan, eta Agustiñen etxeko atea jo. Arrera ona arkitu nuala esan bearrik ez dago.

Baietz erantzun zidan; denbora pasa orri batzuk beztu edo zirriborrotu zituala, baiña etzuala uste ezer balio zutenik.

Dana dala, nere eskuetan jarri zituan, aiekin zer egin zitekean neronen kontu eta iritzira uzten zuala esanez.

Etxera orduko irakurtzeari ekin nion. Andoain aldeko euskera bikain, jatorra eta eztitsua miazkatuz.

Liburua osatzeko zerbait geixeago bearko zala-ta, urrengo bisita batean eraskin batzuen eskea egin nion Zinkunegiri. Bai onek nere nai ori bereala bete ere.

Irakurleak ikusiko duanez, beraren bizitza lau pusketan banatzen baita, liburuak ere lau zati ditu. Beren izenak: *Jaiotetxea*, *Guda-ibillerak*, *Lanean* eta *Mendi-ibillerak*.

Baserri batean jaioa izanik, bertan egiten ditu bere aurtzaroa eta gazte-denbora. Gero, ordea, maiorazkoa ez izanik, lantokiren bat kanpoan billatu bear du. Ori ez al da gure gazte askok eta askok egin bear izan duten aldakuntza? Orren testigantza geldidilla, beraz, liburu onen orrialdeetan.

Ala ere, garai artako euskaldunen bizimodua etenik gelditu zan, 1936-ko guda odoltsu arek alako aizkorakada jota. Bakoitzak aal zuan bezela pasa bear izan zuan ekaitz zakar ura, eta Agustiñek emen berea kontatzen digu.

Baiña izadiaren erdian jaioa zanak, bere lanurteak bukatu eta zaar-saria artutakoan, berriro ere izadiarengana jotzen du, bere gozamena mendi-ibilleretan ipiñiz. Orrialde bikaiñak gai orretzaz Zinkunegik idatzi dituanak.

Ori dana, leen esan bezela, Andoain aldeko euskera jator-ederrez jantzia. Orrekin irakurleak gozamen ederrik artuko duala ez det dudarik egiten. Denbora berean, *Auspoa Liburutegi* onentzat poz bat da, euskera jatorraren altxorra beste pitxi onekin aberastea.

A. Z.

Zama astun samarra
kendu det burutik
zalla izango nula
banekin aurretik
nekoso jardun arren
amaitu orratik
nere lagunen oroiz
eskeintzeagatik.

Agustin Zinkunegi Aranburu



Urrizti.

Ezkerretetik, goien: Jose Luis Usarralde eta Maria Kristina Zinku-
negi, senar-emazteak. Beean, ezk.: Patxi, Agustín, Garbiñe eta
Lorendiñe seme-alabak.

Jaiotetxea

Urrizti, nere jaiotetxea

BADIRA gauza batzuk, naiz eta ume-garaikoak izan, atzo goizean gertatu balira bezela oroitzen ditugunak; edo aldekoz bestera: atzo goizean gertatutakoak, dagonerako azturik ditugunak.

Garrantzizko aldea, beraz, urtez ondo jantzia dagoan idazle zaarkitu onentzat, ekin dion lantegi oni egitura itxurazko bat eman nai badio.

Joanes artzaiak lioken bezela, larogei aldiz eta geiago ikusi det ostroa berriz ateratzen Aizkorriko iturri ondoan.

Au irakurrita, irakurleak pentsa lezake Zegama edo oñatiarren bat ote naizen. Ez da orrelakorik. Ni Giputz sortalde samarrekoa naiz, jaio, azi ta bizi. Andoain nere jaioterrian ere bai-baida Aizkorri ize-neko mendia.

Txomin Agirreren esanetan, “asko ikusi duanak zerbait jakiten du”; eta, nitaz ere orrela pentsatzen badet, zerbait lagungarri izan litzaidake nere urteen ugaritasunera iritxi izana. Bearraren bear izango naiz, ekin diodan lantegian.

Nere jaiotetxea, Urrizti, or goi samarreko mendi-etxe bat dezute, Andoaingo Goiburu auzoan dagoana.

Ni antxe jaio nintzan 1914-eko maiatzaren 31-n. Zazpi senide izan giñan: Jose Frantzisko, Adelaida, Josefa, Felipa, Jose Krutz, Jose Agustin eta Jose Inazio, ni azken bigarrena izanik. Baiña Jose eta Josefa bost bagiñan, eta neri beti Agustin deitu izan didate. Gaur egunean lau bizi gera: Josefa, Jose Krutz, ni eta Jose Inazio.

Aita, Juan Frantzisko, Asteasun jaioa zan, Arretxe baserrian; eta ama Leaburun.

Mendi-etxeak ere bere alde on ta txarrak ditu. Ala ere, gaur egunean asko erosotu dira, sortu diran aurrerapenak dirala bide.

Gaur ez dira orain berrogei urteko kontuak. Zure oiñen laguntzaz egin bearko zendun mendi-bide aldapatsu aietako jetxi-igoak. Giro ona ala txarra izan, bearra lagun, eta Jauna.

Egunero jetxi egin bear zure artu-emanak egitera: jangai, naiz soin-jazkiak, nekazaritzako etekin edo uztagaien aldera; igandeetan meza, udaletxean eginkizunen bat...

Batez ere sendian norbait gaixotu edo zauri larri samarra norbaitek izan badu, oiñak jaso egin bear, gure zaarrak esan oi zuten bezela. Orregatik, ezin esan mendi-basetxeak alderdi danak onak dituanik.

Zartu geranok or daramagu
sorlekuaren oroitza,
ta batez ere urte askoz an
izan badegu egoitza.
Ikasi gendun kristau legea,
euskeraz lenen nun mintza,
artu genitun ikasbideai
beti euki diet aintza.

Ezagutu nun sortetxea zan
mendi-basarri bikaiña,
artean zarra etzalarikan
etzan jauregi apaiña.
Ganbar-solairu piñuzkoa zun,
mandioa aritz piña,
suak kiskali zuan ta kito,
guretzako zer samiña!

Soroz, belardiz oparoa zan,
gaztaindi-sailla, ariztik,
garadi eta otadi zarra,
onak ezin izan guztik.
Suak erre ta etxerik gabe
gelditu giñan geroztik,
len basoetan zitun zugaitzak
orain barruan an dizkik.

Len solairua aritzez zuan,
urrengo aldin gaztaiña,
naizta ez izan goi-maillakoa,
etxeko gaiatz egiña.
Etxe legorra egin zan ordun
basoak soilduta baiña;
berriren berri jantzi zaituzte,
jauregi zuri apaiña.

Nere sorleku aztu eziña,
maite zaitudan Urriztik,
zer aldaketak izan dituzun
jaio nintzan ezkerostik!
Porlan da burniz jantzi zaituzte
ekarririkan arunztik,
zu etzaitu, ez, lurreratuko
aize, bisuts ta ekaiztik.

Oraingo aldiz agurtzen zaitut,
emen noa amaitzera,
guraso aien oitura aiek
danak ez utzi galtzera.
Gorde ezazu kristau legea,
gorde ezazu euskera,
ori egiten ez badezu, zu
Aitor-semea etzera.

Mendi-abereak

BAIÑA baditu mendi-basetxeak bere alde onak ere. Bear ditun osakaiak eta azpigaiak —garo, orbel, batez ere abereak, beor, ardi, mendi-larreak eta basoak— urre samar izan oi ditu. Su-egur eta iturri on bat ere, aldean noski.

Mendiko abereei ikustaldi bat egiteko ongi etor-tzen da ori, gurean ere zan bezela.

Ni, oso gazte nintzala asita, artzaia izana naiz. Gure gurasoak, oso txiroak ziralarik, guzion ekintza bearreko izan zuten.

Nik amar bat urte nituala, gure aita zanak iru bat ardi erosi zituan, emen gure auzo samarreko Azpilla baserrian negutzen zan artzai *Xamoa* zanari noski.

Iru ardi aiek guzizkoak izan ziran gure sendia-rentzat, eta batez ere gu etxeko bi anai txikienen-tzat. Eguzki aldeko erregeen erregalorik ederrena baiño ere areago.

Umea nintzalarik ere, gogoan jaso nuan aiekiko irudipena.

Bata, mutur beltz aundi samarra zan. Gaiñean ere jarri izan giñan anai txikiagoa eta biok. *Kaballo* ipiñi genion izena, aundikote larri samarra zalako noski.

Badirudi erdal itzak erabiltzeko gogoia ere bagenduala. *Kaballo* ardiari jarri genion izenagatik diot au. Geroztik amaika urte joan dira. Izkuntza berri bat ikasteko aia bai noski. Baina gaur oraindik ere oso mugatuak dira Cervantes-en izkuntza erabiltzeko ditugun gaitasunak.

Bigarren ardia ere muttur beltza zan, kopetan mototx aundiarekin eta zintzarri pin batekin. *Kinkin* jarri genion izena, zintzarriaren otsa alakoxea zualako.

Eta irugarrenak ere mutur beltz arrea zuan; eta *Ttokolo* zuan izena, bere zintzarri edo joaleak soina alatsu zualako.

Ez dakit zintzarri oiek berak lepoan ekarri zituzten ala. Gaur ez det gogoan. Gerora anaiak, anai Joxek, iru zintzarri eder ekarri zituan Urkiolatik. Aiek zintzarriak! Bi, luze antzak; eta eltze-tankerakoa irugarrena.

Bai; gerora gure artalde ura ere asi zan aunditzen. Aita zanak beste zortzi argazte erosi zizkion *Amara* artzaiari; eta pixkana-pixkana asi gihan gu ere gure artalde txikia beste artzaieen mendietara bialtzen, udaldia antxe igaro zezan.

Udaran-da, jai-arratsaldeetan joaten gihan aita ondoren ikustaldia ematera, eta antxe larratzen ziran negurarte, Osiñaudi, Muntto eta Astabizkar inguruetan.

Gu etxeko bi anai txikientzat zorionik aundiena sortu zutenak, lenengo iru ardi aiek izan ziran.

Udatzen aldera edo neguan, aita edo etxeko norbaitek etxeratzen zitualarik, izaten zuten nork begiratu.

Illunabarrean zintzo joango gihan bordara sartzera, eta beraiekin egongo gihan aldi batez, bizkar gainean ikutu, kaxko gainean axkure egin eta ezin aspertuz, antxe.

Aita zanak esango zigun:

– Laster arkume txiki bana egingo dizkie. *Kinki-ñek* beltza egingo dik.

– Ño! Alaxe egingo balu, Meltxor jarriko genioke izena.

Ardi bakar aiek negua ondo igaro oi zuten. Illuntzean an joango giñan, aitona ta gaiñontzekoen ixillean, batek artalea txapelean, besteak ogi koxkorreren batzuk...

Ama, ni oso umea nintzala il zitzaigun. Bere irudia doi-doi oroitzen det, Jaunak bezaio atsedent!

Aitona Jose eta arrebak, artean gazteak, izan genituan ezitzaille, batez ere gu bi anai txikiok. Gaiñontzeko bost senide zarragoak zerbait zoztortuak ziran ordurako.

Ume giñala proatu giñun
munduko gozo-gaziak,
bizitzan alai geienbat baiña
bear gorrian aziak.
Aitak nolabait xuxpertu giñun,
amak umerik utziak;
neke ordaiñez sortzen zizkigun
jatekoa ta jantziak,
norbaitek uste ez baleza're
egiak dira guziak.

Amatxo il da gelditu giñan
guziz pamili gaztea,
gero aitari kosta zitzaion
zazpi senide aztea,
eziña zan da bere almenez
denok azi ta jaztea;
batzuk joan ziran irabazira
batera edo bestea,
aitak jakin zun zer neke gero
baserriari eustea.

Aztu egin zait beste bi beor ere bagenituala esatea. Aiek aitonaren konturakoak zirala uste det. Bata beltza eta gorria bestea.

Dana dala, aiek ere neguan etxe aldean izaten ziran; eta udaldian or, Elduaingo mendietan, ibiltzen ziran: Ormaki, Artzelai...

Leku oietan daude Ormakiko presa ta kanala; Andoaingo argi-indarra egiten zuan Bertxiñ indar-etxera urak ekartzen zituan urbidea.

Gaur, erabat ondatuta, sasiak eta piñuak azpian artuta, egoera tamalgarri batean daude. Arrenbeste izerdi gizonari eragin da aldez bestera ainbat onura gizonari erakarri zizkion gauzak etzuten ordain ori merezi.

Or jarri ditudan izenez gainera, onoko izen auek dira, kopurutzen ari zan gure artaldearen larre-lekuak: Ormaxarreta, Zuaizti, Usabelartza, Muntto, Osiñaundiko egutera eta ospela eta abar.

Kozkortu giñalarik, asi giñan aita ondoren mendira ardiak ikustera joaten, eta nolako abere-taldeak mendi oietan: beor, betizu, ardi-saillak! Iyuyako aitona Joxantonio zanak esan oi zuan bezela:

– Erruzka! Erruzka!

Joxantonio or goiko mendi-etxe bateko artzai zarra zan.

Eguraldi onarekin igotzen baziñan, zoragarria zan mendi oietako alaitasuna. Ura aleluia! Orko ardi-arkumeen marru ta orrua, bei betizuak menditik mendira beren txaalei oiuka, artzai-zistu, arzakurren zaunka ta beor-moxalen irrintziak... Ura alaitasuna!

Gaur, berriz, ez dezu txori bat ere ikusten. Ardi ale batzuk lekuan-lekuan; beor, bei or piñu arteetan barrena, eta kito. Ez borda, ez etxola bat zutik.

Non dira garai bateko zozo-birigarroen kantak?
Egunarekin bateratsu, kalandriak *txirri* eta *txorro*,
gora-goraka eguzkiaren ondoraino igoaz, nolako
alaitasuna! Zer izadiaren pozkarioa!

Zer daukazu gaur mendian? Igo ta igo goiko
gallurreraino, ez dezu ikusiko piñua ta sasi zikiña
besterik.

Mendira igo nai ta
auxen da negarra,
ez da lan ederra,
sasian mende daude
zelai ta malkarra.
Piñu zarren azpian
otea ta larra,
goietan piñu ñañar
erdia igarra,
azpian itzal gutxi
ta gaiñean arra.

Orrelatsu ikusiko dituzu gaur Euskadiko men-
diak, Aralar, Andimendi, Urbia eta orrelako batzuk
izan ezik.

Sutea

GOIAN aitatu dedan lyuya basetxe ura 1929-ko apirillaren 19-an izan zan sute aundiak erre zuan. Nere bizian aztuko etzaidan egun tamalgarria izan zan. Amabost urte izateko, berrogei ta bi egun palta zitzaizkidan.

Goizetik egoaize ikaragarria izan zan, ostirala zalarik. Leitzaran mendi artetik zetorren keak bazter danak estaltzen ari zituan, eta anai Joxe zanak oi u egin zidan goiko sorotik, mendira igo bear genduala.

Lendik goiko mendira bialduta genduzkan ardi antzuak arriskuan ikusten genituan, eta etxeko lanak alde bat laga eta oiñak jaso genituan, milla demoniok ezik!

Ardi-sail aundia batu genduan geure ta besteren. Aurrean artu eta Muntton barrena Aizkorriko iturri-bidetxiorrean jarri genituanarekin bateratsu, ikusi genduan sua, bean, ke artean, Amasa mendian, Ibarrola errekatik gertu; eta anaiak oi u:

– Motell, etxean diagu sua!

Une batean ezkutatu zan anaia nere begien aurretik.

Elduaingo mendietatik minututan iritxi zan sua gure baserri ondoraiño. Bein baiño geiagotan eran-

tsi oi zion sua; baiña beti ere itzali. Jende asko egon nunbait etxea zaitzen, eta orri esker salbatu zan gure baserri ori.

Ala ere, zortzi edo bederatzi meta garo kixkali zituan, guk bi anaiok goizean, mendira abiatu baño len, arriz zamatzen jardun giñanak, aizeak ez eramatearren.

Alperrikako lana bezelatsu da nik orain ari dedan au. Zailla baida, ura ikusi etzuanari, aizea, sua ta zakar igarrak zer mirari egin lezazketen adieraztea.

Munttoko zelaian, arkaitz baten aurka jota utzi nindun aizeak. Ura zan gauza bildurgarria!

Ez genduan kalte aundirik izango, gure etxe ura orduantxe erre izan balitz. Andik bost illabetera erre zanean baño etxe-barrua utsago arrapatuko zuan beintzat.

Urte artako agorrillean, Santa Gurutz egunean, erre baizan.

Beraz, gazterik ikasiak gera zoritxarraren arantzak nola zastakatzen duan.

Bertso zaararak

BERRIRO ere atzeraxeago jota, esaten ari nintzan bezela, gu mutil zoztorrak asi giñan aita ondoren mendira-eta joaten, ardiak ikustera.

Baiña guk aitari jarraitu al izateko, patxadaz eta pazientziz joan bear izaten zuan bidean; eta, ala zijoalarik, bazekian bertso ederrik kantatzen. Esateko, arako Txirrita zanaren "Orain bi milla urte inguru" bertso bikaiñak, bertso osoak. Gaurko eta lengotasuna ere duten bertsoak dira.

Txirritaren omenez itz bi esan nai ditut: bazuala argi berezia bertsoak idazten eta kantatzen ere, beti entzun izan degunez. Juxtuan ezagutu nuan Andoain gure erri ontan bertsoak kantatzen. Zer aitona potzoloa!

Gure aita zanak kantatzen zituan, baita ere, arako "Azpeitiko premioarenak". Premio ura zala bide, aita zana Udarregiren alde egoten zala uste det.

Auzi ura nik neronek ere zaarraren alde erabakiko nukean. Baiña baziteken Udarregi kukurruku jotzen asi zana izatea. Ala ere, Pello izan zan sasi igarrari su eman ziona.

Udarregik etzuan esan premiorik gabe iñor gelditu bear zuanik. Baiña, paseak pasa, sosik ere artu gabe joan bear izan zuan, eta pakean joan ala ere.

Antiguatar bat izendordez firmatu zuana izan
zan auzi orri bere bertso batekin nere ustez oso
ondo epaia eman ziona:

Pello, Juan Jose ori
zegin deskantsuan,
edukiagatikan
zerbait goguan.
Bein batez Usurbillen
tentatu zenduan:
ea Azpeitiatik
zer berri zituan.
Desaire moduan,
lengoak goguan,
arrazoi galduan
itzegin zenduan.
Zertako burla egin
ari orduan?

Eta artatik sortu zan sua ta txingarra.

Artzaiak

GURE aita pakezalea zan, eta lagun asko izaten zuan mendiko artzaien artean ere: Iyuyako sendi osoa, Amaxa, Bordazar, Joxeakin Inttubi, Jabier Arrantzu, Joxe Bertxin, Elias, Larrabide ta abar.

Zuaiztiko Amaxaren txabola zan oso autatua. Amaxak txabola ura berak egiña zuan, eta udaldi osoan an egoten zan.

Ate aurreko arlosan, apalean, an edukiko zuan Uztarkaitzko iturriko ur otza; eta, andik aldian txurrut bat egiñez, orduak eta orduak egiten zituzten berriketan.

Txabola arek urki bat bazuan. Aretxen itzalean amaika berriketa egiten zuten artzai aiek. Eta, jakina, inoiz bertan illundu.

Ori asko ez dala, lañoa sartu ta Ormaxarreta zearrean bideari antzeman eziñik ibiliak gaude, aita zana itxu-aurreko nuala. Nekosoa egiten genduan etxerako etorrera.

Mendi oietan ezagutu nituan erriko eta erbesteko artzai-saldo aundi samarra. Asi gure auzo ontako Urrizti, Itxaso, Dolontxola, Larrabide Elias, Asu, Etxabe, Etxemuño, Kaxkabeltxa, Joan Joxe Uban, bi Baltzunak, Iyuyatarrak —Eujenio, Jose

Kruz, Santi, Jose Luis—, Presaburuko Iñaxio,
Jabier Arrantzuko, Pelipe Agerreborda, Kaskasolla
Garateko, Joxe Paarte bere anaia, Jose Bertxin,
Joxeakin Inttubiya Elduaindik, Santio Bordazar
Berastegitik...

Lenengo lanak

MUNDU txiki eta txiroa izanik ere, guretzat naiko aberatsa izan zan gure umearo ura, alik eta zerbait kozkortu eta lan arin batzuk egiten asi giñan arte.

Gutxi ezagutu ditut mundu ontan lanerako berezko gogo bizia izan dutenak; eta neri ere bearrak eragiten zidan bear.

Oso ume nintzala asi nintzan egunarekin bateratsu jeiki eta aitonarekin sorora, beien aurrean itzule-ra, eguerdiko amabiak arte. Soroan aruntz-onuntz, nolatan eguzki kixkalgarriak erasaten etzigun?

Gure basetxe ori guziz luze-zabala zan sorolurretan, eta lur lantze izugarriak egin bear izaten ziran.

Epaillaren lenengoetan asi eta maiatzean artoak ereiten amaitu arte, soro aietan zear jira ta bira, *aida* ta oo, jira bera ta jira gora. Txuxen ez banijotan, zer oiua!

Aitonak atzetik:

– Motell, lo al ago? Ezin al aiz txuxenago joan?

Eta, ganaduen urre xamar ez banijotan, burularrua lotzen daramaten sokari zati bat askatu eta, ari eskuarekin elduta joan bear.

Loak artzea ere gerta zitekena zan antxe, txutik nenbillen lekuan. Zortzi-bederatzi urteko mutikoa, eta eguzkiarekin batera sorora joan bearra, askok uste baño gogorragoa zan. Egunak, asteak eta illak antxe, soroan jira ta bira. Zailla da guziz bizikera ura zan bezin gordin azaltzea.

Gogoetak egin izan ditut soro aietan egindako joan-etorri aietzaz; eta, orduko jira bakoitzean izar bat itzali izan bear balu, dagoaneko geientsuak itzaliak izango ote ziran. Nik emendik ikusten ditudanak, danak noski.

Milloika izar omen dirala
izan degu aditzera,
gauean oiek azaldu arte
soroan aurre ta atzera.
Jira bakoitzan bat itzali ta
joan banintz soro-ertzera,
arratsen baten linbo beltzean
joan bearko nun etxera.

Orrelakoxe nekosoa zan gure gaztearoko udaberria. Beraren edertasunaz jabetzeko bide txarra zan ori. Baiña gero ortaz ederki gozatuak gera. Bi bertso auek noizbait jarri ere bai:

Udaberriak piztu
dizkigu loreak:
txuri, gorri, oriak,
urdin da moreak;
konta ezin ainbeste
dira koloreak,
sagararak arros antza,
txuri udareak,
baratz larrosa edo
baso landareak,
erakutsitzen ditu
bakoitzak bereak.

Lenengo ostro, lore,
gero igaliak,
eskeintzen ditu zugaitz
frutu emaliak.
Dozenaka izaten
dituzte aliak;
konturatzen badira
xoxo ta beliak,
nola izaten diran
gerezi zaliak,
laixter bilduko dira
beroien jaliak.

Ezibidea

GURE gurasoak sinistedun ziranez, ezi ginduz-
ten elizara eta kristau ikasbidea erakustera
eta abar.

Aurrena, otoitz garrantzizkoenak, amar agin-
duak, komunio txikia, aundia ta orrela.

Lenengo eziera Karteroanean, amona Joakinare-
kin, egin nuan. Otoitzak ikasteko ta ondo esateko
ardurarik artzen etzuanari, *kaxk!* emango zion zigo-
rrarekin zanko-zurtenean, eta orrelaxe. Lenengo
zenbaketak antxe ikasi nituan.

Ikastetxe artan ibili nintzanean, ez nuan bide-
-lagunik; eta, beraz, zer egokiera oberik aldian bein
piper bat egiteko ere? Testigurik ez neukalarik,
lasai-lasai. Aldakaitzko arrobi-zulora sartu ta kito.
Etxean nekez jakin zezaketean nere zentzugabeke-
riaren ondorioaren berririk. Amaika *piper* egiña
nintzan, amabi ez bada ere.

Esana det: ama oso ume nintzala il zitzaigun;
eta, jakiña, gurasoen nolabaiteko ezikeraren ondo-
rio tamalgarria.

Azi eta geroztik jakin al izan nuan ama batek
zenbaterañoiko garrantzia duan sendi batean, batez

ere umearen txiki-aroan. Amaren lorak obe, aitaren arantzak baño.

Gero, erderazko eskola batera asi nintzan, eta an zerbait geixeago jantzi nintzan. Irakurri, idatzi eta zenbaki batzuk ere tolestatzen ikasi nuan, eta kaixo, motell! *Nobel* saririk ez nuan jasoko, baiña tira... Etxeko ardi-beiak etzuten *Nobel* sariarekin zer ikusirik.

Beti izan nintzan gogo urriko ikastuna. Ez nuan bein ere ikaste premirik nabaitu, nere bizibidea aurrera eraman al izateko.

Gaiñera, berriz, gaztel izkuntza orrek asko eragozten zidan, ikasketak egiteko garaian. Izan ere, beti izan diot alako erra txar bat Cervantes-en izkuntza orri, ekarri izan dizkigun kalteagatik.

Ikastaro garai artan, gu, bi anai txikienak, bagenituan lan izentatu batzuk.

Lenengo, eskolarakoan jazten genituan jazkiak aldatu. Atze-aldean zulatutako galtza zarren batzuk eta soka bana artu, eta erreka aldera surtarako egur billa. Txikitu, sua egin da gaztaiñak erre. Gaiñera, sukalderako ura ekarri iturritik, eta abar.

Udaldian lan asko da baserrian: arta-jorrak, belar ontzeak... Bietatik ere sail ikaragarriak zituan basetxe orrek.

Bagenduan orduan ere oso garrantzizko lan bat: txarroa artu eta Lixarbeiko iturritik ur preskoa eraman sorora edo belardira, lanean ari ziran lekura.

Ur preskoa esan det; baiña iñoiz bapo epelduta, sorora irixten giñanerako. Orduan izaten ziran *donaerak*, aitonak esaten zekian bezela; eta ziplatekoren bat ere kontu izan, askotan merezia gaiñera.

Ezibide eskasa
gurasoengandik,
ikasketari ospa
al bazan inondik.
Umea zentzuduna
ez badator lendik,
beretzat berdin dira
kale edo mendik.

Bearrak eragiten zigun bear

GOIZETAN, aitag beiak jezterako, oiñetakoak jantzi ta prest egon bear, beiak eta asto txikia artu ta etxe aurreko otadira larrera eramateko; eta antxe egiten zituzten ordu pare bat, alik eta eguzki beroak edo euliak jotzen zituzten arte. Geientsuenetan berak etortzen ziran etxera, erreka aldeko gaztain ostroetan euliei astindu bat emanda.

Asto txiki ark, berriz, bazuan mani alu bat: Goiburuko bidea artu eta inguruko auzoetan barrena jira bat egin gabe etzan etxeratuko. Ala ere, gaiñera, norbait joan bear beraren billa.

Illuntzetan ere berdin: beiak kanpora atera bear. Erreka aldeko gaztaindira eraman eta preskuran gustora ibiltzen ziran.

Iñoiz itxilluak izaten ziran. Beiren bat inguruko belaze edo arto-sorora sartu ta arto-sailen bat marraskatu zuala-edo, ai zer aitonaren oiua:

– Rejuras! Nora begira egon aiz? Bagendezkek lasai, zuek bakarrik bei-zaira bialduta!

Udarak bereak eta bi lan baditu ere, uda-atzena askozaz ere areago da lanez. Ez dezu jakiten nun edo zertan asi, lenengo ta bigarrenko.

Artoari gaillurrak, orriak, kendu; babarrunak bildu; sagarrak bildu ta sagardoak egin. Gaztaiñak ere gurdikadak izaten zituan basetxe orrek. Danetan bildurgarriena, iñaurkin edo garoak etxeratzea zan, zalantzarik gabe.

Abere-sail aundia edukitzen genduan danetara, bei ta ardi, bietara asko. Goi mendietatik jetxi bear izaten genituan, eta geok eta ganaduak arrunt ondatuak gelditzen giñan.

Ogeitakak gurdi garo erre zizkigun 1929-ko apirilleko sute arek. Pentsa zenbat izerdi-tanta alpe-rrik boteak.

Bizi naiak lege zorrotzak ditu, eta erabat ond-
tuta gelditzen giñan negu aurrean. Bearrak eragiten
zigun bear. Gaur ez dago orrelakorik, eta antzera-
korik ere.

Gezurra badirudi ere, negua irixteko zaleturik
egoten giñan; eta negua ez uste baserrian jaiak egi-
teko izaten danik. Batez ere, gurean bezela, eun da
berrogei inguruko artaldea eta abere-sail aundi bat
ukulluan zeukanarentzat. A zer nolako lorra!
Neguaren portaeran alde ederra zegoan.

Askorentzako goragarri da
urteko uda-atzena,
baserrirako uraxe berriz
neketsu eta latzena.
Ez du jakiten zer lani eldu
aurrena eta atzena,
urtaro orri atera bear
urte osoko *kintzena*.

Ganaduak

ASKO moduzko aldagoia sortu ezkerro, kaixo, motell! Tximista ta turmoia, txingor-erasoa eta egunetako elurteren bat sortzen bazuan, ura, berriz, andik onerakoa.

Gure artalde ura ere apurka-apurka asko kopurutu zan. Eun da berrogei ta amarreraño ezagutua naiz etxean.

Uda-atzen edo negu inguruan etxe aldera jeixten genituan. Obeki esan, berak zaitzen zuten urte-muga ori; eta, batez ere eguraldiak itxura txarrak artzen bazituan, etzan billa joan bearrik izaten. Amarnaka, ogeinaka, oso nekez etorriko ziran danak sail batean.

Etzitzaizkien aztuko etxe aldeko basoetan egiten zituzten gaztain jateak, eta berdin ezkurra ere. Amorratua da ardia naiz gaztaina edo ezkurrera, oitzen bada. Uso demonio pasako dituzte inguruko basoak.

Txarra izaten zan, bakarren bat or beste ardi-saillen batean batu eta be aldera, Larrezuri edo Txintxuaren borda aldera, edo batek daki nora, jetxi zala eta aren billa ibili bearra.

Gertatu zan bein, gure ardi bat or beste artalde batean azaldu zalarik, bera ekartzera joanda, ardi ura etzala gurea ta egundokoa armatzea.

Ala, beintzat, gizon ura ardiaren jabe aitortu zan, eta baita zin egin ere egingo zuala, gurutzearen aurrean egin bear bazan ere.

Zin egin zuan, gaiñera, ardi aren jabetasuna epaillaren aurrean erabaki bear ko zala. Gureak garestitzat jo zuten auzia, ardiaren balioa konparatuz; eta an utzi zuten ardia.

Gure baserria saillez luze-zabala zalarik ere, epaillaren atzenetan larri ibiliko giñan ganadu-jatekoa sortu eziñik. Belar onduak amaituxe, eta arbi ta paotxak ere mendean. Zortzi-bederatzi bei ta artaldeari sabelak betetzen naiko ixtilluak izaten ziran.

Negu ondoren baso-barrutik
izotzak erreak dauzka,
orixe da bat urte buruan
artzaiak oi duan kezka.
Abere asko alkarren urre,
ondo ezin leizke bazka,
etsipenetan udaberria
noiz etorriko galdezka.

Larre txarrean bizkarra zorrotz,
ori da gauza jakiña;
ez daukat ori esan bearrik,
nago pruebak egiña.
Muturretikan eman ezean
ezin kendu etekiña,
saiatu arren ezin lortua
ori bai dala samiña.

Lanak

ABEREAK ez-eze, gu geu ere naiko urritasune-an aziak gera. Ori bai: soin-atalak lirain ta osasuntsu. Oiñak ere arin, mendi zearrak barrena ardiei ikustaldia egiteko, Belabi, Txuloborda eta Amillamaldan barrena.

Gazterik asia nintzan anai zarraren ondoren segan belar ebaten-da. Gogoan det bein nola joan nintzan ia bi orduko bidean Neusabera egurretara. Amabi urte ez nituan izango artean.

Abarketa berriak jantzi nituan. Baiña neretzat aundiegi ziran askozaz ere. Edo, obeki esan, neu nintzan txikiegi.

Baiña mundu onetan gauza geienak erremedioa badute, eta nere oiñetakoak ara zer zuten: baratzatik aza-ostroa ekarri, zati batzuekin mutur aldeak bete eta kaixo, motell! *Tipi-tapa* Neusabera anaiarekin.

Udal-sailletatik biltzen genituan garoak ere badute zer kontatu. Iraillaren lenengoetan *bandoa* egingo zuan errizaiak eliz-atadian, meza ondoan, ondorengo egunetan erri-bideak berritzera etorri zitezen.

Bide egitera azaltzen etzanak, etzezaken garoa biltzeko eskubiderik izan. Beraz, egun pare bat bide txukuntzen jardun bear zuan, ondorengo egun batez garoaren jabegoa izan nai bazuan.

Arrapazka esaten zitzaion garo-jabe egiteko era orri. Esango det nola.

Mendizaiak —goardak— izentatuko zuan eguna ta ordua Otitako zelaira biltzeko, urteroko lekura.

An azalduko ziran mendizaiak, bizkar-morralla jan ta edatekoz bapo beteta.

Baserritarrak ere bai, abarkak ondo lotu, igitaia gerrikoan sartu, alkondara-besoak azi ta goardak txalo jotzen zualarik, ea, motell, saillik onena arrapatzera! Orrixe esaten zitzaion *Arrapazka*.

Katebideta edo Malon gora danak errenkan jarrita, iyuyara lenengo irixten zanak izaten zuan alako garaipen bat. Urteko garaile-edo bezela ezagutzen zan. Orientzat etzan garaipena garo-sail onena arrapatzea, lenen irixtea baizik.

Garo-sail oien jabetzeak bazituan gizarte onak eskatzen dituan bete bear batzuk. Alabaiña izaten ziran, zoritxarrez, legepean ongi etzetozen jokaera batzuk naiko makurrak; eta gero, izketa mikatzak eta asarreak.

Gerora, beste era bateko garo-zatiketa bat sortu zuten: mendi-zaleak garoak sailkatzen zituzten, eta bakoitzari bere zenbakia ipiñi. Zozketa bidez bakoitzari zegokiona eman da kito.

Askoren iritzirako, orrela obeto egingo zan garo-partiketa, eta jendea pakean ibiliko zan. Baiña “usteak erdia ustel”. Sesioa ta gerra errez sortzen du. Zeiñek geiago, zeiñek gutxiago, uste ez dezunak, eta uste ez dezun garaian, sekulako ikamika eta alkar ezin ikusia.

Zozketako garai aietan ezagutuak gaude alkarri lepaitzakia ederki berotu akuilluaren ipurdiarekin, eta gero epaitegi-bidean ibili ziranak.

Jai-egunak

URTEAK zijoazen aiñean, gu ere sasoiria iritxi giñan; eta, jakiña: urte berri, asmo berri. Igandeetan ez genduan seietako mezetara joateko iñork deitu bearrik.

Mezetako jira egin, jazkiak aldatu eta *Argia* aste-rokoari, batez ere kirol-saillari begiratua eman: ukabilketan, Uzkudun, Mateo Osa, Olagibel... Las-terketan ere zaletasun aundia zegoan orduan: Zial-tzeta, Leargain, Aiako Txikia, Aixarna... Segaketan, Lokate, Florentino, Ondartza, Potrokillo... Pultsuan, Eltzekondo. Burrukan, Otxoa...

Orduan gosaldu ere egiten zan: urdai-zati bat arrautz batekin, baso bi edo iru sagardorekin; eta ganadu-jatekoak egitera.

Al zalarik, lekurik onentxoenean egingo genituan jatenak jaietan, txarrena asterako utziz.

Neguan gaizki ibiltzen giñan. Arbi-ostro edo paotx motxean jardun bear bazan, ai zer lantegi penagarria! Beatz-muturrak suminduta jarduten giñan.

Ganadu-lanak al zanik goizenik egin, bazkaldu ta *anka* norabait, al zan tokira.

Makiña bat istori
bizitzak badauzka,
ari naiz esplikatzen
banaka-banaka.
Gaztiak dibertitu
naia berez dauka,
lanak geroko utzi
ta pestara *anka*.

Ez giñan oso urrutian ibiliko. Gu, geu baiño
zarragoak ziran neska-mutillen tartean sartuta,
zazpi t'erdian edo ogei ta amaikan, *puntto* edo orre-
lako zerbait.

Nolanai ere, apal ordurako bilduko giñan etxe
aldera, iñoiz beranduxko, baiña tira...

Apustua

NEGU-garaian banuen nere lan izentatu samarra: ardiak artu bordatik eta inguruetako mendiren batera larratzen nituan: Txuloborda, Belabi edo beste norabait.

Batzuetan anai txikia ere nerekin izaten nuan, eta ardiak basora bota eta gu jolasean lasai. Ardiak or konpon.

Baiña ganadu orrek jateko ona nun dagoan badaki; eta, gu konturatzerako, ardiak Olaberriko belazera sartu. Baiña alik eta baserriko aiton zaarra oiuka asi arte, gu an jolasean. Makiña bat marru egin zigun.

Jostaketarik gogokoena makutsean jarri ta lasterka ibiltzea genduan: Katalan-soroko aldapa zeiniek bizkorrago igo eta orrela...

Emen, errian, bagenduan gizon bat lasterkari polita: Pello Ugalde, gaurko Martin Ugalde idazlearen aita. Beobitik Donostira lenengo egin zuan urte batez. Ez da gutxi. Dalako Pello ori emen mendiok barrena ibiltzen zan jaietan, bere saioketak egiten, ez onen, ez txarren, bien arteko baizik.

Garai aietan etzuen jende langilleak entrenamentuak eta jolasak egiteko astean astirik izaten. Lantegian zortzi-bederatzi ordu lan egin da etxera

etorri, ta ogi koxkor bat jan baxo ardoarekin, da soka ta txamarra artu ta mendira, su egiteko egurretara.

Gizon orrek, erritik irten da goiko kanalera joan-etorri egiteko joera artu zuan; eta apusturen bat edo beste ere egiñak bazituan: apari, bazkari edo orrelako zerbait.

Ain zuzen, mendibide oietan izaten zuan larralekua gure artalde orrek ere, eta ara gure lasterkari ori ikusteko era ezin ohea.

Lenengoetan, izu samar, erdi gordean, izkutuka antxean ibiltzen giñan gizon ura galtza motxetan ikusita. Baiña gerora trebetu giñan; eta atzeraxea-gotik, baiña berari jarraitzen ere asi giñan, alik eta asarre-purrustadaren bat egiten etzigun arte.

Ala bearrez, gizon aren ibillerak zirala bide, egundoko ondorioak etorri ziran.

Arek aiña korri egingo luteken mutillak auzoan bazeuden irudipenak sortu ziran. Orrezaz gaiñera, berriz, alkarren leia ere sortu zan auzoko gazteen artean: eta, denboraren burura, seta eta zimakerian alkarrekin ibili ondoren, bi auzo eta bi gazte katiatu ziran apustu batean, eta erri osoa naastu.

Galdu-irabazia jokatu zan, baiña alkarri barkatzeko asmorik txikienarekin. Gerora, beste alkar neurtze geiago ere jokatu ziran, eta naasketak denbora luzean iraun zuten.

Esan bear det joko ta seta zikiñak gu gazteon artean izan zuala lenengo asnasbidea. Gero, eldua-goak ere sartu zuten *muturra*.

Sua nundik itzaliko ezik, egur igarra ta zaborra suari botatzen jardun. Orrela gera gizonok, mundu triste ontan:

Ez gera pakean zale,
baizikan gerraren alde;
okotzean edo buruan,
danok gustora orduan.

1930 urteko agorraren 14-an jokatu zan apustu ura. Baiña seta eta zimakeriak aurrera jarraitu zuan; eta nere anai Joxek, len aipatu dedan gizon orrekin apustua egin zuan, Billabonatik Aiara zein aurrena iritxi. Nere anaiak irabazi zuan.

Baita ere ondoren, 1932-ko ilbeltzaren 17-an, San Anton egunean, *Txixtoki* zeritzan kaletar batekin, Tolosako zezen-plazan; eta aldi ontan anaiak galdu zuan.

Apustu-bertsoak

ONA emen apustu aietako bati nik andik urte-
etara jarritako bertsoak. Beren baserrien
izenetik, bati *Itxaso* deitzen zioten, eta besteari *Pre-
saburu*. Onela zioten:

Milla beatzireun ogei ta amar,
agorran amalaua zan,
korrika-apustu latza zegoan
bi mutil gazten balantzan.
Biak atera ziran arraitik
irabazi-esperantzan,
bat iritxi zan Exkerranera,
bestia birian etzan.

Ain zan goiz-giro ederra eta
ura jendian emana!
Makuts txurian ikusitzen zan
Belabi mendigain dana.
Jende geiena sumatutzen zan
aundi aldera etzana,
gauzak bestera irten ziran da
uste gabea zer pena!

Depositutik Exkerranera,
mendi-aldapa latzian,
tarte ortako kilometroak
nai bezin motxak etzian.
Irrintzika ta itxuraz alai,
ustez seguru antzian,
etzuten uste ibiltzerikan
gero alako trantzian.

Onyolarreko gurdi-bidian
neronek nuen ikusi:
Itxaso zan an atzetik eta
aurrera pasatzen asi.
Luxio jarri parian eta
pasatzia galerazi,
arrokeria egin zun baiño
etzun asko irabazi.

Jokera arro itxusi arek
etzun txalorik merezi,
abildadia baldin bazeukan
pasatzen zertan ez utzi?
“Ori dek, Miel! Iria dek gaur!”
oiua eta irrintzi.
Bere buruai ematen zion
balio aiña garrantzi.

Depositutik goitikan bera
bizi bide txarretan,
ez da erreza aurreratutzen
mendi-bidetxiorretan.
Itxaso salta espalda gaindik,
malkarrak bera arrastan;
Presaburu an, zapla sartu zan
Katalansoko errekan.

Al dan ondona esango ditut,
nola bainintzan testigu;
jendeak nola artuko ditun,
ori ajola eztigu.
Orduko ango gertakariak
ondo goatzen zaizkigu:
jun egin nai ta indarrikan ez,
bazan naikoa kastigu.

Begien bistan ikusi zana
esaten ez da delitu;
egiak zintzo esango ditut
naiz eta norbait eritu.
Erremeiorik ez da izaten:
etortzen dana sufritu;
ainbeste afan ibili eta
gero errekan gelditu.

Txikia gora atera zan da
Txuloborda ziarrian
erbian gisa ezkutatu zan
nere begien aurrian.
Maixu ona zun Urruzti zarra
laguntzarako urrian,
aztalak laster sartu zituzten
Exkerraneko *Bar*-ian.

Exkerranetik Depositura,
andikan berriz kalera,
batek egin zun jun da etorri
berrogei duron aldera.
Batzuentzako poza izan zan,
bestientzako galera,
jokatu edo ez jokatzeara
eurena zuten aukera.

Apustu arek etzitun danak
bukatu gure auziak,
arrezkero're ibili ziran
sutu nairikan sasiak.
Nolanai ere ondoren aiek
izango ziran gaziak,
buruko miñik ez gendun izan
Jaungoikoari graziak.

Amabigarren bertso onekin
itzaldiaren amaia,
poz-berriturik ta oroiturik
gaztearoko garaia.
Gurutze santu Lezokoa zan,
guretzat egun alaia;
nik ere zertzuk gogoan baiño
ez naiz iñoren etsaia.

Jornalean

NI udaberri aietan, mendian, Osiñaundi ta Zuaiztiko etxoletan egoten nintzan, ardi jeztekoekin gazta egiñez. Osiñaundiko etxola Xamoa artzaiarena zan; eta Zuaiztikoa, berriz, Amaxa artzaiarena. Berak egiña zan, nere gogoanean.

Txanpon batzuk irabaztera ere gazterik asi nintzan ateratzen. Emen, *Hidroeléctrica* indar-etxe aundi ontako ura artzen duan tubo aundi ori 1931 edo 1932 urtean berritua zan, erdiz goikoaldea, nik amazazpzi edo emezortzi urte neuzkalarik; eta antxe jardun nintzan, tubo barruan beera sartu soka erdi zintzilik eta kaldereroei laguntzen.

Baita gogoan det, erdiko zubitik gora, Malladi aldapa artan, berrogei ta amar kiloko zaku porlan nola igotzen nuan, neronek irurogeitik gora gutxi izango nitualarik.

Gero, tubo aiek, tubo zaarrak alegia, sopleteaz moztu eta kablean indar-etxera jeisten ere jardun nintzan, Lizarkolako Juxto lagun nuala.

Orduan jarria zan, *Hidroeléctrica*-tik Olaberri indar-etxera, kablea, aren bidez *Hidroeléctrica*-tik lan eragin zezaieten. An ere jardun nintzan, erretena ebakitzen.

1933-an, garagarrillean, Korpus-egunez, egundoko ondamendiak egin zituan uraldiak Euskal-Errian zear; eta or ibili nintzan, *Hidroeléctrika*-ko urbide edo kanaletan barrena, urak sartu zituan arri ta lur-pillak ateratzen.

Electra de Bertxin-go urbidea ere bota zuan urak: eta an ere jarduna nintzan, gutxi bat bederenik.

Gogoan det: 1933-ko uztaillaren 10 edo 11-ko gaua zan. Kanal txikia garbitzen jardun giñan, Erramun Txertutakoak aparria ekartzera bialdu ninduan; eta, Bertxingo arkaitz ondoan gora, leku txar batean igo nintzan.

Guda-ibillerak

Errepublika

GAZTE-denboran ez genduan buruauste aundirik etorkizunari buruz: astea lanean bota eta jaiaren zai jarri.

Bitarte artan gertaera garrantzizko bat gertatu zan: Españan errepublika jarri zuten, kantu zaarrak dion bezela:

Eskatzen zan bear zala
republika federala
ta etorri zan bereala.

Guk ez genekian errepublika izaten zanik ere, baiña argitu ginduzten poliki.

Kale aldera jeisten giñan jai-arratsaldeetan, musika zala edo jai-usaian, eta sortzen ziran alako naasketa batzuk:

– ¡Viva la república! ¡Fuera los curas y monjas!”
–pañolo gorria lepoan zutela, alako gizon arpegi illun samarreko batzuek.

– Ñooo! -guk geon artean-. Zer jende arraio ote dira auek?

– Komunistak omen dira.

– Ba omen dabilta anarkistak ere.

– Beste ori sei urtean kartzelan egon omen da, Santoñan edo Penalean edo nik al dakit nun.

Santoña ori pamatua izan zan errepublika-garaian. Sanjurjo jenerala edo zalako ura ere an egon zan preso.

Nolanai ere, gaiztoak eta onak egoten dira espetxean ere. Gero, gure gerra etorri zanean, nere gudari lagun bat, Permiñ Eizagirre, tolosarra, 1932-ko kintoa, len Santoñan Sanjurjori goardia egiten ziona, antxe sartu zuten preso.

Beraz, gure bizikera au pixuaren balantza bezela izaten da nonbait: une batean alde bat egoten da bean, eta urrengo aldian bestea.

Ez nuke esango, Sanjurjo ta lagunak, kartzelatik atera zituztelarik, an atez kanpotik goardian egongo ziranik; baiña bai nunbait ere gaiztakeri galantak egiten ibiliko zirala.

Nik banituan gudari lagun
Sanjurjon goardin egonak,
aginduk zintzo bete egin bear
iñoren mende dagonak.
Jan eta edan eman lenengo,
gero garbitu komonak,
preso an sartu zituzten gero
leno armakin zeudenak.

Gerrak ez baidu gauza onik ezertxo ere.

Andoaindik Itziarra

BOLARA artan, Buruntzako arrobian niardun lanean, bederatzi ta erdi laurlekoren aldera, eta pezeta batzuk aurreratzen asia nintzan.

Uztaillaren 17-an, nere baserrian, aur bat jaio zan: Maria Kristina Zinkunegi Irazusta, nere illoba.

Ni, beti bezela, lanera joan nintzan, eta zorigaiztoko zurrumurru bat zabaldu zan: Marruekon militarrak altxa ote ziran...

Bai. egia zan, zoritxarrez. Gure Euskal Erriak, euskaldunok, larrutik ederki pagatu bearko genduan guda zikiña sortu zan.

Gure Euskadi maite onek ere berealakoan su artu zuan. Obeto esan, su eman zioten baztarrik baztar.

Egunak eta asteak joan ziran urduri, egoera kezagarri batean, ezertarako erabaki bat artu ezinda.

Asi giñan gure etxeetatik tiroak entzuten; kañoi-danbarrak... Ai ura kezka larria! Azaldu ziran errian ere armadunak, batez ere pañolo gorriekin, da komunistak, anarkistak eta nik al dakit zer giza-jende edo zer ziran ere...

Nere *quinta* aldia 1936-ko guda madarikatu arek erdiz erdi arrapatu zuan. Baiña ni, Españako gudaritzatik aske, etxean nengoan ederki. Baiña asi ziran errian ere jendeari armetara deitzen.

Or azaldu zaizkigu gure napar Españazaleok su ta gar, beren zapela gorri, gurutze ta medalla, “¡Viva Cristo Rey!” ojuka. Leku onean zegoan gure erlijioa! Irun eta Oiartzun alde batetik, eta Ordizi eta Zumarraga bestetik, su artu zuan Gipuzko onek ere.

Or geunden auzoko mutillak larri: Joxe Mari, Domingo, Demetrio, Rufino... Guk, jakiña, ez genduan gerrarik jarri eta ez genduan gerrarik nai. Zer egin? Bertatik entzuten genduan kañoiien otsa, eta atzenerako pusillena. Belabieta gainean genituan pazistak.

Aldizka biltzen giñan auzotarrok. Zerbait erabaki artu bear eta ezin. Ura zan komeria! Azkenik zerbait egin bear eta esan genduan:

– Bearbada guda au laburra izango dek. Egun edo asteen buruan amaitu leikek, eta goazemazute itxasalde ortara.

Leku ederrean! Iru urte iraun baitzuan.

Andoaingo Xanti Mendikute bat aipatu gabe ez nuke lan au jarraitu nai. Gizon zentzuzko ura izan baigenduan gure zuzendari eta ongille ona. Aren deia auxa izan zan: agoztuaren 14-ean, arratsaldean, Arrantzu aldean kamioi bat egongo zala eta araxe joateko.

Rufino Itxaso, Demetrio Bulano, Domingo San Esteban eta Joxemai Txertuta, lau oiek itz emanda zeuden joateko; eta, nik ere joan nai banuan, aukera adierazi zidaten.

Nere bizian artu izan dedan erabakirik garrantzizkoena uraxe izan zala esango nuke.

Arratsalde erdi artan erten giñan goian izendatu ditudan bost gudarigaiok: Zorroztei, Lizarkolatik gora tren txikiko burnibidera igo, ta bere geltokitik Buruntza aldera pasa, ta arrobiaren gaikaldetik Arrantzura.

An zegoan gu eramán bear ginduan kamioia, Amezketako Arandia batena, txoper erdaldun batekin.

Xanti jaunak esan zigun, inork geldierazten bagindun, Ondarrora atunetara ginjoazela esateko, milizianoentzat.

Artean milizianoa esaten zan; baiña gerora gudariak ere izan gihan.

Illuntze aurretxoan iritxi gihan Zarautza, eta an andoaindar pranko ikusi genituan. Eta esan ere egin genduala uste det:

– Ez gaituk erritik aldegin degun bakarrak!

Jende asko izan zan, gu bezela, alde egin zuanik. Bildur ematen nunbait atzetik zetorren olatuak. Askoak izan baitziran illen artetik ezkutatu zituztenak. Amabost-amasei izan ziran, gure erri ontan bakarrik, zoritxarrezko eriotz ori eman ziotenak.

Zarautztik ere aurrera jarraitu genduan; eta, Itziar baiño lentxeago, Santuarianen geldierazi ginduzten. Esan genien, bada, gezur txiki ura: Ondarrora ginjoazela atunetara; eta aiek:

– Ondo! Aurrera, mutillak! Ekarri sueltot! –eta utzi ziguten pasatzen.

Itziar gaiñera iritxi gihan, baiña etziguten arrera alai ta ona egin an zeuden koko xixpadunak. Burutik oiñetaraiño miatu ginduzten; eta, ala, sartu gihan errira.

Itziar errixka alaia dalarik ere, naiko ituna iruditut zitzagun une artan ango jendearen arrera.

Gaua Mikoleneko ukuilluan gal-autsetan egin genduan. Garia jo ondoren gelditzen dan auka esaten zan gure aldean, eta antxe lo egin genduan.

Ama Birjin goizean jeiki, autsik aundienak astindu eta mezetara. Arrezkeroztik askotan eskertu izan diot bere laguntza.

Ordurako gure Xantik egin zigun Beñe baserrian egunak pasatzeko modua; eta illabete motx bat bezela-edo egon giñan ango sendiarekin guztiz ondo.

Lagunak ere egin genituan. Itxaspe auzora joanez eta aldizka itxas baztar artan bustialdi batzuk artuz egin genituan ango egunak.

Naparrak Donostian sartu eta Itziarra inguratu zirala-ta, berriro ere estuasunetan gertatu giñan; eta kezkak eta larritasunak. Andik aurrera jotzea erabaki genduan.

Etxe artatik aldegin genduanean bezin penaz eta kezkati aldegin genduan Itziartik. Nik, beintzat, oso penaz alde egin nuan. Malkoak ere bota bear izan nituan. Baiña Jaunari esker ematen diot, bi bideetatik onenean jarri nindulako.

Sendi artakoak egiñalak egin zizkiguten gelditze-ko. Baiña guk larrua salbatu nai genduan, eta egin ere egin genduan, Domingo gizarajoak izan ezik. Arek Teruelko lurretan utzi zuan bizia. Mutil jatorra, ona eta abertzale osoa.

Itziarko egonaldia

GURE Itziarko egonaldi ari buruz, bertso auek moldatu nituan andik urteetara:

Milla beatzireun ogei ta amasei
ta agoztuak amalau,
or Itziarren, Mikolenean
lastotan egin nuan gau.
Orduko gudak eragin zidan
orain esan nai nuken au,
ordundik Ama Itziarkoak
debozios berea nau.

Lasto gainetik kanpora irten,
zer ikuspegi bikaiña!
Nere begien aurrean neukan
itxaso urdiñ-urdiña.
Bist-ala bide begiratuta
zelai zabal ta berdiña,
bi gauz batera asnasten nitun:
ura ta Ama Birjiña.

Arrixku latzak izan ditugu
gerra ez baita jolasa,
bizi nai dunak il ez dedien
artu egin nai asnasa.
Nere bizian amaika bider
egiña nago ametsa:
Ama Birjiña Itziarkoak
eman zidala babesa.

Giputz erririk alairik bada
Itziar da bat alaia,
begira-leku berdin gabea
eleiz-alboko Talaia.
Alaitasunak dei egiten zun
naiz izan gerra-garaia;
etzait aztutzen: malkoz eman nun
nik Itziarren amaia.

Euskal-Erriko Ama Birjiñok
ez neri zelorik artu,
Itziarkoa baztartutzero
ez nazazute beartu.
Nere orduko bear gorrian
uraxe nun aukeratu;
arixe diot debozioa,
nere gogoa onartu.

Agur, Itziar; agur Beñetar
sendi gogoragarria;
eman ziguten etxe-legorra,
kendu gose-egarria.
Iñoiz aztutzen ez dedan auzo
barrio edo erria,
seigarrenakin amaitutzen det
nere kantu-lan berria.

Itziartik Gernikara

ARRATSALDE batez atera giñan Itziartik, eta illuntzerako Ondarrora joan giñan. Baziran gure saillean bidean edo Gipuzkoako mugan geldituak eta atzera egin zutenak ere. Baiña nik aurrera jarraitu nuan, Jaunari esker.

Ondarrora iritxi giñanerako, illuna zan bete-betean; eta an ere ukuillu batean sartu giñan lotarako asmoz.

Baiña ez genduan lo egiterik izan. Gauerdi alde-ra-edo, etzan da lasterrera, jeiki giñan. Ango zarata eta ixkanbilla! Tiro batzuk ere izan ziran. Ez dakit zer zan. Geuren morraltxoak egin eta aurrera jarraitu genduan. Genituan diru paper apurrak ere abarketa edo galtzerdietan sartu, *rekisatu* egiten zutela-edo. Itz berriak ere ikasten asiak giñan.

Lekeitioko arri-bidean edo kamioan, alkarri elduz joan giñan gau illunean eta zugaitz-pean. Ez baigenduan alkar ikusi ere egiten.

Lekeitiora giñanerako eguna argitu zuan. Lenengo aldiz ogi illuna edo beltza an erosi eta jan genduan, eta aurrera berriz ere.

Ereñotik aurreraxeago, Murueta-gaiñeko bide gurutzean eseri eta ogi eta zerbaitzuk jan genituan.

Beste sei bat kilometro gendukan Gernikara, euskaldunon erri maitatura. Atsedean alditxo bat antxe artuta, aurrerako bideari jarraitu genion berriro.

Errenteri zubira iritxi giñalarik, ura zan ixkanbilla arkitu genduana! Errira sarreran, era guzietako armak kentzen zituzten. Gure artean ere baziran pistola zeramatenak, eta antxe laga bear izan zituzten. Eta an berriro miatu ginduzten banan-banan.

Santi gure zuzentzaille zintzoa an arkitu genduan berriro ere, eta esan zigun oso leku txarrera joan giñala ara. Bazekiala guretzat moduko leku patxarazko bat, etxe uts bat nun zan errixka batean, eta an oso ondo egongo giñala.


Ereño zan erri ori. Jira eta araxe etorri gauerako, zortzi bat kilometroko bidean. Orrela, berrogei ta geiago kilometro egin genituan egunaren buruan, goizean Ondarroan jeiki giñanetik. Baiña ori zan okerrik txikiena, eta illabeteko etxe legorra izan genduan an ere, alik eta gurutzedunak iritxi ziran arte.

Ereñoko gu babestu giñan etxe ori, bertako jauntxo eskubitar batena omen zan. Baiña berori norabait ere ezkutatu edo *desagertu*, orain esaten dan bezela.

Ez dakit zein en aginduz ere, jaun aren billa erabili erazi ginduzten. Baiña guri etzigun gizon arek mesede besterik egin, eta ez genduan ari kalte egiteko asmorik.

Etxe artan andoaindar lagun pranko biltzen giñan danetara: Santi Mendikute, bere anai Eujenio ta Klaudiorekin; Julian Sarasola, Barriolatar anai bat edo bi, Pedro Elortza, Patxi Asindegi, Boni Etxeberritakoa eta gu, bost goiburuar: Demetrio, Rufino, Joxemai, Domingo eta ni, Austin.

Nigandik asita, sosak neurrian izan genituan. Baiña gudara deituak izan giñan artean, nolaerebait konpondu giñan, eta egun alairik ere izan genduan itunen artean. Lagun onak ere egin genituan, eta ondo egon giñan.



*Loiola sailleko leenengo konpañiko gudariak, Gernikako arbola-
ren aurrean, 1936-ko udazkenean.
Agustin Zinkunegi, goiko illaran irugarrena, ezkerretik asita.*

Jaietan neska-mutillen batzar elkartze zerbaitxo ere egiten zan, eta batzarraren amaiera nola izaten zan esan bear det orain.

Uda atzena, arratsalde laburra, gazte saillak kontu kontari; etzan musikarik izaten, guda bati izan bear zaion itzalagatik-edo.

Illunbistan, elizpera sartzen zan gaztedia. Une motx batean, illunpe artan, bikotea alkartu bear izaten zan; eta unetxo ura aprobetxatzen etzuana, an geldituko zan ontza antzeratsu. Oiturak badira mundu ontan, asko agintzen dutenak.

Ibillaldi bat egin genduan erriko mendi punta San Migelera. Mendi orren beeko barrenean dago Santimamiñe leitza zulo pamatua.

Gu bapo geunden Ereñoko errixka politean, urrutiko kañoiien danbarra otsak entzunez, naiko kezka biotz barruan nabaitzen gendualarik ere.

Gure lagun Santi etorri zitzaigun, esanez Joxemai, Domingo eta nere kintak deitzera zijoaztela, eta obe genduala geuron gogoz gudari aurkeztea; gutxienez, beintzat, dirua irabazten asiko giñala. Eta, egia esan, amar laurleko jasotzen asi giñan lenengo egunetik.

Gernikara deitu ginduzten. Baiña nik ez nezake esan eguna ziurki. Bertako agustindarren komen-tuan erori giñan, eta berealakoan ekin zioten guda saillak osatzen. Gudari saioketak ere egiten geni-tuan, eta asteetan orrela bili giñan, alik eta bata-lloietan sailkatu ginduzten arte.

Ala bearrez, *Loiola* izena jarri zioten gure sailla-ri. Errenteri auzoan, Mertzedetako lekaima etxean jarri giñan erdiak, lenengo eta bigarren konpañia; eta Gernikako zugaitz ondoan, Santa Klara lekai-me etxean, beste erdiak, irugarren eta laugarren konpañia.

Eman zizkiguten kokoxixpa edo pusil oiek ere, eta asi giñan aiek nola erabili ikasten. Ai zer nolako bildur ikara lenengo saioetan, ateratzen genduan *tirritarrapata* otsarekin. Oitu giñan gerora, eta egu-nero egiten genituan gure saioketak

Ala geundela, eratu zan lenengo euskal gobier-noa ere. Gernikako zugaizpean egin zuan Jose Antonio Agirrek legeen ziña, azaroaren 7-an; eta eliza nagusian entzun meza.

Gu an egon giñan, gure izkilluei zastakaga edo *bayoneta* muturrean sartuta. Nere bizian ez det armarik edo armadunik elizan egon leiken on-iritzi-rik eduki, Jaungoikoak barka.

Legutianoko burruka

BAIÑA iritxi zan benetako tiroketak egiteko garaia ere. Azaroaren atzenak ziran. Ez dakit 28 edo 29. Orrela zan gutxi gora-beera, gauerdialdera, andik atera giñanean.

Eguraldi oxka somatzen genduan auto barrutik. An ginjoazen mendiak gora, pago artean barrena. Txuri samar ikusten genduan lurra edo basoartea. Elurra ote zan? Izotza ote zan?

Alakorik batean, ara nun arkitzen geran Otxandio erri politean. Ez dakit gau batez edo bitan etzan giñan an, baserrietako ganbarako belar pilletan.

Ziur dakitena da azaroaren 30-ean, San Andres egunean, goizean goiz irten eta *taka-taka*, Legutiano (Villarreal) aurreko Pagotxikira eraman ginduztela.

Alditxo bat antxe gordeta egon ixilik, eta egunaren argieran eman ziguten tiroka asteko agindua. "¡Jesus, ba, ta alare!" gure aita zanak esaten zekian bezela, gauza aundiren bat gertatzen zanean. Ura ixtillua! Belarriak gortzeraiño! Lenengo bala txistuak antxe aditu genituan. Aizea bezela, entzun bai, baiña ikusi ez. Baiña andik aurrera izan genduan memoriz ikasteko ere aukera.

Bidean goazelarik, kezka betean joan giñan. Agintariak ere ixilik joateko esaten ziguten. Txintxik

ez ateratzeko, eta etzezala iñork poxpolo bat ere piztu. Etzuten arrazoi paltarik agintzen zigutenak. Lino Lazkano zan gure komandantea; bergararra bera, baserritarra gaiñera.

Esan oi danez, “makiña batek eragin zion ankarri”. Urrengo illuntzerako, gudari lagun mordo bat il edo zauritu ziran. Jainkoak jakin zenbat.

Ander donea! Zeiñen egun luzea bezin negargarria! Bidean ginjoazela, esan det kanpoa zerbait txuri ematen zuala. Etzan elurra; baiña izotza bai txuri.

Bala otsak asi ziranean, etzegoan etzateko nagitasunik. Ala ere, laster asi ziran zaurituen karraxiak, eta ildakoak jasotzen ere bai. Bitartean, nola-bait ere burua gorde egin nai bala arrixkutik.

Tiroak nai bezela tiratzen utzi ziguten. Balaren bidea markatzen duan txulotik begiratu ezkerro, nere tiroak Gasteizeraíño ere iritxiko ziran. Onela esan ziguten:

– Piñudi artan an zeudek etsaiak!

Nik beintzat ez nuan bakar bat ere ikusi. Baiña segi tiroka.

Gogoan det Lazkano komandanteak esan zigula:

– Ea, mutillak, bildurrik gabe, gaur Billarrealen bazkalduko degu ta!

Arratsalde erdi aldera egazkin bat azaldu zan aurrekaldean; eta ni, an gaizki nengoala eta azpikaldeko txokora mugitu nintzan nere burua gordetzera.

Baiña norbaitek ikusi nindun beste aldetik. Ni ortzaz gora etzan nintzan azaki lege batean, eta bala errenka joan zan nere sabelaren gaiñetik, garo igar kizkurak nere soin gaiñean utziz.

Egazkiñak beeko arribide aldera bota zituan lerkariok, eta ezkutatu zan da kito.

Gure guda saildiaren zati aundi bat or beekaldekoko Bidegain esaten zan basopean zabaldu zan, eta

andik il eta zaurituak ikusten genituan. Zenbat ote ziran? Jaunak jakin. Gure *Loyola* saillekoak zenbat izan ziran irakurri izan det; baiña orain ez det gogotan. San Andres egun artakoak bakarrik esan nai det.

Madarikazioz asitako egun ura ere amaitzera zijoan. Lainotsu, illun da bustia zetorren gaua; eta Albertia beekaldeko larreetan barrena an jarri giñuzten, gauean atakatu egin bear genduala eta.

Ura zan izua! Lainope artan ez genduan alkar ere ikusten. Ixilik eta ixilik, ez txintarik ere ateratzeko esaten ziguten agintariak.

Jira ta Pagotxikira etorri giñan. Sekulako triskantzaren bat izateko arrixkua ikusten zuten nunbait gure buruzagiak.

Egunak egin genituan Pagotxiki gain artan. Oriol sonatuaren *granja* bat ere bazegoan, eta gauren batean lo ere egin genduan an. Baiña geienetan mendi larrean egiten genduan.

Gogoratzen zaít gau bat edo beste pasatu genduala, arribidean su aundi bat egin da jiran, aurrea erabat berotua eta bizkarra izoztua gendukala. Izugarrizko izotz-ormak botatzen baizituan, eta jateko txarrak eta abar. Jende asko gaixotu zan egun aietan.

Nik izan nuan ikaragarritzko tirriña, eta Otxandioko gaixotegi edo *Puesto de Socorro* batera joateko jetxi nintzan arribidera. An Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zegoan, erritar ezaguna.

Sukarra baneukan ikustekoa jarri zidan, eta txekorra bezela an erori nintzan lurrera. Gure apaiz jaunak animatu ninduan, esanez:

– Lasai! Ori ez dek ezer!

Autoan sartu ninduten, beste zaurituekin batean, eta Otxandiora.

Bi edo iru egun egin nituan gaixo-etxe artan. Baiña oso gogo txarrez egon nintzan an, ez bainen-

goan jende modu artara oitua, eta uso-demonio aldegin nuan etxe artatik. Etzitzaidan gustatu miliziano jende ura. Aiek gure kontrarioak ziran. Beraien izkuntza oso gordinā eta erasokorra zan.

Ni erdal izkuntzan oso motz nengoan orduan, eta jende arek latīnez ere egiten zuan; baiña ulertzen nien zerbaitxo:

– *Cuando terminemos con los de Franco, lucharemos con estos nacionalistas; con estos papistas cobardes* -edo orrelako zerbaitzuk esaten zituzten gu abertzaleongatik.

Eta kontu izan aiekin! Inor laguntza edo lekukorik gabe arrapatzea aski zitekean bizien artetik ezkuta erazteko.

Dana dala, oso gogo txarrez nengoan Otxandio-ko gaixotegian, eta berriro ere mendira aldegin nuan, nere lagunetara.

Alditxoa egin genduan Pagotxiki inguruan, eta antxe il ziran Anastasio, orduan kapitana genduana, eta Borda esaten zioten bat, zarauztarrak biak. G. B.

San Tomas illuntze batean Albertia egalera igo erazi ginduzten, eta etzitzaigun eguna nai ordurako argitu. Ura zan otza!

Goizean, eguna argitu zuanean, pago zugaitzak zuri-zuri agertu zitzaizkigun. Laiñoak eta aize ozkiriak eragindako izurdea zan. Bein ere ez nuan gertutik ikusi izan, da San Tomas biaramon goiz artan gertatu zan ori ere.

Bi edo iru egun egin genituan leku artan. Zugaitz arbastaz estalia zegoan azaki batean joaten giñan, zaiketa egiten genduan lekura; eta gau artan an geunden Domingo zana ta biok beti bezela, baiña nik lo.

Domingo erne zegoan, ordea, eta zerbaiten zarata entzun zuanean, an jaurti zuan esku leerkari

bat. Eta ai ene! Danbarra otsarekin nola ez nintzan sustotik bertan il?

Etsaia oso bertan zegoala esaten zidan lagunak, eta bertara tiratzeko. Bitartean, gugana zetorren Itxaso kaboaren oin otsa izan. Asi zan oiuka etzala ezer eta ez tiratzeko. Orduan lasaitu eta an amaitu genduan gure ordualdia.

Gabon arratsaldean Gernikara etorri bear genduala ta zai jartzeko esan ziguten, ordezkioak zetozenarako.

Baiña ordezkorik azaltzen etzanez, beera jextea erabaki genduan. Erabat illunpetan eta oso jexkera gaiztoa izan genduan. Gero, jendea egoskortu eta txoratuta, bidean tiroka eta trenetik lerkariak jaurtika, oso gizalege txarrean etorri giñan Gernikara sartueran. Batzuk orain, besteak geroago, oso beranduko orduetan iritxiak izan ziran.

Egun batzuk Gernika ta inguruetan pasatzeko zoriona izan genduan. Etzan zertan gozatu aundirik ere; baiña bizia beintzat Albertiako malkarrean baiño seguruago gorde gentzaken.

Etzegoan jan-edan aukerarik. Jai eta asteak ere antzeko samar biurtu ziran. Gerrak, amaitzeko itxurarik ez.

Legutiano

URTEEN buruan, bertso auek jarri nituan
Legutianoko burruka gai artuta:

Milla beatzireun ogei ta amasei,
azaroaren atzena,
ordura arte nik pasatako
egun luze ta beltzena.
Ez nintzan asko gogoratutzen
mundu ontako gauzena,
bakar-bakarrik gertu neukala
gauza ederra etzana.

Otxandioko baserritikan
irten goizeko bostetan,
bildurrez ez nun lurrik ikuitzen
nere il bear ustetan.
Legutianora iritxi giñan
eta etzan izotzetan,
gauz ura zer zan ez nekian nik
pelikuletan bestetan.

Bide gain zear zeramazkiten
ildako eta eritu,
goitik begira, ez ote zan an
iñor bizirik gelditu?
“Anaiak alkar odolustera
zerek beartutzen gaitu?
Gerran bizirik irteten danak
arek bearko epaitu“.

Geroztik urte-mordo ederra
nere aje eta guzti:
ondo kontatu baditut beintzat
berrogei ta amazazpi.
Pasa dituten pena ta pozak
nastuan, ondo ta gaizki;
zeregatikan guda egin nun
damurik ez det eduki.

Gernika

GERNIKA gai artuta, berriz, beste sei bertso
auek moldatu nituan andik urteetara:

Atzen gudako oroitzapenak
gogoak gorde ditzala
ortxe Gernikan bizitua naiz
garai ederra etzala.
Pentsatu ere iñoiz neregán
luzaroko ez nintzala,
an sortua det aritzarengan
maitasuna ta itzala.

Jaunari esker ematen diot
berea baidet guzia,
eman dizkidan osasuna ta
urte askoko bizia,
garai batean pentsatzen nuan
bezin ona ta luzia;
nagon ontara iritxitzeko
beintzat izan det grazia.

Gure aritzan ezkurra badet
eusko lurrean ereiña,
jaio ta ezko ortxe daukat gaur
zuaitzño txiki liraiña.
Azi ta sendo ezkur ematen
ikusi nai nuke baiña,
Jaunak osasun emango balit
ori irixteko aiña.

Aritz zarraren jatorrikoa
or dago beste gaztea,
nai nukena da ondorengoen
ezaugarritzat uztea,
utzi zizkigun oiñarri aiei
lurrean tinko eustea;
fededun zintzo ziran aiengan
degu gure sinistea.

Asaba zarren batzar-lekua,
begiraleku Talaia,
Gernikak daukan gaindi polita,
eguzki-leku alaia.
Legeak ortxe ontzen zituzten
ta bertan eman epaia,
Jel izenean bedeinkaturik
esertzen ziraden maia.

Oi, Gernikako aritz maitea,
Euskal-Erriaren aita,
gure ikur da ezaugarri da
gurasoak ala naita.
Ama Euskera eta aritza
beti biotzetik maita,
zuen babesa, zuen itzala
guretzat asnasa baita.

Berriro ere Gernikan

BESTE bertso auek ere andik urteetara moldatuak dira, 1981-eko uztaillean ain zuzen, Gernikan berriro izan ondoren:

Berrogei ta bost urte paseak
eta iru illabete,
beste amabi egun gaiñera
ordutikan orain arte.
Egun artantxe urrundu nintzan
Gernikatikan aparte,
nunbait berriro biurtzekotan
naiz une artan ez uste,
orratx!, azkenik oin zar auek gaur
onera ekarri naute.

Errenteriko auzo onetan
Merzedetarren kabia,
garai aietan artantxe gendun
gure egoitzategia.
Ondo artuak izandu giñan
aitor nai bada egia,
berriro emen arkitzea da,
oi!, zorion, poz aundia,
nik nola esan unetxo ontan
sentitzen dedan guztia?

Loiolatarrok, agur Beiztegi,
berri on eta goraintzi!
Zuengan zerbait oroitu gabe
unetxo au ezin utzi.
Garai artako lagun on asko
gaur nola ez diran bizi,
Bizkai menditan beren odolez
izena zuten idatzi,
Goitar Jaun onak beuzka beregan,
zorion aundiz onetsi.

Arrien-ean akeita artuz
naiz atarian eseri,
gogoz begira ementxe nago
ingurutako gauzeri.
Azoka-plazan panpano aiek
gaur ez dirade ageri,
aien lekuan lore txuriak,
urdin, gorri eta ori,
inguru onek Paradisoko
atal-aurrea diruri.

Gernika zarra, ene Gernika,
aritz zarraren egoitza,
zure ondotik igarotzean
illun jarri zait biotza.
Zure semeak errian zear
gasteleraz dira mintza,
ola baztertu bear badegu
Aitor da Amalen izkuntza,
Amatxo, zure seme leialak
lan da lan zertan dabilta?

Bizkaiko erasoa

EGUN batzuk Gernikan pasa ta amaitu zan gure oporraldia. Berriro Legutiano (Villarreal) ingurura eraman ginduzten, Mendigain izeneko ordeka batera. Baso tarteko leku eder bat zan, gaur urpean dagoana.

Neguak luze jo zigun. Batez ere gaueko ordu luze ta otzak etziruditen amaierarik izan bear zutenik ere.

Noizbait ere bukatu negu tamalgarria eta iritxi zan udaberria. Nolako udaberria, ordea? Zeiñek aztu 1937-ko martxoaren atzen eguna?

Egunaren leen orduetan goardian nengoan gure luebakian, eta ara nun azaltzen zaizkidan aurrekaldean bederatzi egazkin ikaragarrizkoak, iru-irunka. Beste bederatzi, berriz, Albertia gaindik Durango aldera ezkutatu ziran, eta bereala entzun genduan bonba otsa. Asko izan ziran illak, eta zaurituak geiago. Zer triskantza!

Gure inguruan igaro ziranak, bertan asi ziran bonbak jaurtitzen, eta ura kearen beltza gelditu zan izotz txuriaren gainean! Oso jabetu ziran gurekin bildurra ta eriotza ere.

Andik denbora laburrera, ekin zioten kañoiekin ere, lenengoetan Albertia mendiari. Egazkiñak,

berriz, kazakoak, Jarindo gaina jo ala ez, nai zuten bezela egiten zuten beren lana.

Igarri genion mendigain artan etzala berri onik; gureak luebakiak uzten ari zirala alegia.

Gu geunden lekua pakean zegoan. Baiña alde egiteko agindua izan genduan, etsaiak bertan arrapatu ez gintzan.

Ni goardian nengoan atzeratzeko agindua eman zutenean. An ametralladora bat gelditu zan jabe gabe, guretako batek utzi eta ospa eginda. Ala bearririk, besterik etzegoan an eta neri esan zidaten agintariak traste ura bizkarrean artu ta eramateko. Baiña, loitan igaro eziñik, larri ibili nintzan.

An bazegoan azaki aundi bat, naiz gizonok ala abereak ezkutuan igarotzeko; eta ni ere antxe sartu nintzan, loi aundi ta zimelean. Pauso bakoitzean oiñetako bat loitan utzita atera nintzan zulo artatik.

Zanko erdiraiñoko katiuskak nituan, ta tiraka asi nintzan. Baiña ezin atera eta oiñutsik aldegin nuan lenengo basoraiño. An baizebiltzan egazkiñak buru gainean barrena. An bizkarrean neramazkian beste oiñetakoak jantzi ta iritxi nintzan lagunetara.

Atzeko mendira igo giñan, eta an egon giñan iru egunez, txitak sasipean piztien gordean egon oi diran antzera.

Bitartean, mendi oietan aurrerakada egin zuten *Viva Cristo Rey*-ko jende oiek.

Pagotxiki eta Otxandio inguruetan izan ziran ikaragarritzko ausiabartzak. *Itxarkundia* batalloikoak-eta burruka gogorrek jo zituzten.

Gu atzeraxeagoko mendian egon giñan apirillaren 4-a arte, Goiz artan, Itziarko Manzisidor bat eta ni, Pagotxikitik atzera zetozen eta gure aldera igarotzen asi ziran gudarien laguntzarako jarri ginduzten, arribidez beste aldera pasa zitezen.

Alako batean, Gantxegi apaiz jauna azaldu zitzaigun, arrixkuan geundela eta atzen onespen otoitzak egitera, eskatuz antxe bizia eman bear bazan ere ez leku ura uzteko. Jaunaren itxaropen osoz lasai egoteko esan eta "Gora Euskadi!" deadar eginda joan zan.

Guk ere "Gora!", eta an gelditu giñan. Andik lasterrera Permiñ Eizagirre, gure tenientea, etorri zitzaigun, an alperrik geundela esanez, eta gora igotzeko.

Erreka aldetik gora igo giñan eta, egoera kezkarri batean alkarrengana bilduta an geundela, moro-sail bat azaldu zan Otxandio aurrean, eta nere teniente Permiñ ura asi zan nere kontura zegoan ametralladorekin aiei tiraka; eta *krask!*, tramankulu zar ura izorratu edo *enkaskillatu* egin zitzaion.

Orduan neri esan zidan:

– Artu egizu ametralladora au, baita zure gauzak ere, eta zoaz norabait, al dezun lekura, gu ere laster alde egin bearrean izango gera ta.

Uraxe norabait! Ai zer ibillera penagarria egin nuan! Une bildurgarria zan uraxe.

Une artan iritxi ziran egazki aundi ikaragarri batzuk gure gaikaldera, asi ziran lerkaiak jaurtizen, eta ura bildur-izua!

Pago-baso aundi batean geunden, eta orbela lainoa bezela edo kearen antzera altxatzen zuten. Egun argia bera ere, zerbait illundua jarri ziguten. Esan zidatenez, aritz bat zaiñez gora utzi zuten bonbak.

Ez dakit ildakoak zenbat izango ziran. Baiña gure sailleko kapitana ere antxe il zuten: Lete pelotaria. Bergararra izan bear zuan.

Rufino nere laguna ere, pago aundi baten azpikaldera aldatu zan, bateko bonbardeo artatik ba-

bestearren eta besteko balei iges egin naian. Ain zuzen, orduantxe, beste aldetik zetorren bala batek burua baiño goraxeago jo zion pagoaren gerrian. Gizarajoa larri ibili zan, bere burua gorde eziñik. An etzegoan jolasik.

Domingo nere lagunak ere eman zizkidan gauza batzuk eramateko, eta ederki zamatuta aldegin nuan andik. Kilo-mordo baten jabe egin nintzan danetara.

Domingo zanarekin agurtu nintzan. Esan zidan:

– Joan adi, motell! Alkar billatuko diagu, bizi bagera!

Abiatu nintzan ni ere gora; eta, andik lasterrera, miliziano bat arkitu nuan oso egoera tamalgarrian, lurrean luze. Zerbait adierazi nai zukean; baiña bere mintzoa oso bajatua zeukan, eta erderazkoa gaiñera. Beraz, neretzat alperrikakoa. Txokolate kozkor bat eskeiñi nion, eta ortzetan an gelditu zitzaion.

Nik aurrera jarraitu nuan, baiña an etzan atsegiñik. Dana oiñazea zan an. Ura joanera! Zoratzeko aiñakoa. Ango kañoi, egazkin eta bala artean, aurre-ra beti ere. Onik atera nintzan ilgai guzi aietatik.

Illuntzerako Barazarko inguruetara iritxi nintzan. Illunduxe ere bazegoan, eta an ere danen tartean josi ez nindutenean, pozik.

Bein somatu ez nuan gauza somatu nuan an. Aidean lertzen ziran kañoi-bonbak botatzen zituzten, eta lurrean lertzen ziranak baiño ots aundiagoa ateratzen zuten. Bildurgarriak benetan. Ala ta guztiz ere, onik atera nintzan estuasun artatik ere.

Gaiñera iritxi nintzanean, bistatu nuan Ubidea. Barazar inguru artan egundoko mugimentua zegoan. Arribidea betean zijoa jendea igesi. Geu bezin azkar atera baizan arerioa mendi gaiñera, eta eroso jarri gure atzetik ekiteko.

Egundoko nasketa zegoan. Ni erabat ler eginda nengoan, eta erabat izututa ere bai, egunaren buruan iragan nuan larrialdiarekin.

Nik nere aldetik baneraman nere igesbidea; eta, beera jetxi nintzanean, arribidearen beste aldera igaro ta “ea, motell!”, al nuan lekura.

Mutil gazte batekin alkartu nintzan; baiña igesbidea ez genduan berdin ikusten. Arek nai zuan aldera arrixkutsua ikusten nuan nik, eta alde banatara jo genduan.

Illunabarrerako pagadi batera iritxi eta zerbait atsedendu nintzan; eta an sortu zan, nik ez dakit nundik, Santanderko kaballeria zala-edo, *alto*-ka izugarrizko ixtilluarekin. Ez dakit abere tarte artan arrixku artatik onik nola atera nintzan. Jauna lagun neukan nunbait.

Entzuten nuan nere aldeko agintarien oiui, dea-dar eta zaratak:

– *¡Todo el mundo arriba! ¡Hay que luchar contra los fascistas!* Ea, mutillak! Loiolakoak, Itxarkundia-koak, goazen burrukara!

Baiña nik ez nuan ara joan nai. Erabat izutua bainengoan.

Ni ez nengoan ortarako, eta an sartu nintzan erreka gaikaldeko otadi batera. Malkar artan etzan nintzan, ankartean ote zorten baten laguntza nuala, beeko zuloraiño ez joateko.

Neukan jatekotik aoan zerbait mazkatzen asi nintzan. Ez neukan goserik, egarri izugarria baizik, nekeak eta izuak emana nunbait.

Gau erdi aldera-edo, ango zarata zerbait baretu eta gelditu samartu zanean, loak artu ninduala uste det. Baiña an ere ez nengoan lasai; eta artu nere trasteak eta errekaeto zar ura nolabait pasa, arribidera irten eta errirako martxa artu nuan.

Apirillaren 5-ean, goizaldera, iritxi nintzan Zea-nuri erri politera. Gaur bertan ere damua daukat lagunetatik ala urrundu izana. Il beldurrak eragin zidan igesaldi ura dana.

Enparantzara iritxi nintzan, eta izketa marmarra entzun nuan eskaratz moduko barrunbe batean. Ateari bultza nion, eta ura zan ikustekoa ikusi nuana!

Iru-lau gizaki zeuzkaten oin-eskuak atzera lotu eta lurrean, azoka batean iltzeko saltzen diran arkume gaixoak egoten diran antzera.

Neri ere derrepente ekin zidaten, epaitegi batean bageunden bezela, galdezka. Ikaratu nintzan bizi-ro. Galderak-edo, zerbait itzegiten zidaten, baiña erderaz; eta nik ulertu ere ez nuan geiegi egiten. Ez bainekian erderarik ia batere: ea nundik eta zertara etorri nintzan; zein nintzan eta auskalo zenbat galdera eta zerrikeri esan zizkidaten. Nik al dakit zer ziran gizon itxurako abere aiek!

Nik nere aldetik zerbait esan nai nien:

– *Ametralladora encasquillau. Teniente mandar a mí ir con ametralladora.*

Alakorik batean kendu, begiratu zidaten txisme ura, eta ikusi zuten egia niola.

Egoera artan geundela, txofer euskaldun bat iritxi zan autoarekin. Ari ere itzegin zioten zerbait nitzaz. Bereala igarri zidan ezin nuala erderaz itzegin, eta Bizkaiko euskeraz galderaren batzuk egin zizkidan. Orduan ni ere poztu egin nintzan, eta galdetu zidan nere batallaira joango nintzaken. Nik baietz.

Bizkaitar aretxek salbatu ninduan. Ez dakit bestela zer ikusi bearko nuan. An zeuden basati aiei itz batzuk egin zizkien errita moduan: ea bai al zekiten *Batallón Loyola*-k zer egoeratan igaro zuan aurreko eguna.

Sartu ninduan gizon arek bere autoan. Nik egarria neukan, eta ura edango nukeala. Baiña ordu artan ura billatzea zailla izango zala esan zidan, eta ardoa emango zidala. Ala, botill ardoa nere kontura nuala eraman niñun bere kotxean, eta ixtantean Barazarren giñan.

Lista irakurtzen ari ziran; eta, kotxetik ateratze-arekin batera, orduantxe deitu zuten nere izena:

– Agustin Zinkunegi!

Eta nik kotxearen atetik erantzun:

– Emen!

Ala esan zuan gure teniente Permiñek:

– Esaten nian nik au azalduko zala eta etzala galduko! Artzaia dek au, artzaia!

Berriro Zeanurira jetxi, bai, ta apirillaren 5-ean, autobusetan sartu eta Gernikara etorri giñan, illaren 18-ra arte. Lenbiziko aldiz orduantxe entzun nuala uste det:

Gudariak gera gu
Euskadi askatzeko...

Baiña abesti arek ez nindun geiegi une artan betetzen. Gure lagunak mendian bizitzaren arrikkua jokutzen ari ziran denbora berean, gu egunak goxo igarotzera baiginjoazen.

Amairu egun bapo pasa genituan Gernikan, tiro arriskutik urruti, gauean ere lasai lo egiñez, gure lagunak mendian iltzen ziran bitartean. Fazista oiek gogor jotzen zuten; baiña etzuten berak nai aiñako aurrerakadarik egiten.

Guri ere iritxi zitzaigun mendira joateko agindua. Illaren 18-an eraman ginduzten berriro ere, eta aldi artan Mañariko aitzetara. Ura ibillera egin genduan gau illun artan, eguraldi laiñotsua zalarik! Oso igoera gaiztoa gurea, aitzarte artan gora, muturka, iñundik iñora bidea erabaki ezinda. Egu-

nez ibiltzeko ere leku txarra izango zan batera sartu giñan an, arkaitz eta egur tartean.

Urbide estu bat dago mendi zear artan, Mañari-ko indar-etxe bati ura ematen diona. Ez giñan nai ordurako iritxi goiko kanal artara. Antxe egon giñan, illaren amaiera alde arte.

Antxe geundela izan ziran Intxortako burrukak. Illaren 20-garren aldean asi eta lau bat egunean bildurgarritzko triskantzak izan ziran.

Gernika, berriz, gure erri miragarria, illaren 26-an austu eta kiskali egin zuten fazisten arrano tzarrak. Gu gaberarte ez giñan konturatu, naiz eta kea edo orrelako zerbait somatu. Zeiñek pentsatu alako aberekeririk iñork egin zezakeanik?

Guk ez gendukan zuzeneko burrukarik. Baiña arrisku txarrean geundela eta andik mendi aren gaiñera igo giñan gero. Eskubaratz beraren izena. An arria merke. Asteak bota genituan leku bakarti artan. Gaiñean egazkin batzuk edo asko pasatzen ikusten genituan, da besterik ezer ez.

An ala gaudela, gau batean iritxi zan berria: etsaiak Dima ez-ezik, Iurre ere artua zutela; beste aldetik Lemoako aitzetaraiño iritxita zeudela eta azkar jeixteko. Pentsa Eskubaratz mendia nun gelditzen zan.

Gauetz, muturka ainbeste bidean, beren atzaparretan erortzeko arrisku betean ibili giñan bide luzean. Dima ingurutik goizaldeko ordu illunetan igaro giñan. Bestela, beraien esku gelditu bearrak izango giñan.

Urrengo gauean Igorren jarri giñan lekuz; eta Domingo zana eta ni goardian.

Gure lagunak, berriz, libre ziranak, elizara sartu ziran lotarako asmoan; eta an barruan esku-bonba bi nai gabe lertu eta Lazkaoko Arkarazo mutil gaztea etzan il, baiña ederki marraskatu eta puskatuta gelditu zan. Egun pare bat iraun zuan bizirik.

Nere lagun Rufinori ere metrailla zati bat sartu zion ipurditik, urratu txiki bat egiñez. Baiña arek etzuan okerragorik izan.

Gu lurre ortan geundelarik, il zan Mola ere; eta egun aietan izan ziran Lemoako burrukak. Makiña batek utzi zuan bizia.

Orduan ekin ziguten guri ere, eta an ziran komeriak. Ez genduan egun ederra pasa. Lenen aldia zan aurrez aurre jarri giñala; eta, egun osoan jardunda, etziguten mendi ura goraiño kendu.

Agintariak esan ziguten gauean atakatu egin bear genduala, ta an jarri giñan, *a la bayoneta* jokatzeko gertu. Egunez bulartsu burrukatu bagiñan ere, agindu bildurgarri arek egundoko izua sartu zigun, neri bai beintzat.

Zai geundela, izugarrizko tiroketa sortu zan. Aldi batean ala jardunda, ixildu zan ura ere, eta belarriak adi. Ikusi etzan ezertxo ere ikusten, baiña noizean bein alako zarata irudipena-edo. Aurreko era-soan balaz erdi moztuan gelditu ziran pago adaxken *krasketa* otsa izaki nunbait, aizeak mugitzen zituean; eta, orrelako ots aiek zirala bide, aztoratu. An ekin genion. Ura zan zarata armatu genduan!

Tiroketak eta estuasunak amaitu ondoren, an jarri giñan berriro *a la bayoneta* ekiteko deiaren zai.

Egoera artan gauak luze jo zigun. Eta, goizalde-ra-edo, alde egiteko agindua etorri zan. Ez gendukala an ezer egiterik, eta bertan geldituta arriskuan geundela.

Ez dakit mendi artan zenbat ildako izan genituan. Bakarra oroitzen det. Zarauztar *Xalberdin* an erori zan gizarajoa. Morteroak buruaren erdian jo ziola esan zidaten.

Egunaren argieran Zeberiora jetxi giñan, eta andik arribidez Ubaoraiño (*Miravalles*) atzeratu. Baiña an ere egun gutxi egin genituan.

Antxe zegoan *Cinturón de Hierro* zalakoa, ardi bordatarako ohea, gerra batean babesleku izateko baiño.

Gogoan daukat: gordeleku artan geundela, mendi bei gorri batzuk etorri ziran erri inguruko soroetara. Nere lagunetakoak an eratxi zuten bat beintzat tiroka lurrera. Ekarri egin zuten gure leku artara, eta zintzilik jarri, jateko. Baiña etzan denborarik izan ezertarako. Pena eman zidan aberea ala iltzeak.

Egun pare bat edo ez dakit zer egingo genituan erri artan. Baiña an ere, gu oartzerako, oso aurrera eta gora igo ziran gure etsaiak, eta berriro ere *Belaustegixa* egin bearrean geunden, eibarrak esaten zutenez eta gero danok erabiltzen genduan. Egin kontu, gu Ubaon geundela, ordurako Pagasarri gainera atereak zirala; eta al genduan azkarrena andik ateratzeko! Guk ikusten genituan jendeak mendi gainean. Baiña gu, guretakoak ziralakoa, lasai.

Abitu giñan andik gora, Zollo auzo polit batean barrena; eta ene! Ura gerezidia zegoan! Zugaitz danak gorri-gorri ikusten ziran, baiña jaterik ez. Ura tamala!

Mendi sakon batean urbildegi (*embalse*) bat zegoan. Korzeta edo olatsuko izen bat dauka. Aren ondotik gora, izugarrizko aldapa batean igo giñan Ganekogorta ondora.

Nolabait ere atera giñan gainera. An jakin genduan Bilbao artua zutela, eta kito! Zearo etsipenak jota, ezertarako eta iñorako ez giñala gelditu giñan.

Andik, tirorik egin gabe, Gordexola, Zalla, Aranguren errietara iritxi giñan. An egazkiñak lerkai batzuk bota ta bi zaldi eder il. Gazteak ziran noski. Guk aurrera jo genduan.

Gure koartela Balmasedan omen genduan. Baiña guk beste bidetik joan giñan. Otxaran auzo-

an garo artera sartu ta etzanda, ango piñudietan, auntzen antzeratsu, bi illabete inguruan ibili giñan.

Otxaran auzo ortan an etorri zitzaizkigun miliziano oietako batzuk, tanke moduko batetik oiuz eta marrakaz esaten zigutela:

– *¡Tirad los Cristos y a luchar contra los fascistas!*

Guri, len esan bezela, Bilbao galdu genduanetik, etzitzaigun ezertarako gogorik gelditu. Ordurarte etziguten ezer askorik lagundu milizianoak. Base-rietara joaten ziran aiek *oilloak kojitzera*, Txirritak ijitoei jarritako bertsoetan esaten duan bezela. Madriko gobernuarengandik ere ez genduan laguntzarik izan.

Aurrera jarraitu genduan: Traslaviña, Villaverde, Villanueva, Calleja... Karrantzaraiño eramán ginduzten, Asturiasa joan bear genduala ta. Bai trenean sartzen asi ere. Baiña berriro or Karrantzako auzo oietara igo eta or ibili giñan gain oietan.

Gogoan det San Inazio egunez jai egin genduala. Jan-edana zerbait berezixeagoa izan genduan. Pelix Alberdi eta Permiñ Eizagirre galtza motxetan jarri ta mendibideak barrena ikusita, parrak egiten genituan.

Gure Gobernua Truziosen gendukan, eta antxe lasaialdi bat izan genduan. Baiña etsaiak ekin ziguten egun batez. Kirrimarra batzuk izan genituan, mendi tontor batean dagoan San Roke izeneko ermita batean. Gu ez giñan beartu, baiña inguru samar geunden. Eta barealdia berriro.

Armak ere onenak kendu zizkiguten, eta ia Madriko aginduetara gelditu giñan. Militar saioketak egin da gure agintariak ere militar ezaugarriak jarri zituzten beren bularretan. Gerra artan izan genduan, lagunkide gurekin, Trosky edo Stalin gurtzen zuan jende bat, eta azkenerako aien mende bezelatsu jarri giñan.

Itxasoan bustialdia artu al izateko, Oriñón erri txiki batean oso ondartza polita dago. Egun batez antxe larri ibili giñan. Urak barru aldera tiratzen, da ni beintzat, urari apur bat amor emanetz, olatuak bazterreko arroketara eraman nindun, eta nere larru azalak ederki karraskatuta atera nintzan arri tartetik.

Joxinixio Etxeberria zanari

GERO jakin nuanez, nere lagun maite bat Bilbaoko Artxanda mendian il zan, andoaindarrara bera: Joxinixio Etxeberria, gure auzoko Berdillegi baserrikoa; eta orain bost bat urte bertso auk jarri nituan aren oroipengarri.

Berrogei eta amabi urte
dirade aurten beteak,
eusko odola irentsi zula
Artxandako gudateak.
Zuretzat asko oroitu gabe
joan zaizkigu urteak,
bizia antxe eman baizuan
Berdillei lagun maiteak.

Gauzak itxura berez ala du
diran bezela esanda,
apika ondo ez det egingo
nerau bistan ez nintzan da:
amaikarentzat oroipen gaizto
zoritxarreko Artxanda,
antxe betiko gelditu ziñan
luebakian etzanda.

Errian ziran bi gizon aundi
Joxinixio ta Patxi,
Euskadi eta euskeran alde
etzuten eraman gutxi.
Nik dakidala aien gorantz
ez da letra bat idatzi,
erriak asko goraldtu gabe
biei atzena iritxi.

Joxinixio, oroitarrian
bear zenduke izena,
Jel-zale ziñan bete-betean,
gizon piña ta zuzena.
Artxanda artan jokatu zendun
ordu latz eta beltzena:
“Il naiago det ikusi baiño
aberriaren atzena”.

Betikoa dan alguztidunak
berekin izan ditzala,
bizi zirala izandu zuten
Beraganako itzala.
Josulaguna izan zan Patxi,
gizon ixil da apala,
abertzalea Joxinixio
gutxi diraden bezala.

Orain aitortza on bat egiñaz
nai nuke lan au bukatu,
zuen gorantz lan egiñaz
ez naiz geiegi nekatu.
Ez neukan orain zer kezka izan
egin ez banu pekatu,
agur, zeruan ikusi arte,
utsegiteak barkatu!

Etsaien mende

GURE jokoa erabat galdua gendukan eta egun tristeak ziran aiek. Berriro mendira atera arazi eta izan genituan tiroketa batzuk. Baiña etsaiak noiz belarritik elduko an jarri giñan, ia zearo etsita.

Jatekorik etzitzaigun irixten, eta gose ere bagiñan. Artzai batek, amar bat ardi uste det izango zirala, pena galantarekin eman zizkigun, naiz eta amarna duro pagatu. Aiei esker bizi izaten jarraitu genduan.

Gerra asi ta amairu illabete pasatxora, agoztuaren 26-an, eldu ziguten italiano zarrak lepotik eta kito!

Gerra galtzen bagenduan, inglesak barkuan aterako ginduztela ere esaten ziguten, eta itxaropena ez genduan zearo galtzen. Baiña gure naiak eta usteak Kantauri itxas-ertzean ito ziran.

Illunabar batean or esaten digute agintariak bakarrik joateko erabakia artu zala. Ene bada! Ura ixkanbilla armatu zana! Gogoan det Permiñ Izagirek nola esan zidan:

– Orain arte lagunak izan gera, ba, Austin.

An bakoitzak bere doneari egiten zion otoi. Are-rioa bertan gendukala ta zai egoteko; baiña orduan da iñozoago jarri giñan. Ez genduala goardirik egin-go, ta asarre, bakoitza zerizkion lekuan.

Ni, beintzat, aiñar tarte batean kuxkurtu ta an jarri nintzan, oillo kloka txitak ateratzen egon oi dan bezela.

Laiño ta euri intza zetorren zeruetatik. Uraxe zan erabateko illuntasuna! Biotz barruraino sartu zitzaigun goibeltasuna ta kezka.

Jetxi giñan malkarrak beera erdi arrastan Limpas errira, ta an genduzkan italianoak, etxe barru gela batean zai, eta ura zan arrera ona egin zigutena.

Eguna argitu zualarik, baiñatzen ere laga ziguten. An, Colindres inguru artan, ura erdi gazi erdi geza zegoan. *La Ría de Treto* edo olako bat dago an.

Andik Laredora oiñez ekarri ginduzten. Bidean gentozela, kantatzen asi ziran guretako batzuk, eta aiek madarikazioak esan zizkiguten an baztarretik reketek batzuek. Kantatzeari utzi orduan gureak, eta aurrera. Ondo joan giñan Laredora.

An ordu batzuk euki ginduzten, eta illuntzean kamioitan artu ta Castro Urdialesa eramán, *Barkin* edo olako izen modua zuan kolejo aundi batera. Berria ematen zuan gainera.

Limpas edo Colindres oietan utzi erazi zizkiguten gelditzen zitzaizkigun kokoxipak, eta Castron sartu morrollopean.

Gosea eta zorria nagusi, guztiz ongi egon giñan italianoen mendean. Etxekoak ere joan zitzaizkigun ikustaldia egitera: nere aita zana, San Estebango Anjela, Txertutako Joakina, Bulanoko Kristina, Itxasoko Antonio...

Baiña gero italianoak aldegin da soldadu frankistak etorri zitzaizkigun, eta ikusi genituan ez ikustekoak. Anken puntan jarri arazi ginduzten. Gau batez iritxi ziran eta urrengo goizean belarri ondoan sartu zioten bala gure gudarietako bati. Begiak erne jende arekin.

Kateperakoak, akabatzekoak eta aurrerako utzi bear ginduztenok berezi samartu ginduzten, bai, ta an makurtu gintzaizkion Francoren legedi berriari, gure eguneroko ogiari bezela.

Ogia esan det eta barkatu. Ez baigenduan ogirik ikusi ere egiten. Ol pusketaren antzeko alako gauza gogor bat arri potroilluarekin apurtu bear, jan nai bagenduan. Garagar-ura goizean, eta lentejak eta arria nastuan gero. Gosea oso jabetu zitzaigun, eta jendea asi zan auldadearekin lurrera erortzen, *zapla!*, goseak txorabiatuta.

Soy valiente y leal legionario eta *Cara al sol* ikasten jarri ginduzten, eta zintzo etzebillenari damutuko zitzaion. Atzetik etorri ta artuko zuan pixka baterako otza kenduko zion matraillekoa.

Arratsalde batez sartu ginduzten ango tren txiki artan, eta Bilbaon beste tren aundira aldatu. Urrengo egunean Valladolid-en ikusi genituan geren buruak. Ogei ta lau orduan, Burgos edo Balentziko perira eraman oi diran mandoak bezela, Aranda de Duero-ra iritxi giñan, bagoietako ateak kanpoko aldetik itxi eta idiki gabe. Kakalarria etortzen zitzaionak bertan egin bear.

Jende aren artean etzegoan kupidarik. Izan ere, gerran baigeunden!

Arandako geltokira noizbait ere iritxi eta ateak iriki zituztenean, jendea saltatzen asi zan, baiña alperrik. Goardizibil eta Falanjekoak, *drik-drak*, izkillua aurrean jarrita;

– *¡Todo el mundo arriba!*

Etzan bi aldiz esan bearrik izan. Al zan bizkorrena trenera atzera.

Noizbait eman zuten trenetik jeixteko agindua. Gure zaintzailleak artu erdian, lauко errenketan jarri eta bide pixka batean ibilita, an zeuden estalpe aundi batzuetara eraman ginduzten. Inpernuko ate

berberetan sartu giñala irudi zuan. Galtza-botoiak josteko orratzetaraiñokoak ez besteak kendu zizkiguten sartzerako.

Lenengo adierazpen zorrotza, euskerarik itzik ere ez egiteko gero! Itzegiten arrapatu zituztenen batzuk ederki jipoatu zituztela jakin genduan.

Tarte ortako egunak edo fetxak ez nituan nik gogoan eramaten. Gaua ta eguna izaten genduan gure denbora markatzen zutenak. Ez genekian jaia edo astea noiz izaten zan jakiten. Onekin esan nai nukena da ez dakitela leku artan zenbat denbora egin genduan.

Garai aietan burnibide berria irikitzen ari ziran or Burgostik Madrida, eta Aranda de Dueron trenaren geltoki berria egiten ari ziran. Ortarako altxa zituzten legorpe edo pabelloiak ziran gu sartu ginduzten etxeak.

Egia esan, ez giñan ain gaizki ere egon; eta antxe, zorriketan egiñez, otz aundirik ere ez eta bapo. Atzenerako ugaritu zan zorria. Autsa bezela ikusten zan lurrean *barra-barra*.

Agintaria karabinero igar, haar, alu bat izan genduan. Baiña atzenerako oso gizon portatzen zan. Igarri zion ez giñala gu esaten zuten bezelako txarrak, eta lagun egin zitzaigun. Goizean korneta jotzean jeiki, ta ondoan gendukan. Errekastoan arpegia garbitu eta presto lista pasatzeko; eta, txukun samar ikusten bagindun, abesti bat kantatu Franco adoratzuz. *Cara al sol* eta *Soy valiente y leal legionario* Castron erakutsi zizkiguten; da, aiek abestu ezker, listo kafesnea bastante ona artzeko. Baiña kontu izan agindua betetzen etzuanari zer gertatu zitzaiokean.

Jan-edanekin etzegoan keiztekorik. Ogi zuria ta ardoarekin egiten genduan arrantxoa, naiz urri xamar izan, goxoa beintzat. Aranda ortan bapo

egon giñan, *atzen paseora* eramán egin ez ginduzte-nok, gose aundirik gabe irauteko aiña.

Goizero edo egunero deitzen zuten deklaratzera, beren gogoz joan nai zutenentzat. Baziran *pekatuak aitortzera* euren gogoz aurkezten ziranak. Etzan izango andik etxera joateko, baiña bakoitzak bere usteak.

Ez gu, ordea. Ezta ezergatik ere! Ziotenez, jende asko ari zan iltzen. Negargarrikeriak ari ziran pasatzen. Ori pentsatuz, pozik bertan. Ez baitzan atsegin xixpa artu ta frentera joatea,

Gure *palazio* artan ere gauzak aldatu ziran. Amaitu egin ziran norbere gogoz edo *voluntario* deklaratzera joatekoak, eta egunero zerrendatik edo listatik deitzen asi ziran. Guretzat ere iritxi zan alako batean, da joan egin bear izan genduan. Len-dik izan genituan *bisitatzen* erriko *sai zuri* batzuk, kupidaz noski, baiña guk antxe jarraitu genduan.

Beste erritar bat ere bagenduan: Xegundo Amia-no. Gu baiño argiagoa zan ura, eta arek zuzentzen gindun. Ta esan zigun gudara gogoz joan giñala esateko; *voluntario*, alegia.

Ala, sartu giñan gela aundi batera eta ura izar-pilla barru artan! Xegundo bera, Joxe Erdoizta, Domingo nere lagun berezi eziñekoa eta ni giñan batera, danak andoaindarrak.

Agindu bezela, jarri giñan danok errenkan, eta ekin zioten neri galderak egiten.

– *¿Fuiste a la guerra voluntario?*

Eta nik baietz:

– *Sí, señor.*

Erdera ori ulertu egiten nuan zertxobait. Baiña arek itzegiten jarraitu zuan, eta antxe asi zan une artan nere kalbarioa. Ekin zion zergatik, nola edo nora galdetzen; eta nik erderaz mintzatzen jakin ez.

Ikaratu ere bai noski, eta naastu. Nik, naita ere ezin erantzun, eta onela esan zidan:

– *¡Mira este tío! ¡Éste no entiende cuando no quiere!*

Eman zizkidan ezker-eskubi bi matrailleko oso beroak, baita ere beste ukabilkada bat sabel ondolan eder-ederra, eta zerbait onelatsu esan zidan:

– *Tú eres demasiado bueno para ir a los trabajadores. Coge la caña —fusilla alegia— y a matar a tus camaradas.*

Erderaz ezin egin nualako berotu nindun. Guk ez ditugu, bada, orrela tratatzen onera etortzen diran maketoak, euskeraz egiten ez dutenean.

Orrela alde egin nuan jende madarikatu aren artetik.

Soldadu

AZAROAREN lenengo eguna zan, 1937-an, eta Burgosko ez dakit Komandantzira edo orrelako leku batera ekarri ginduzten. Orduan egin ninduten *soldado de España*, baiña ez *soldado español*. Ez egingo ere.

Pekatuak barkatuta nengoanez, absoluzioa eman da Logroñora ekarri ninduten, nere lagun Domingo ta Xegundorekin; eta antxe beste bost bat illabetean, negurik gogorrena igaro zan arte; eta orduan Teruelko burrukak ere, aundienak beintzat, paseak ziran.

Logroñon ere ondo egon giñan. Naikoa ardo ta ogi zuria zegoan. Baiña egunero instruzioa egin eta naiko zaldi edo mando-aragia zakurrak bezela janez.

Sargento Navajas izan genduan gure agintaria, an egon giñan denbora osoan. Munduan dan txulo itxurarik aundienetakoa zuan; baiña ez genduan bein ere bear ez dan gauzarik egin, eta alkar oso ondo eraman genduan.

Jende txarrarekin oitua zegoan nunbait ere, eta naiko ondo artzen ginduan. Baiña esan bear da ere, bearrak erakusten zigulako-edo, geurok apal presatzen giñalako ere izan zitekeala ala errespetatzea.

Gero, andik denboralditxo batera, extremeño ta andaluz gazte jendea sartu zan *hotel* artan, atzenngo 4leko kintakoak. Ura ixtillua sortu zan kuartel artan! Batek “*mi macuto*”, besteak “*mi sacuto*”, lapurreta ta lotsagabekeria. Eskandaloa ordu batetik bestera.

Baiña laster menderatu samartu zituan Navajas jaunak:

– ¡*Mecagüen!*” -xorrotx askoa-. ¡*A callar todo el mundo! ¿Qué pasa aquí? ¡Llevo meses con estos abuelos y no ha pasado nada! ¡Aquí no se ha movido ni una mosca! ¡Sois una peste, cabrones!*

Sargento Navajas-ek eramaten gindun goiko olibo artera, eta an gorde erazi, ezkutatu edo *desagertu*, gaurko euskera *mestizoan* esaten dutenez. An egoten giñan eguzkia artzen, eguerdiko *arrantxo* garai arte.

Jaietan meza nagusi ederra *a lo militar*, bertako musika bandarekin. Jotzen zituan *vals* ederrak, eta jendea ederki meneatzen zan musika soiñura.

Nik banituan antxe, Logroñon, osaba-izebak, eta tarteka araxe joaten giñan nere lagun Domingo ta biok. Oso ondo portatzen ziran gurekin. Logroñora iritxi giñanarekin batera, an azaldu zitzaidan nere lengusu Antonio, karmeldarra, kuarteleko atean, bisitatzera etorrita. Ortan gu baiño aditsuagoak izan dira gure osaba-lengusuak

Atzenerako, gu gudariok ez gaiñontzekoak eramane zituzten frentera; eta gu, sarjento arekin, instruzioa eta guardi batzuk egiñez, martxo alderarte Logroñon jarraitu genduan: *Bailén 24*.

Ondo geunden Logroñon, Teruel aldean otzak eta balaz jendea iltzen ari zan bitartean.

Larunbatetik astelenerako permisoa ematen ere asi ziran gerora. Zozketaz egiten zuten permiso ori, aldiko lagun batzuk bialduz. Neretzat etzan iritxi

alako pozaldirik, baiña Domingo zana eta Xegundo zana izan ziran etxean.

Ala geundela, azkenik —martxoaren 5-a edo ola zala uste det— atera ginduzten andik, ain pamatua egin zan Teruel artara joateko.

Baiña Domingo nere lagun jatorra alde batera eta ni bestera. Ainbat denboran alkarrekin ibili ta gero, an izan zan gure bereizketa. Gerra artan sei edo zazpi illabetea lo egin genduan alkarrekin, eta an amaitu zan gure alkarte.

Frentera joan baiña len izan genduan andoañ-darrekin itz batzuk egiteko aukera ere: Joxe Asu, Inaxio Bordaberri, Joxe Etxabe, Joxeakin Etxarri eta abar. Bazirudian beste mundutik-edo gureganatu zirala. Beren izkeran nabari zan esne txarrarekin etorriak zirala Asturias alde artatik. Or zalaparta aundiak izan baizituzten. Ori ikusi nuanean, nere lekura aldegitia obe nuala pentsatu nuan. Or konpon, Mari Anton!

Martxoaren aurrenetan atera giñan Logroñotik. Oso joanera txarra egin genduan. Lenengo Huesca errira, eta berriro Zaragozara, ta an zerbait jaten jardun genduan.

Orduantxe lenengo aldiz ikusi nituan moroak. Naiko kezka eduki nuan, an egon nintzan artean. Aiek danak neri begiratzen zidatela iruditzen zitzaidan.

Berriro ere trenean sartu giñan, eta urrengo goizaldera Caudé errian, Terueldik gertu, irten giñan trenetik. Gero kamioietan sartu eta, Albarracín eta Terriente-tik barrena Moscardón ingurura eraman giñuzten. Au erri txiki bat zan.

Nerekin batera joan ziran Joanizio Lasa Larra-mendi eta Joan Barkaiztegi, Urnietako *Carnicerotarra*. Onek ala esaten zuan:

– Medallak emango zizkigutek emen! Plomozko medallak!

Nik ez nion ulertu lenengotik, Baiña medallak esan nai arek: balak alegia.

Oso leku ona egokitu zitzaigun, erritik gora mendi gain batean goardia egiñez, arerioa nun zegoan arrastorik gabe. Lautik bost illabetera egin genituan an.

Donostin osatutako batalloi bat zan ori; 139-garrena uste det zala. Euskaldun asko zeuden an. Gero nere ezkon-anai izango zan Jesus Otaegi zana, goiaztarra, antxe ezagutu nuan.

Domingo zanari

NI Albarracín aldean dagoan Moscardón errira bezela, nere lagun Domingo ura Puebla de Valverde, Sarrión edo alde aietara eraman zuten.

Andik iru-lau illabetera, arreba Adelak gaztigatu zidan Domingoren il berria.

Zer korapilloa egin zidan notizi tamalgarri orrek nere eztarri ontan! Malkoak eragin zizkidan.

Orain urte batzuk, berriz, oraindik ere aren oroitzapenak bizi-bizi jarraitzen du nere gogoan eta bertso auek moldatu nituan Domingoren omenez:

Lagun nun baten oroitzapena
gaitzat artu det oraingo,
mutil jator bat zala zalantzik
ez det egin ta egingo.
Ain ona eta prestua zala
askok ez dute jakingo,
merezi aiña ez noski, baiña
maite induten, Domingo.

Zer maillatako laguna nuan
orain esatera nua,
biok ederki konpontzen giñan,
ain zan mutilla sanua.
Etzan izango iñoren kaltez
ateratzen zun planua,
merezi aiña ez nula maite
orixe daukat damua.

Sabin eta *Jel* bereak zitun
biotzan erdi-erdian,
amaika ordu pasa zituan
Euskadin alde goardian.
Alkarren urre izaten giñan
goizean da eguerdian,
galdu artean ez da pentsatzen
lagun jatorrak nor dian.

Jaungoikoa ta Euskadi aske
ire betiko ametsa,
obe dek ik gaur ez jakitea
gu euskaldunon akatsa.
Jel-tar izanok gorroto baten
bi zati eginda gabiltza,
au da Jainkoak edo Satanek
bialdu digun ekaitza.

Urte ta erdi egin genitun
beti alkar-inguruan,
gaueko loa ekartzen gendun
manta zar baten beruan.
Jaungoikoa ta Euskadi aske
beti berekin buruan,
orazioak balio badu
an egongo da zeruan.

Moscardón

BOST illabete egin nituan Moscardón erriko mendigain artan. Bi urte etxetik aldegiñik eta noiz jirako giñan arrastorik ere ez.

An geundela, gertaera bat izan nuan, une batez naikoa ikaratu ninduana. Eguerdi batean, goardian nengoala, jan aurrean, *himno nacional*-a kantatzean oi zan bezela, “¡Arriba España! ¡Viva España! ¡España grande!” oi u egiten zan; eta aldi bakoitzean nik pusillarekin arkaitzan jotzen nuan.

Baiña kolpe oietako batean, *krask!*, nere xixpa autsi etzitzaidan, ba? Ura zan estuasuna! Zer egin? Edo begien bistatik aldegin edo kaboari esan bearrean nengoan.

Deitu nion Antonio Ruiz izeneko kabo xaar bati, burgalesa bera; eta, ikusi zuanean pusillaren ipurdia autsita zegoala, bota zituan emen paperean jartzerik ez dagoan gorri oietako batzuk, eta:

– ¿*Qué has hecho, Agustín?*

Egon zan apur batean eta an joan zan, larri asko bera ere, sarjentoarengana; eta andik une batera or dator beste pusil batekin, esanez:

– ¡*Ten, chico! ¡Mucho cuidado!*

Nere barrunbeak lasaitasun aundi bat artu zuan.

Leku artan geundela, egundoko enpatxoa arrapatu nuan. Goiz batean, nere lur zulotik irten naiz txixa botatzera eta erori naiz, zekorra botatzen duten bezela, lurrera. Ez dakit zenbat denboran egongo nintzan lurrean. Gaiñontzeko jende dana kafesnea artzera joanak baiziran. Egunetan egon nintzan ala, eta erabat aulduta nengoan.

Andik artu eta Orihuela del Tremedal aldera eramain ginduzten. An mendi bat edo bi artzen izan nuan partea, eta bertan iltzeko arrisku batean ibili nintzan.

Egun aietan, izan ere, artu genduan aurrera joan bear genduaneko agindua. Gogoan dauzkat Balastraingo Ilariok, etxean izan da emen errian neretzat eman zizkioten jantzi ta txokolateak, neri entregatu eta bidaldi artan eraman ezin da antxe nola utzi nituan.

Iritxi zan atakatzeko unea eta an, garia izandako zelai batean, bala bazetorren txingorra bezela. Gaixo-aldi batekin egonda, oso auldua nengoan; eta, aurrerako agindua eman zutenean, nik ezin eraman izan nuan nere motxilla, eta bertan utzi nituan esan ditudan gauza aiek.

Mendi malkar artan leku txarretik egokitu ere nintzan, eta atzena eta doi-doi iritxi nintzan luebakira edo trintxerara. Sarjento Gaspar edo alako anka-makil bat an zegoan bildurak aidean, pistola eskuan zualarik. Desafioka asi zitzaidan, atzena iritxi nintzalako, eta ikaratuxe ere egin ninduan:

– *¡Tú sigues siendo rojo! ¡Te voy a pegar cinco tiros!*

Aurrera jarraitu genduan; baiña an gertu samar gelditu, arerioa aurreko aldean genduala.

Egunak generamazkian egoera artan; eta egun batean, ez dakit zer zala-ta, egundoko tiroketa sortu zan. Atake artan izan genituan zaurituak eta ildakoak ere. An il zan Oñatiko Korkostegi bat, nere laguna.

Oso gaizki giñan leku artan. Beroak ere aundiak egiten zituan. Urik ere ez eta, ezin bestean, belar izpi igarra aoan ibiliz iraun nolabait.

Orduan ere tiroteo bat sortu eta ez pentsa giro izan zanik. Neronek egindako arri pillla edo orma lege bat neukan gordeleku; eta, tiro otsa amaitu zanean, ezereen zantzorik ez eta alditxo batera albo-ko beste sailla zegoan aldera abitu.

Baiña sarjento Gasparrekin egin nuan topo. Zerbait galdetu edo itzegin zidan, eta gure leku artan etzegoala iñor esan nion. Joateko nere lekura eta an egoteko.

Ai, ura lana! Abitu nintzan atzera nere lekura poliki-poliki, arerioa noiz aurrekaldean azalduko zan. Ikararekin ez nuala lurrik ikuitzen iruditzen zitzaidan.

Banijoan, ba, nere lekura, pusilla muturretik tarrasta artuta; eta an azaldu zan gizaki bat. Ez nekian aldekoa ala aurkakoa zan, eta ura zalantza ta bildurra! Nik ez banion jaurtitzen, berak ilko ninduan; eta zerbait azkar erabaki bearrean arkitzen nintzan.

Pusilla zuzendu nuan nere ustez ondo, eta tira nion. Alako mugira bat egin zuan, baiña gizona sano gelditu zan; ta une artan an azaldu zan lendik ezagutzen nuan falanje mutil gazte bat. Nik zer egin nuan etziran konturatu. Bestela, bertan garbituko ninduten.

Zerbait itzegin genduan ango gertaeratzaz, eta nere puestora joateko esan zidan. Ni pozik, abentura ura ala amaitu zanean.

Andik denbora luzea baiña len azaldu zan sarjento Gaspar, igesi joandako jende ura ardiak bezela aurrean zituala.

Eguna pasa zan nola edo ala. Andik bigarren gaua-edo, ziur ez dakidan arren, etxetik aldegin nuan bigarren urteurrena zala uste det: 1938-ko agoztuak 14, Ama Birjiña bezpera.

Ez dakit zergatik, baiña gauerako bildurra sortu zan berriz ere. Illuntzean an etorri zitzaidan lengo egunean pistola erakutsi zidan sarjento alu ura: ni gerran oitua nengoala, bai, ta burni-ariz edo alanbradaren aurreko aldean *escucha* egin bear nuala.

Illuntzean igaro nituan alanbre aiek arrastadan eta jarri nintzan beste aldean, belarriak erne. An nengoan adi-adi. Etzirudian ezer aundirik gerta bear zuanik.

Baiña alako batean eta kolpean, norbaitek egin zuan tiro otsera, ura zan *tikirri-takarra* eta *dinbirri-danbarra* sortu zana! Eta ai ene! Ura estuasuna! Bazirudian ludi osoa lertzen ari zala.

Nik ez neukan bide luzea nere arri zulo artara; baiña nola iritxi araiño? Gaua oso illundu zuan, eta nik alanbre arte artan igaro bearra neukan, nere lekura sartuko banintzan. Ala ere, onik erten nintzan nere egiñalean. Arri pillaren atzean makurtu, bai, ta *¡quieto!* Or konpon, Mari Anton! Ango su-argia eta kea!

Aurreko arri artean balak ateratzen zituzten su-txispa ederrak. Alako batean, egoera artan nengoala, *zapa!*, nere sorbaldan zerbait gauza zorrotza nabaitu nuan; eta bizkarreko larrua zulatu zidan. Nere lagunak jaurtitako lerkai zatiren bat izan zan ustea edukitzen det. Piñu arbola batzuk zeuden an, eta aietako bat jo ta araxe erori. Zana zala, mesede ederra egin zidan neri.

Surik etzan bukatzen. An nengoan arri zulotik irteteko bildurrez. Txingorra bezela zetorren bala. Nere atzean arri txintzarretan ateratzen zituzten txispetan igartzen nion zer giro egiten zuan.

Odola ere nabaitzen nuan, naiz ta zauri aundia ez izan. Bide laburra neukan babeslekura; atzera-xeagoko munto zuloan zegoan *puesto de socorro*-ra. Saltaka batean antxe sartu nintzan, da ez nintzan geiago bala arriskuan ibili.

Dalako *puesto de socorro* ura ederki jendez betea zegoan, ospa egindakoak eta abar, ni joan nintzanerako.

Miatu ninduten eta zauriaren sendaketa-lege bat egin bai. Ez nuan ezer askorik ere. Mutil gazte bat eman zidaten laguntarako, eta biok oiñez joan giñan aldeena zegoan senda-lekuraiño, bide luzean bala-zistua aldetik entzuten genduala.

Bidean geldi erazi ginduzten, eta an ikusi nuan falanje gazte ura; alkar topo egin nuan ura. Alfereza zan. Arek etzion an pasatzen uzten edozeiñi.

Noizbait iritxi giñan, ba, senda-lekura. Karburo argi ederrak zeuzkaten an, eta antxe ikusi nuan zauritu bat, jo ta txiki egiña, bere soiña ederki zatitua. Baiña artean bizirik zegoan, arritzekoa bazan ere.

An indizio bat sartu zidaten. Azpi alde artan, ur otsa entzuten nuan, eta ni egarriak amorratzen. Ikusi ninduten errekaldera abitzen, eta laster eldu zidaten: ez nezakela ur askorik edan, indizioagatik noski. Kantinplora bat eman zidaten, da ura zoramena!

Ni eta beste gazte bat jarri ginduzten mando batean, bizkarrean bi eserleku alde banatan zituala; eta abitu giñan. Gau giro ederra eta illargi argia zalarik ere, luze jo zuan gau arek. Ama Birjin agoztuko lenengo orduak izan bear zuten.

Lo ere artzen nuan aldizka; baiña nik zauria bizkarrean nualarik, sillaren atzekaldea ikuitzen nuan, min artzen nuan ta esnatu.

Noizbait ere iritxi giñan. Erria edo ez dakit zer izango zan ura. An berriz ere orratza sartu zidatela uste det.

Auto batean sartu ninduten zaurituekin batera, eta ango "ai ene" eta oiua! Etorrera bildurgarria egin nuan. Zaurituen antsiak eta marruakgatik diot.

Noizbait iritxi giñan Teruela, ta an beste indizio bat eman zidaten sabel barrenean. Baita kafesne on

ederra ere, aspaldiko partez. Gaiñera, egitazko oian etzan nintzan, illabete askoren buruan.

Baiña ez nuan lo-asekadarik egiterik izan. Bere-alako batean jeiki arazi ginduzten. Joateko gauza giñanak trenean sartu eta Zaragozara, berreun bat kilometroan. Esaten erreza da.

Eritetxe batera sartu giñan. Sendagillea bizkarrereko txulo edo zauri ori ikustatzen asi zitzaidan eta, *zapla!*, arpegiz oiera erori nintzan, txorabioa eginda. Metralla-zatiren bat omen neukan.

Ustez, beintzat, ez nintzan ikaratu. Baiña egun da gau aietan eraman genduan tratua etzan izan nolanaikoa. Bi egun-edo eguzki-galdan, gal-soroan, zuloan, kixkaltzen, egarriak, gauaz ia lo on bat egin gabe, urduri, arerioa oso gertuan gendukala. Ibillerak aiek etzidan nunbait on aundirik egingo.

Ori bai: otordu ederra eman ziguten, maian jarrita, patxada osoan, oillasko ta abar, etxean baiño obetoago.

Jan-edana amaitu ta lasterrera, trenean sartu ginduzten berriro eta gauerako Gasteiza; eta orduantxe bai lo lasai egin nuala!

Ori guzia, len esan dedan Ama Birjin egun artan. Lareun bat kilometro ogei ta lau orduren barrunbean.

Gazteizen beste egun batzuk egin nituan, eta ea, motell! Berriz ere trenean sartu eta Galiziara, ia ogei ta lau ordu. Urrenge arratsaldean iritxi nintzan Mondariz-a, Vigo-tik ogei bat kilometrora.

An ere, jan da edan ederki egiñez, beste bi edo iru egun egin nituan, eta sendagilleak esan zidan ondo nengoala. Neronek ere banekian ori: aspaldietako illabeteetan baiño obeto nengoala.

Eta amabost egunerako etxera joan neikeala. A nolako pozaren aundia! Bi urte paseak etxetik aldegin nuala, baiña berriz ere araxe itzultzeko gogoarekin nengoan.

Castron aita zana (G. B.) izan nuan ikustaldia egiten; eta anai Jose Krutz ere bai Logroñon; eta, ori besterik gabe, ez da arritzekorik bi urteren buruan egarri ura edukitzea.

Beste ogei ta lau ordu egin nituan bidean, Donosti ordurako. Arratsalde erdian Vigo-n trenean sartu; ta, Galizia eta Leon aietan barrena, eguna asi berrian Palentziara. Tren zaarrak jendez sapairaiño beteta zetorren, estu-estu. Zutik ere lo egiten genduan, alkarren aurka estututa. Ura ixtillua!

Venta de Baños-era iritxi giñanean, *exprés* edo olako batean sartu nintzan, eta an bai: pasilloan etzan eta lo etorri nintzan bide luzean. Orratx, azkenik, berriro etxean.

Etxera etorrita, zorriak kendu lenengo lana; eta erropa garbiak jantzi bigarrena.

Etorri berri artan ez dakit zer bizimodu egingo nuan. Ez nezake ziur azaldu. Nere sendikoak bisitatu eta orrela ibiliko nintzan.

Oso egun gutxi barru, bein ere aztu ez dedan madarikazio bat gertatu zitzaidan. Lenen esan bear detena da Andoaingo Izturitz-torren anai danak oso apizionatuak zirala eizerako.

Ni etxean egokitu nintzanean, goiz batean zerbait lanean asi nintzan, eta egun batean, anai Joxe Krutz lagun nuala, an joan giñan Txertueta aldeko soro malkarrera erremolatx-jorrara.

Joxe Antonioren erbi-zakurrak, ez dakit bat ala geiago ziran, an zebiltzan zaunkaz errekaldean gora, eta alakorik batean asi zan Joxe Antonio ori guri deika, segan ari zan tokitik:

– Or dezute erbia beetik gora, motellak! Or dezute!

Ni saltatu nintzan soroko azpikaldeko ormatik beera, eta *zart!*, txongatilla izurratu nuan. Nero-

nek entzun nuan otsa. Ura miña ta oiñazea! Ez dakit etxeraiño nola iritxiko nintzan; baiña akabo nere jaiak.

Jakiña, min neukan da erren egiten nuan. *Mediku Txatua* —ala esaten zitzaion— etorri zan zintzo. Ikusi zuan txongatilla ta zeozer onelatsu esan zidan:

– Bukatu dituk iretzat aldi baterako gerrak edo soldaduskak.

Ni nengoan batalloi ura Donostiko *Artillería Pesada*-n formatua zan. Baiña artilleri arek gerran jarraitzen zuan.

Matias koiñaduak, ni nola nengoan jakin zuanean, an etorri zitzaidan, eta ara zer burutapen izan zuan: berriro pusillarekin joan gabe, koartelean agintari oietako bati otoi egin eta muturra ere legundu bearko zitzaiola noski, gerorakoan artillerian gera nendin edo zerbait entxufe lortu edo.

Idea etzan txarra. Jaun arek bitartekotza egiten bazuan, muturra legunduko geniola. Bestela, berriz, len aiñaxean, eta kito. Nere oin erren arekin aldi batez etxean egongo nintzan.

Baiña derrepente Loiolako koartelera deitu zidaten, eta kaixo, motell! Urrengo egunetik, beste soldaduekin batera, instruzioak egiten jarri ninduten; eta etzan nitzaz iñor jabetu. Aldizka etxera etorriz, erdi errenka goardi batzuk egin ere bai. Orrelaxe bi edo iru illabete egin nituan. An bukatu zan nere entxufea.

Teruelko lurretan

URRENGO saltoa Burgosa egin genduan. Euskaldun aleka batzuk eramán giñuzten emendik, eta beste erdaldun pilla batekin an batu giñan. Gero, trenkada batean, Salas de los Infantes-era. Erri ori Burgostik irurogei bat kilometrora egon bear du.

An denboraldi bat pasa genduan, instruzioak egiñez eta ikasiz jo ta ke. Ori eguneroko ogia bezela zan guretzat, 41-eko kinto gazteak baiziran beste geienetsuenak, emezortzina urte zeuzkaten andaluz eta extremeñoak, naiko penagarriak, gizarajoak. Aiei zerbait erakutsi bearra zegoan.

Ederki nazkatu giñan Sala de los Infantes-ko eguneroko orrekin, eta gaitz erdi ala ere. Gauean etxe legorrean, tiroen bildur gabe, trintxeretan otzak eta bildurrak egon bearrean. Ori alderdi ona zan orduan.

Batallón de ametralladoras egin ginduzten gero-ra. Ekarri zizkiguten, bada, jostailu eder aiek. *Fiat* italianoak ziran, oso azkarrak eta gerok eroso ibiltzeko modukoak; eta ekin genion eguneroko saiaketari. Ondoren, karro edo gurdiak eta mandoak ere bai, eta kaixo, motell! Gu jarri giñan, gu, mutillak!

Ni an ibiltzen nintzan errenka. Txongatilla ondo sendatu gabe neukan oraindik.

Baiña zerbait formaziotan-da txukundu giñalarik, or artu gaituzte frentera bidean. Negu aldea zan.

Berriro ere Teruel leku santu artara zuzendu ginduzten. Probintzi ori oso aundia da, baiña luzean beintzat ederki neurtu genduala uste det: Torrijos del Campo, Caminreal. Monreal del Campo, Pozuel del Campo, Ojos Negros, Villafranca del Campo, Torremocha, Santa Eulalia, Villarquemado, Cella, Caudé, La Puebla de Valverde, Sarrión, Mora de Rubielos, Rubielos de Mora, Barracas, Caudiel... Oiek eta geiago. Atzen erri ori Balentzikoa dala uste det.

Ez nezake alde-aldera adierazi nundik nora aldatu giñan. Zaragozatik Balentzira dijoan kamio jeneralean edo inguruetan ibili giñan aruntz-onuntz. Ez baigiñan trintxeretara bialtzeko jende-modua.

Erriz erri, lasta-leku edo *pajares* esaten dieten etxeordekoetan lo egiñez, goseak eta otzak zorriketan egiñez, joan zitzaizkigun illabeteak.

Gauza bat daukat gogoan: 1939-ko Gabonetan, Caudiel errian, Balentzi eta Teruelko mugan, geundela, an pasa baigenduan irugarren gerrako Gabon aldia; eta Zaragozara aginaldo billa bialdu niñutela.

Ala bearrez, dirurik ez neukan nere mende, eta nere lagun Rekondok —Aiako San Pedro auzokoa bera— eman zizkidan amabost laurlekorekin egin nuan jira.

Konpañi bakoitzetik bana izendatu ginduzten, eta bat ni egokitu nintzan zoritxarrez. Zoritxarrez diot, lagunak, dozen erdi bat mutil, alamoduzkoak izan nitualako. Txanponak amaitu zitzaizkidanean, laguntza txiki bat eskatu nien: lotarako oia pagatzeko diru pixka bat emango al zidaten galdetu nien. Baiña alperrik izan zan. Iñor etzan nere jabe egin. Lotsa ta pena batera nabaitu nituan nere biotz barruan.

Geltokira joan da antxe igaro nuan gaua, ez estalki ta ez beste. *Leche condensada* pote bat eta ogiarekin egin nituan iru edo lau egun. Jokaera arek aiña-

ko penarik ez dit eman nere denboran ezer askok. Pozez beterik iritxi nintzan batalloiko lagunetara.

Caudiel ura bi suren erdian-edo zegoan. Moro asko zegoan, eta soldaduei gauza asko saltzen zieten, onak gutxi. Edozein estalpetan jartzen zituzten den-dak ere, eta an aritzen ziran beren salgaiak eskeinka:

– *Paisa, anís, galletas, tabaco, papel escribir novia...*

Baiña, bada ez bada ere, aien artean ez mutu-rrik sartu aurreragi. Jende arriskutsua zala esaten zutenez, armarik gabe iñora ez joateko esaten ziguten gure agintariak.

Caudiel artan bapo egon giñan, ez dakit zenbat denboran.

Gogoan daukat, baita ere, andik aldegin genduan arratsaldea. Illuntzerako Barracas errira iritxi giñan; eta, alderatu giñanean, nik aurrera jo nuan, besteak baiño len irixtearren. Egariak nengoan oso, eta erri zar artan saltzen zan Asturiasko sagardo gozoa, eta uraxe arrapatzearren etorri nintzan aurrera.

Gau artan Barracas-en etzan giñan; da gauean an sartzen zaizkigu moro zarrak. Ura ixtillua sortu zan. Aien *mirriki-marraka!* Ikaratu ere egin giñan. Alkar iltzen ari zirala ematen zuan. Etzegoan an lo egiterik. Kezka gaiñera, *sasta!* egiten ere zaleak zirala esaten baizuten.

Gerrak jarraitzen zuan artean ere, ta Kataluñara eramane bear giñuzten otsa atera zan. Baiña ez giñan joan, Jaunari esker.

An ibili giñan Barracas, Pina, Mora de Rubielos, Alcalá de la Selva eta abar, geren mando zar aiekin jira ta bira, erritik errira, trintxerara gabe, urrengo martxo aldera arte. Zenbat ibillera egin ote genduan?

Eta orduan, or, Teruelko zitudadetikan gertu xamar, amabost bat kilometrotara-edo, Villel ondoan, mendixka batera igo ginduzten trintxeretara.

Orain bai; orain amaitu bear zuan gerra. Lenago jarri izan baginduzten gu arerioarekin aurrez aurre, lenago bukatuko zan gerra madarikatu ura.

Dana dala, aste batzuk igaro ziran Villel-en, egoera nazkagarri batean, zikiña nagusi. Ez urik eta arratoiz beteak zeuden gure lur zulo aiek. Gauean etzaten giñanean, arpegiaren gaiñetik pasatzen zitzaizkigun arratoiak.

An illabete bat-edo egin genduan garaian, 1939-ko martxoaren bukaera izango zala uste det, gerra amaitu zala esan zigutenean, gure poza etzan izan guzizkoa baiña. Galtzaille izan giñalako esaten det au. Ala ere, gustora eman nion nere onespena, ta etxera laster etortzeko itxaropenetan jarri nintzan.

Coronel Casado edo olakoren bat gure aldera pasa omen zala gorrietatik. Baiña egun asko joan ziran artean, atzenekoak armak entregatu zituztenerako.

Etxera laster etortzeko itxaropenetan jarri giñan, baiña etzan ala gertatu. Beste iru illabete ta geiago joan ziran egun ura irixterako. Egoera artan jarri giñalarik, zer denboraren luzea!

Berriro jetxi giñan mendi artatik arribidera, eta or asten gera erriz erri ibiltzen, Cuenca aldera edo ez dakit nora ere. Libros izeneko erri bateraiño joan giñan. An jira eta berriro ere Teruel edo Cella aldera etorri giñan. Berriz ere erriz erri asi giñan, gure mando aiek artuta, lasto legorpe aietan lo egiñez, ijitoen ibilleran eta bizieran.

Egun bi izugarri pasa erazi zizkidan sarjento Espinosa-k. Izan ere, *espino* baiño ere txarragoa zan ura.

Egun batean, komandanteak bero estalkiak ekartzera urruti samar bialdu gindun kamioiarekin, eta sarjentoaren pulamentu txatxuagatik utsik etorri giñan. Egundoko errita egin da an bialdu gindun urrengo egunean, eta ekarri genituan kapoteak edo

bero estalkiak, baiña neronena galdu egin nuan. Egin genituan ibillera madarikatu aiengatik, egundoko *bronca* eman zidan, kapotea galdu nualako, eta etzidan eman besterik. Egundoko otzak pasa nituan bi egun aietan kamioi artan, eta begira irabazi nuan saria.

Esan bezela, Teruel ibarreko errietan ibili giñan aruntz-onuntza: Caudé, Cella, Villarquemado, Santa Eulalia, Torremocha, Villafranca del Campo, Monreal del Campo, Torrijos del Campo, Caminreal, Pozuel del Campo...

Azken erri ontan ere izan genduan alako gertaera penagarri bat. Jai-goiz batez, karnabal eguna zan ala bearrez, eta Juan Basagoitia *Mallabi* ta biok an genbiltzan, goizean jeikita. Lagun orrek esan zidan:

– I, Zinkunegi: mezetara joango gaituk ala?

– Bai, gizona -erantzun nion.

An joan giñan elizara. Gu etorri giñanean, orduantxe batalloia formatu eta lista pasatzen ari ziran. Presentatu giñan, da:

– *¿Dónde han estado ustedes?* -galdetu ziguten.

Guk ez genduan esateko lotsarik:

– *En misa.*

Eta orduan berak:

– *Formen ahí y van a oír otra misa.*

Eta an joan giñan. Etorri giñan beste meza ori entzunda, eta agintari arek dei egin zigun:

– *Juan Basagoitia y Agustín Cincunegui que den un paso adelante.*

Eman genduan. Ukuillu edo alako batera eraman ginduan, eta pikatxoia eta pala artu eta gari-soro batera joan giñan, eta zuloa antxe egiteko agindu zigun, gerok antxe lurperatzeko:

– *¡A coger el pico y la pala y a hacer el agujero para enterraros ahí!*

Olako zerrikeri bat esan zigun. Nik pentsatzen nuan ori etzigutela egingo. Baiña ai zer irakatsi ederra agintariak mendekoari emateko! Egin ere ez piatu, okerra egin izan bagendu, meza entzutera joan dalako zigortzen duanak...

Ukuillutik arturik
atxurra ta pala,
gu sartzeko zuloa
egin bear zala.
Gizona tratatzea
erru gabe ala,
uste det ezer bada
pekatua dala.

Karnabal egun ura etzan motza izan. Arratsalde erdira arte-edo jardun giñan, da naikoa zala esan ziguten. Gero, ostatura joan da olio-aranak janez, ardoa ondotxo edan genduan, eta ni beintzat berotuxe egin nintzan, eta laguna ere baietz uste det.

Gero, arrantxoa jan ondoren, nere etzanlekua antolatzen ari nintzala, ez dakit zer gauzatsuk esango nituan. Barruan zulatzen ninduan arantza baineukan, eta biotz barruko samintasunak eragiten zidan nunbait.

Nere kabo Arturo Aragón-ek laster artu zidan nere *orazioen* kargua:

- *Agustín, ¿ya sabes lo que estás hablando?*

Eta ez dakit zer geiago. Naikoa izan zan galdera uraxe, an zer pasatzen zan jakiteko. Nere etzanlekua txuxendu nuan, eta estalkipean sartu, bai, ta antxe ito nuan nere negar samíñezko malkoa.

Ezin nintzan iñola ere oitu bizikera artara, eta asko eraman bear izaten nuan.

Apirillaren atzen aldera Balentzi aldera eraman giñuzten. Maiatzaren 3-an *desfile* edo zera ori egin

bear genduan. Cella-tik, elurra itxu-itxu ari zuala irten giñan. Gutxitan ikusi det alain lodi botatzen.

Kamioiaren gaiñean joateko a zer nolako giroa uraxe! Baiña zer nai dezu? Balentziko muga aldera jetxi bezin azkar, gure bizkarreko elurrak lurmentzen asi ziran. Gaua zalarik ere, aldaketa ederra igartzen zitzaion, lurralde batetik bestera. Segorben zear goazelarik ere, nabaitzen zan usaimenean izadiaren aldea.

Balentzi ortan antzoki batera sartu giñan lotarako. Urrengo goizean, eguna argitu zuanean, uraxe zan zuritasuna erabatekoa! Antzokia zuriz margoztua eta leioetatik sartzen zan eguzki argia. Zoragarria benetan! Kalera irten giñan da gizonaren gerri-raino altuko alpalpa zegoan saltzen, eta loreak ederrak. Zer eguraldiaren aldea Terueldik ara!

Andik erri batera aldatu giñuzten, eta antxe ibili giñan naranja jan da ardo garratza edanez; eta berriz ere Balentzira etorri giñan.

Baiña etorri bear genduan aurrean, kalera irten da egundoko mozkor txarra arrapatu genduan Eskoriatzako Felipe Eskibelek eta biok. Bildu giñan lagunetara, eta etzegoala joateko ordenarik eta etzateko esan ziguten.

Nik tipula edukitzen duten ormako apal batean neukan etzanlekua, eta ez nintzan ara igotzeko gauza ere. Gaiñera, noiznai gorakoak eman da botaka asten nintzan.

Egoera artan nengoala, etorri zan joateko agindua, eta gaiñera oiñez joan bear genduala. Trasteak bakarrik joango zirala kamioian. Uraxe palta nuan orduantxe!

Gerrian zintzilik, kantinplora ardoz betea neraman, *kilin-kolo* otsa jotzen zuala, eta ots arek ematen zidan nazka eta botalarria. Baiña iñola ere ezin nuan askatu, kaketx batean katiatua baineukan.

Beintzat, iritxi nintzan nolaerebait Balentzi artarra. Egun pare bat pasa nituan ezer irentsi ezinda, eta oso auldu nintzan. Tripa danak naastu zitzaizkidan. Baiña nolabait ere oneratu nintzan berriro.

Maiatzaren irugarren artan *desfile* santu ura egin nuan, beintzat, nola edo ala, Ferrol-ko *Caudillo* edo jauntxo ura aurrean genduala; eta urrengo egunean berriro ere Teruela etorri giñan.

Ez nuan askorik pentsatzen beste bi illabete jende aien mende bizi bear nuanik. Antxe, erriz erri, mando zar aiek lagun genituala, legorpe aietan lasto artean lo egin da zorriketan egiñez.

Jan-edanean ez genduan gastu aundirik: garagar-esnea, lenteja batzuk... Keja pranko izaten zan, jateko txarra zala eta, Urik ez dagoanean, egarria ere geiago izaten da. Zenbat zikinkeri jaten ote da gerra oietan? *Carne con pelo* jaten ere gerra garaian ikasi nuan nik.

Berriro ere Teruel alde aietara jira giñan, esan bezela, eta galanki nazkatuta. Illabeteak gerra amaitu zala, ta etxera noiz etorriko nintzan jakin ez. Baiña denborak aurrera zijoazen eta laster etxerako baimena izango genduan itxaropenetan lasaitzen nintzan zerbait.

Orrela genbiltzala, *pajar* oietako batean ere izan genduan gertaera ernegagarri bat. Gau batean, beti bezela, lotara etzan aurretik, partea irakurtzen zaio *ejército de España*-ri, eta *firmes* ixilik egon bear izaten da.

Sarjento bat artan ari zala, soldaduren batek kinkaren bat atera zuan, da:

– ¿*Quién ha sido?*

Alakoetan oitura danez, iñor etzan jabetu txaxukeri artaz. Jakiña, danok ixilik. Sarjentoak:

– ¡*Quedáis arrestados todos hasta nueva orden!*

Ederra jolasa! Bagiñan ogei ta amarren bat mutil; eta, alu bat izan zalako edo, obeto esan, bi alu ziralako, soldadua ta sarjentoa, ogei ta amar mutil zigortuak, *pajar* zar artatik atera gabe egoteko.

Ez dakit zenbat egun egon giñan, jatera eta komonera ere goardi armatuen erdian joanez. Egunean ez dakit zenbat aldiz lista pasatzen ziguten, norbaitzuk amorruek eman da itoko ote giñan-edo. Urtetako gerra egin ondoren, ura zan lengo *kalamidadeak* aztutzeko era ona.

Berak jakingo zuten zergatik egiten ziguten. Jende orrekin ez dezu pekatu egin bearrik, zigortu ta aldi baterako izorratuta geratzeko.

Azkenik, noizbait bear da iritxi zan jende eta lege penagarri aien menpetik askatu eta etxera etortzeko eguna. Ura zan zoramena izan nuana!

Aspalditik esana neukan, atzeneko aldiz listan deitzen zidatenean, "*¡presente y cumplido!*" deadar egingo nuala. Baiña ez nuan olakorik egin. Ixil-ixilik erantzun nion. Bada ez bada ere, ez nintzan arriskatu. Ez bainintzan fiatzen jende arekin, bulla egin nualako berriro ere zigortuko ninduten bildurrez.

Goizalde batean, eguna baiño len jeiki nintzan oetik trenerako, ez dakit zein erritan ere, ainbestetan genbiltzan bueltaka eta. Ez nuan iñor askorik agurtu. Baiña gogoan det sarjento asturiano rubio begi zuri bat. Ona zan eta arekintxe bai despeditu.

1939-ko San Permin bezperan noski aldegin nuan Teruelko lurretatik. Gauean Iruñan gelditzeko gogoia izan nuan, eta lo tokia ez nuan nai ordurako topatu. Gau artarako bakarrik izango nuala esan zidaten.

Goizean jeiki eta etxera etortzeko jarri nintzan. Ez baineukan dirurik ere *egunpasa* egiteko.

Lauaxeta zanari

BESTE bertso batzuk baditut orain urte batzuk jarriak gerratean il zuten *Lauaxeta* euskal olerkari aundiari. Onako auek dira:

Milla beatzireun bostgarrenean,
Gabon illaren iruan,
auzo-probintzi degun Bizkaian,
Mungiako inguruan,
zeu, Estepantxu, sortu ziñaden
leku alai ta txairuan:
Lauaxetako basetxetxoan,
sendi on baten beruan.

Urkiaga ta Estepan ziñun
abizena ta izena,
josulaguna izan gurarik
ikasketara joana.
Dana laga ta biurtu ziñan
aita ta amaxongana,
erlijioso ez izan bear
gurasoentzat zer pena!

Aurrerantzean ere etzendun
denbora alperrik galdu:
olerki goxo xamurrak egin,
jakintza-lanak ugaldtu.
Lagun inguru guziarentzat
beti gozoa azaldtu,
“Euskadi askel!” irrintzipean
Jel ikurriña zabaldtu.

Sabindar ziñan lau aldetatik,
zeu abertzale sutsua,
Ibero-n *A mí-k* itsatsi zizun
Jel-gan maitasun gartsua.
Lotsatu barik nunai azaldtu
kistar fede indartsua,
atzen orduan ere alaxe
zerutar asnas-kutsua.

Idazle aundi, biotz gozo dun,
aingeru-itzez jantzia,
liburuetan ustu zenduan
jakindurian ontzia.
Zeure ludiko lana izan zan
maitasuna eskeintzia,
zeiñen tamala ain gazterikan
bizia ala kentzia!

“Aita maitea, barka eiezu”
Jesusek gurutzetikan,
Estepanek e ori egin zuan
Kristotar zan aldetikan.
Ordu beltz artan odol-egarriz
bizia kendugatikan,
etsai ankerrak gaur ez ote du
egin zunaren penikan?

Blas Garmendia zanari

BADITUT beste bertso batzuk gure *Loiola* bata-
lloiko lagun bati jarriak: Beizamako Blas
Garmendiari, alegia:

Munduan izan zendun
gizon baten mailla,
zintzoki eramanez
artutako sailla.
Zenbat oiñatz triste, latz,
askatasun billa?
Eraman zendun bide
aldapatsu, zailla.

Kementsu eskeiñirik
Jel-eri biotza,
ondo probatu zendun
bizian garratza.
Maite zendun *Loiola*,
Gernika, Aritza,
Jaunak gogoan beza,
Blas, zure ekintza.

Mundu ontan badira
amaika iritzi,
zuk ere zeureari
beti zintzo eutsi.
Bizkaiko mendietan
oiu ta irrintzi,
naiz ta askatasunik
ez gendun iritxi.

Arerio zangarrak
naiz ta iñoiz saldu,
zure itxaropenik
etzenduan galdu;
naiz ta aldiz kemenak
atsekabez auldu,
galdua galdu baiña
egiñari eldu!

Uste gabe egiña
emendikan agur,
noiz arte geranikan
ezpaitago ziur.
Naiz eta egon arren
osasuntsua gaur,
Jaunak deitu leiguke
agitx une labur.

Blas, gogoan zaitugu
gure otoitzetan,
ta emazte Juanita
ordu mikatzetan;
senditar naigabetu,
lagunen etxetan,
Jaunak izan zaitzala
goiko egoitzetan.

Lanean

Berriro ekin bear

GOSEA eta menpetasuna zegoan nagusi Euskadi osoan. Ganbaran artoa mitxirrikak jaten, dana xula-xula egiñez ondatzeraiño, eta guri etziguten talo jaten uzten. Ziran babarrun, patata ta abar eskutik kentzen zizkiguten. Ogiatzaz, berriz, etzegoan itzegiterik ere. Pentsa egizu, garai ura eza-gutu etzenduan orrek, nolako erri-agintarien menpe zegoan gure bizi bear izatea. Pakean zoriontsu bizitzea ain errexka izanik, nola izan leike gizona ain buru gogorra izatea?

Baiña gizona sortu zanetik ez da gerrarik palta. Begira, bestela, zer dion Pedro Maria Otañoren bertso onek:

Gure lenengo guraso aita
Adan da ama Ebaren
lendabiziko semeak Kain
ta Abel izan ziraden.
Bañan kondairan ikusten danez,
biak anai sortu arren,
nola etziran iritxi izan
maite izatera alkarren,
orra gerra ta alkar iltzeak
sustraia nundik dakarren.

Ni, leen esan bezela, Españako soldaduska edo morrontza ortatik libre nengoan. Baiña gero, *Movimiento Nacional*-a etorri zanean, alde bietako batera jokatu bearrean gertatu nintzan. Baiña zalantza txikxienik ere ez nuan izan, Jaunari esker.

Negargarriro menperatuak eta oinperatuak izan giñan guda madarikatu artan, eta mendekatuak abere basatien antzera, batzuk eriotzara. Neri berriro ere arma eman zidaten, lengo nere lagunak kupida gabe iltzeko aginduarekin, "Kristoren izenean".

Amaitu zan guda ura, iñoiz asi bear etzuana, eta ala-olako pake-molde baten azpian, etxera etorri bezin azkar, berriro ere lanera biurtu giñan, eguneroko sari murriz baten trukera. Ordu askoko lanaren alde jaten zan ogi pittiña eta zikiña.

Euskal baserritarren esaera bat da, eta izaera ere alatsu: seme zarrena etxerako eta gaiñontzekoak al dan tokian atera bear bizimodua.

Nere sendian ere bazeuden ni baiño zarragoak; eta illabete batzuk baserrian lan egin da orduko *Hidroeléctrica Iberduero* edo *Iberdrola* ortan asi nintzan eguneroko ogia irabazten.

Hidroeléctrica orrèk sail aundiak dauzka Leitza-ren ibar-mendietan. Eun da berrogei ta amar metro baiño geiago izango da bere ur-saltoa. Tuboak, berriz, berreun metro baiño geiago. Amabost milla metro inguru bere urbidea edo kanala.

Amasei illabetez jarduna naiz, indar-etxe ortatik asi lanean ur-tuboan, kanalean, tuneletan eta mendi arteko erreketan, eta Ameraungo presaraiño. Bada or nun entretenitu.

Hidroeléctrica artan lan egiten zutenak ezagutu nituan ogei bat lagun. Gaur egun bakar bat dago guzi orren ardura daramana.

Gure erritarrak, ia danak, lantegi oietan lan egiten zutenak. Emen jarriko ditut geienen izenak,

ni gazte nintzan garaikoak: Anttonio Beltxa, Kontrabixto Aundiya, Pintxia iru anaiak: Joxe Mari Perez, Antonio eta Bitoriano; Andres Karrera, Etxeberria anaiak: Patxi ta Xekondino, Collantes bi anai, Erramun Beltxa, Presaburu, Joxe Altuna *Xaxierrota*.

Indar-etxetik asi ta Ameraun bitarteko urbide oien ardura zutenak, Inaxio Antxixu buru zala, Joxantonio Bulano, Joanixio Antxixar, Diurtxio Elizondo, Joxe Elizondo, Emiliano Lizarkola, Demetrio Bulano, Alejandro Ostape, beste iru eo lau bereziak, depositu edo kanal-zaiak, Miel Mai Elizondokoa, Tomas Peña *Xextero*.

Gerora beste asko ezagutu ditut leku oietan lan egin dutenak, eta geientsuenak nere auzotarrak: goiburuararak.

Esan bezela, amasei illabetea jardun nintzan Inaxio Antxixu orren agindupean, kanal inguruan lanean, eta barruan ere bai, bear izan ezkerok: kanal eta bidetxior inguruetakok lar eta zakarrak garbitu; leku txarretan orma edo paretak egin, erreka baztaretetik arria ekarrita...

Amalau-amabost kilometro bidean sortzen zan zer egiña. Baiña presa aundirik gabe jardun oi giñan lanean, aldizka kanalarik ikustaldia eginda. Baziran bi leku denbora guzian edo urtearen buruan goardak egoten ziranak: bata depositua eta bestea goiko depositua, Uiziñen.

Bi denboraldi egin nituan nik Uiziñen, an egoten zan kanalzaiak jaiak egin zitzan, ogei bat egun, eta neretzat ere egun aiek jaiak bezelatsu izaten ziran.

Egunero, Ameraundik Inttubira bitartean, amar-amabi kilometroko ibillaldia, kanalarik begiratu, oso gogotsu egiten nuan.

Ori baiño txarragoa izaten zan uda-atzenean orbel-ostoaren eroriera; eta, egoaizea arro samarra

altxatzen bazan, kanalak ur estalian ekartzen zuan orbela; eta, etorri ala ateratzen ez bazenduan, ikaragarritzko estuasuna erakutsiko zizun.

Egia esan, ni oso gustora nenbillen mendi arte aietan barrena, nere eguneroko egin bearra al zan moduan egiñez, naiz eta aldizka bustialdia artu. Baiña neretzako lain lan etzegoala eta etxean gelditu bearra izan nuan.

Gipuzkoako bi indar-etxe garrantzizkoenetan lana egiña naiz, Andoaindik Ameraun bitarteko erreka ta mendiarteetan.

Leku oietan lan egin da nere baserrian jan da lo egiñez pasa nituen amalau bat urte. Igande ta jai-illuntze aldera lagunarterako txolartetxo bat arrapatzen bazan, pozik.

Udara aldera erromeri asko izaten da; baiña belar ontzea, garoa edo *puñeta*, illuntze alderarte lana egin bear. Eguna luzea egon arren, jolaserako asti gutxi eta berandu irten, eta sistema txarra etxera garaiz etortzeko, nun eta egokiera izaten etzan neskaren bati etxera lagundu edo...

Lagunartean gertatu ezkerro, kontu izan: edaritegiren batean erori eta meriendatxoren bat dala-ta, txurrit ere ondotxo, eta kantua ta arrantza. "Ardoa barrena, berandu etxera" esan zuan norbaitek. Ate zarra irikitzen asi ta oillarrak kukurruku. Goizean logalea ta lanerako aldarte txarra.

Nere jornal-sariari zegokionez, lagun arteko gastuei jarraitzen ausarta izan naiz; eta, ordu ez-egokietan lotaratu arren, ez det uste iñoiz lanerako deiari uko egin diotenik. Beti egin izan diot gogor nere buruari, eta ontan izaten det nere arrotasuntxo.

Gogoratzen naiz Santio jaietan Billabonara pestara joan da nola goizeko ordu gazteetan etorri giñan etxera; eta jazkiak aldatu, sega artu bizkarre-

an, auzoko belardiko belar-txorrokan lo-kuluxka egin da ote-larrera, bero galantarekin.

Gaztetasunak izaten ditu
makiñatxo bat erru, ta
ausardi bidez muturra sartu
komeni ez dan lekuta.
Bear garaian ez gendulako
geren buruen arreta,
tabernaldetan egiñak gera
alperrik ainbat zurruta.

Denbora igaro ala, neri ere urte-sailla lodi-tzen zijoakidan. Tarteka-marteka gogoeta batzuk egiten asia nintzan; eta, beste edozeiñen antzeratsu, bizibide berri bat artzeko asmoetan sartu nintzan.

Beraz, ala bearrez, nere antzeratsu pentsatzen zuan neskatilla batekin topo egitea gertatu zan. Nere auzokide nualarik, maiz samar alkartzen giñan; eta, jakiña, oi danez, bizibide berriari buruz ere aitapenak egiten genituan. Nola ez? Dana arrosa-kolorekoa ikusten genduan. Uso-tortolak, itz goxo ta usaitsuak alkarri esanez, txolarte goxoak pasatzen genituan.

Ogei ta amabi urte nituala, 1946-ko ilbeltzaren 10-an, ogei ta zortzi urteko neskatilekin, Itxaso baserriko Romana Garin Aginagarekin, ezkondu nintzan, eta ez naiz ori egiña bein ere damutu.

Etziran garai ederrak: lan-sari ximurrak bizi-ro; jatekoa, jaztekoa eta etxe-bizitzak gutxi eta garesti. Noizbaiteko itxaropenez, alkar maitasunez, biotza biotz truk izan zan gure neke-saria. Ordu askoren eragiñez osatzen zan itxurazko lan-saria.

Gauza pozgarria da iñoren zor-kezka gabe ego-tea; eta, Jaunari eta lagun on batzuei esker, ez degu loa galtzeko aiñako kezkarik izan.

Lantegian izan ditut kopetako izerdiarekin truk lan-sari xixtriña irabaziz ibilitakoak; eta baita ere alkian eseri eta buruauste aundi gabe ordu-sail galantak sartutakoak. Alde galanta dago lantegi txar batetik lantegi on batera. Nik izan dedan txarrena ere, ikazkintzarekin konparatuz, ona.

Leitzaran ibai aldeko lanak

L EITZARAN ibaiaren alde bietako mendi-malkor sakon eta erreka-estak naiko ezagunak egiten zaizkigu. Leku oietan ezagutu ditugu mandazai eta mando-jabeak ere: Loiarte, Barriola, Kako, Panadero, Manuel, *Mandaxaia* ta abar.

Dozenaka egoten ziran txondarrak egosten, ke-lurruna jaurtikiaz, itxas-ontzi baten antzera. Ikusi ditut baso-gizonak ederki lasatuak, euren soineko erdi zikin da zarpailduekin, aizkora eskuan da izerdia kopetan, eguzkitik eguzkira lan egiten. Aientzat alperrik ziran erloju eta egutegiak: basoa amaitzean jai; gosetzean jan; eguzkia ezaugarri.

Aizkora-lana naiko nekosoa ez balitz, bota dituzten egurrak erreka-zulotik txondar-zulora atera ezinik nolako este-eteteak!

Egurrak pillatzean, txondar-zuloa ere egin bear; eta, leku ona tokatu ezkerre, gaitz erdi. Asko moduzko malkarrean arritsua ateratzen bada, kontuak.

Ikazkilleak ez dauka *sábado inglés* edo orrelakorik. Egunero lan egin bear du. Eta, inorenzat bada ta egun-giroak izugarritzko aldea badauka basogizonarentzat, bistan da ikazkiña gaizki artuko duala.

Otzak nekez kokilduko ditu. Bustiak edo elurrak ematen badio, orduan komeriak izango dira. Batez ere mandoak eta mandazaiak petri ikusi bearko dute.

Mando-zamaketan asi eta egur bat mando gainean ezin gelditu, loiak lirdikatuak dauzkalako edo elur-izotzetan labaintzen zaizkalako. Ai ene nolako orazioak egingo dituan gure mandazaiak, egitako mandazaia bada beintzat! Aipatuko ditu zeruak eta inpernuak.

Eta zer esan mando gaixoengatik? Elur-baltsetan sabeleraíño sartuta, anka ankari eman ezinda, ura abereen dunda eta tratua, kilometrotan beeko burnibidera egurra edo ikatza jexten!

Plazaolako trena deitzen zitzaion Donosti ta Iruña arteko karraioa egiten zuan tren txiki ari; eta, orrezaz gainera, Leitzaran ibar ortako urbide, urbil-degi (*presa*) eta zubietako adrazuen edo bearrezko gauzen jetxi-igoa ere arek egiten zuan. 1953-X-14-eko uralde ikaragarri arek egin zizkan ondamen alek amaitu zuan Plazaolako tren txikiaren biziarekin.

Bidea ondo zedukan arte
gauza ta jende-karraio;
bazun egiña, arraiok ezik,
zartutzeko aiña saio.
Mendi oitako giza jendeak
serbitu zituan iaio,
baiña ardiak iltzen zitun da
artzaiak oso serio,
atzenerako gurdi zar batek
aiña etzuan balio.

Leitzaran ibaiaren alde bietatik dauden mendi ta leku batzuen izenak, eskubitik: Argain, Astabizkar, Ormaki, Saaberri, Urniyo, Antxixta, Aitzola, Argarate, Etzela, Leuneta eta abar; ezkerretik: Onyolar,

Ibarrola, Kiriki, Urdelar, San Lorentzo, Muga, Aiardo, Ipuliño, Aznar, Deskarga, Belabieta eta abar.

Bukatu ziran mendi oietako ikazkintzak; bukatu orko pagadi, arizti eta gaztaiña-basoak. Orko borda, etxola eta mendibideak ere lur joak daude geientsuenak, piñu eta larrak azpian artuak. Piñu beltza da gaur mendi oietako errege; eta ote, lar da sastrakak morroi. Leku oiek orduan ezagutu zituanarentzat bai dala penagarria.

Dozenaka ziran, Elduain eta Berastegiko mendietan, jauregi baten pare ziran bordak; eta nolako ardi-saillak Bordazar batek, Meakak, Igaldek, Arriatarrak, Errekalkdek...

Geientsuok gera diruak asko balio duala buruan ondo sartua degunak. Baiña diruak zer kalte ekartzen dituan konturatzen ote gera?

Erabateko aldakuntza etorri da bizikieran. Ordu gutxi eta erdi lana dago gaur opizio geienetan. Baiña ez degu zorion osorik lortu. Egin bear degun erreza ere, lengo neketsua bezinbat penatuta egiten degu. Jendeak alperrera jo du.

Garai batean baiño
obeto gabiltza,
aberastu gerala
ematen du antza.
Zerbaitetako dago
ainbeste jakintza,
iñor engañatu bai
itza eta pitsa.

Martin Iyuya

1 944-garreneko maiatzaren 8-an gertatua gogotan izaten det. Leitzaran errekan dagoan *Electra de Bertxin* indar-etxean lanean asi nintzan, eta Jose Krutz Iyuya nuan laguna. Goizean seietan sartu bear zuana, baiña etzan azaldu. Bere anai Martin Iyuya il baizitzaion gau artan. (G. B)

Martin ori ere noizerebait lantegi ortan lanean jarduna zan. Baiña agintariarekin asarre samar partitua izango zan, eta bertso batzuk argitarazi zituan, gaur oso gutxi ezagutzen diranak. Oietako lau dakizkit; eta, oriek ere galdu ez ditezen, emen-txe jarriko ditut.

Usarralde det apolidua
eta Martin izena,
Andoaingo erri noblian
orain bizitzen naizena,
Elosegiko zentral orretan
lanean ari nintzana.
Adierazi nai nuke orain
geldirazi nai nauena,
orko nagusi lenengoaren
ondoren dijoana.

San Esteban santu egunarekin
pesta zan gure karrikan,
etxean bazkari luze samarra,
ez dago zer esanikan.
Ordubeteren utsegiteaz
ni're joan nintzan andikan,
nere ordezkoa ikusitzen
ez nuan izan lanikan,
nik utzi nuna bialdu zuten,
etzegon iñon bearrikan.

Ostiraleko ordezkoakin
etzuan nai moldatu,
larunbatean ara joateko
bialdu zidan mandatu.
Joan nintzan eta beste ordezko bat
aguro nuan topatu,
aitzaki billa dabillenari
orra aurea arrapatu,
ezerezkeri uts batengatik
orra lanetik geratu.

Karrillan edo burnibidean
egin nulako irrintzi,
ura beretzat zalako ustean
etzion ondo iritzi.
Bati gogoia badatorkio
zertarako galerazi?
Auko zuloa itxita nunbait
nai nindun eduki azi,
orren mendeko egiten danak
kontuz biarko du bizi.

Martin Iyuya ori oso gizon atsegiña zan; oso ego-narri onekoa. Alkarrizketa batean lasai egoteko, zail izango zan uraxe baiño ohea billatzen. Bazituan ateraldi par-eragille oso patxadakoak. Berak baka-rrik asma zezazkean alako batzuk. Eun da berrogei kilo inguruko gizon mozkaillua.

Elosegi zentrala edo, berdin esan, *Electra de Bertxin* ortik aldeginda, Olloki edo or Naparrotik gertu dagoan Portu zentrolean egin zituan gero urte-mordo bat Martin Iyuya orrek.

Begira zer gertatu zan. Urrutizkiñez deitu zion bere lankide zan batek:

– Martin, indarra ondo juxtu bialtzen dezu. Altxa zazu boltaje ori.

Eta nik ez dakit zer geiago. Eta Martiñek erantzun:

– Indarra gutxi? Irurogei ta nik ez dakit, ba, zen-bat zaldi ere ari dizkie beintzat.

Baiña lagunak berriro ere:

– Zaldi txikiak izango dira, Martin.

Eta Martiñek erantzun:

– Ik zer nai dek, ba? Leitza-larreko zaldi aundi oiek bezelakoak?

Gizon aren ateraldiekin bakarrik idatzi zitekean liburu bat.

Nere lantokiak

AMABI urte bota nituan urak zapaldu ta indarra egiten dan lekuan; eta ogei ta bat edo bi urte, indarrak bultza eta ura igotzen dan lekuan.

Norbaitek esan lezake badutela kidetasuna urak eta suak. Baiña erabat ezberdiñak dira. Ez dituzute iñoiz biak bat egiten ikusiko. Urak balezake sua indartzea; indarrak ere balezake ura indartzea. Urak ez du su egiten; suak ere ez du ur egiten. Bakoitzak nagusitasuna duan lekuan, bestea bultzatzen du indarrez. Biak alkartzen iñoiz ere ez.

Egi aundi bat ez det utzi nai
nik esatea aztuta,
ura ta sua ez dira egon
iñoiz alkarri nastuta.
Biak nagusi diran lekuan
indarrak kaboik eztu-ta,
urak zuritu egin lezake,
ta suak utzi beztuta.

1956-ko iraillaren lenengoan asi nintzan lantegi berrian. Suak edo argi-indarrak ura altxatzen duan lekua da ori.

Lantokia esan badet ere, obe da atsedean lekua zala esatea. Orduak eta egunak kolpe zuri bat jo gabe pasatzen nituan, eseri ta lasai. Egunean igo aldi bat urbildegia edo *depositua* ikustera eta kito.

Ordu *extrak* ere asko sartzen nituan. Sos batzuk aurreratzeke aiña beintzat bai; eta, liburuak erosi eta aiek irakurriz, bapo botatzen nuan eguna. Dana etzan arrosa kolorekoa izaten, baiña oso eskertsu izaten naiz izan nuan suertearekin.

Ogei bat urte paseak iñoren agindupeko jardun bearrik gabe, ordu luzeei itxaroten, bakarrik, iñork ezer ere agintzen etzidala.

Esaerak dion bezela, busti aiña legor eman dit Jaungoikoak.

Irurogei ta bost urtera iritxi nintzalarik, zaar-saria jasotzen asi nintzan, ta pozik.

Mundu eta mundutarrok gorabera aundiak izan oi ditugu; baiña, beintzat, azken urte auetan egunaren ogei ta lau orduak nere aukera samarrera erabiltzen ditut, Jaunari esker.

Etorkizunaren kezka

EUSKAL mendietan badegu beste gaitz berri xamar bat, len gutxiago nabari zana: erdal izkuntza alegia. Bai; lendik ere bagenituan langille erdaldunen arrastoak euskal mendi oietan barrena, meatz lanak zirala, urbildegi, urbide, indar-etxe, burnibide eta abar. Rodríguez, Antúnez, Martínez ezagunak genituan lendik.

Orain, ordea, nik idazten ez dakizkitan arabe, arjelino edo marrokiak ere asko ditugu.

Joan zan gerra ta aren ondorean ugaldtu zitzaizkigun goardizibilla, piñua ta patata zomorroa. Lurra estali eta kito!

Mendian erdera entzuten dala esaten asi naiz. Jakiña, erdaldun jende oiek, asko ta asko, mendiko sasi ta otadiak garbituaz piñu landaketara etorriak dira; ta gaur bertan ere mendi oietan dituzte beren negozioak.

Gaur badituzte piñuak bota, pillatu eta errira jexteko kamioiak ere. Esango nuke beren kopetako izardiaren ordaiñez eskuratuak izango dituztela, geienentsuak beintzat.

Beste geienak, or piñudian lan egiten duten bitartean, lan ariñago bat topatu dute beren errian. Ain buru makur etortzen dira ezik, badakite emen-

go kapitalista zarrak eta berriak, kapitalista aundi eta txikiak, zakur leialak izango zaizkiela, eta pozik artzen dituzte.

Gure euskaldun gaztedia, berriz, urtetan ikasketak egiten ibili ondoren, lanik ez dagoala ta demokraziaren izenean or dabilta kaleetan barrena marrazaz, ukabilla jaso ta igualdadea eskatuaz.

Len aitatu ditudan jende oiek geienak, leku txarretatik eta gaitz ikusiak datozenak dira, eta oso apal jartzen dira ugazaben esanetara. Gaiñera, aiek bereala esku uzten diete opizialen lanak lardaskatzere, maisuaren lanak peoiaren lan sariakin eragiñez. Egin eta kaixo, motell! Nagusia irabazian eta morroia irabazian. Zer gauza ederragorik?

Gure euskal seme *señoritoak*, berriz, ez dagoala *deretxorik* diote, *carrera* ikasi ta lan zabor oriek egiten jarduteko.

Gure garaian etzan orrelako gauzak pentsatzeko astirik ere izaten. Lan txarra ala ona, eta ordu mordo galanta ala ere, lan sari murriz baten aldera. Ez, beintzat, lanik ez dagoala esanaz arpa joaz ibili.

Ez dira euskal seme guziak orrelakoak. Ez orixe! Eta orien bear izango da gure Euskal-Erria.

Euskal-Erriak dauzkan gaitzetatik asko beintzat, lendik datozenak dira; eta, berriz esanda ere, dalako gerra madarikatuak ekarri zituan jende pillak, batzuk urrutitik eta besteak ez ain urrutikoak, asi ziran zuloak egin, etxeak egin, lantegiak egin...

Ala ere, egiten zan guzia ere gutxiegi zan, askoz gaiñera. Orduan lana bazegoan lasai; eta, ordu *extra* mordo bat sartuz, jendeak sos batzuk aurretzen eta bearreko ziran gauzak erosten asi zan: etxeko altzariak, etxe bizitzak...

Bazetorren jendea, ibaiak uraldean ura ekartzen duan antzera, Gustora zebiltzan lurren sal-erosle

eta lur jabeak. Gustora etxe egilleak, salneurria
aoak eskatua jendeak ordaintzen zielako.

Baiña orra! Egun batetik bestera, ordu *extrak*
amaitu egin zirala, eta alako lantegian ez dakit zen-
bat lagun kalera bota omen zituztela... Andik den-
bora laburrera:

– Alako lantegia itxi omen da.

Gero, bestea eta bestea.

– Nola leike ori? Orain lau illabete ordu *extrak*
sartzen ari bagiñan? Euskal-Erriaren ainbat soro
zabal arriz eta burniz estali ondoren, orain lanik ez
dagoala? Euskal-Erriko ibai ta errekek zearo kakaz-
tu ondoren, orain lanik ez dagoala? Oitura eta
izkuntza ezberdindun jendez erria bete degunean,
orain gure semeak atzerrira, al duten lekura, joan
bearra? Au ez al da negargarria?

Euskal lur eta jendeak, zati aundi batean bein-
tzat, etorkiñen trukera saldu ditugula esan gentza-
ke, gezurra esateko bildur gabe.

Joanak joan, eta uste al dezu Euskal-Erriari
ekarri diogun lorra ekarri ondoren, zuzenbide on
bat artzeko biderik ikusten danik? Or ditugu ainbat
lantegi eta ola, *krisisa* dala-ta ateak itxi eta ezeren
serbitzu gabe ainbesteko legorpeak.

Eta zer nai dezu? Beste lantegi berriak altxatzen
ari zaizkigu tarteka-marteka, gelditzen zaizkigun
lur apurrak estaliz. Lur jabeak ere pozik, ongi
ordaintzen omen dituzte eta. Bai; diruak garabilzki.
“Gutxik geiegi, askok batere ez”. Euskal-Erri gaixoa!

Zer etorkizun ikusten diogu Euskal-Erriari? Bear-
bada ni *pesimista* izan ninteke, eibartarrak *esaten*
daben moruan. Baiña ez det ikusten gure etorkizuna
bide onetik dijoala sinisteraziko didan gauzarik.

Eta zer esan gure gaztediaz? Oztopo aundiak
atera zaizkie bidera; eta, bideko zikiñak garbitzen

saiatu orde, sail aundi batek oso okerrera jo du. Badaude on askoak, al duten eran, bizia atera bearez, lanean diardutenak. Beste batzuk, norabidegabe, ao zabalka nork zer ekarriko daudenak. Danetik dago Jaunaren baratzan.

Alperkeria, ustelkeria, gorrotoa... Munduko droga trafikante altsuei joku egiñez, ta eurak ere droga artu al dezaten, pozoi ikaragarri orren merkataria egiñik, "zu pekataria" kantatuz... Espiritu gutxiko jendeak; beren buruaren jabe ez diran jendeak; lana eta langillea bera ere gorrotatzen ikasi duten jendeak... Ustelkeriak ondorik ez duan zulo-raiño erori dira asko eta asko; espetxeetan usteltzen beste sail bat...

Ikaragarria da Euskal-Erriari erori zaion izurri edo zانبroa. Norbaitek uste ez baleza ere, naiko kezkarri egiten zait aitatu detan arazoa, gertaera batzuk oso gertutik ikustea egokitu zaidalako.

Mendi-ibillerak

Mendia

JUBILATU eta etxe aldera gelditu nintzalarik, mendira erteteari eman nion, perretxikuak zirala edo urritz makillak zirala, eguraldi ona bazan beintzat; eta txarrekin ere bustialdi ederrak artua nago.

Len, gaztea nintzanean, bearragatik joaten nintzan mendira. Baserriko lanak zirala edo artzantza zalako, joan egin bear nai ala ez, bizibidea artaraxe antolatua neukan da.

Orain oso besterik da. Oso gogotsu ibiltzen naiz mendigain oietan. Zaartu eta indarrak murriztu zaizkidalarik ere, egundoko ibillerak egin ditut.

Gipuzkoa au, zatirik aundiena beintzat, zapaldua daukat ezker-eskubi, gora ta bera, orko erre-kak, goiko arkaitzak eta baso-oianak. Zoragarria da mendia!

Mendia osasuntsua izateaz gainera, argiago ikusten dezu zure duintasuna. Gain oietatik begiratzuz, obetoago ikusten dezu izadiaren aunditasuna. Etzerala zuk uste bezin aundia. Obeto ezagutu apaltasunaren legea.

Bertso-pare au moldatu nuan 1984-eko abuztuaren 30-ean, Mugarra gainetik:



Agustin eta Romana senar-emazteak,
Zelaturen, 1965-VIII-29-an

Asko osatzen ditu
gizonen zentzunak
mendiai ikusi ta
mendiai entzunak.
Apaltasuna senti
lenago etzunak,
izadiaren deiak
eta erantzunak.

Mugarako arkaitzak
zer kopet illuna!
Zelako begirada
egiten diguna!
Gaiñean kokatzean
irudi naiz luma,
utsa nere korputzak
zapaldutzen duna.

Gauzak era askotara adierazi leizke noski; baiña nere jakite apalak asko mozten dizkit bideak.

Esate baterako, Jaunak egunero bialtzen digun eguzki argia deigarriagoa zaigu mendi gaiñetik, errietako jende aruntz-onuntzko ibillera zaratatsu artetik baiño. Izadiaren aunditasuna errezago nabari da mendi gaiñetik, urietatik baiño.

Ibili naiz lagunekin mendian, ibili naiz bakarrik ere; eta bakarrean obeto sentitzen dezu izadiaren aunditasuna. Orregatik ez det esan nai mendian bakarrik ibili bear danik, gerta leioken edozer ezbe-arrarengatik.

Baiña gauza gutxi esan nezake nik mendiaz, egin ditudan mendi ibillerekin konparatzeko. Aspergarri litzake anbat, ibillera oiek danak emen azal-tzea, naiz eta aukera ori nere eskuan daukaten. Geientsuenetan beintzat nere egunerokoan idazten bainuan eguneko gertaera. Gaiñera, zenbaitentzat aspergarri, eta arrokeri ere bai noski izan liteke



Agustin eta Romana senar-emazteak,
Urbian, 1965-VIII-8-an

aspergarri, eta arrokeri ere bai noski izan liteke azalpen oiek emen berriro egitea.

Egiaz aitortuko det, gaiñera, orrela sentitzen duanak arrazoi apur bat baduala. Nabaitzen baidet alako arro kilima antzeko zerbait nere kolkoan. Ala izanik ere, egitazko mendizale danak errez azpiratzen ditu munduak gizakiari erakartzen dizkion aundinaikeriak.

Gaitz da adierazten gizakiok mendiari buruz daukagun irizpideen aldea. Esana det len ere, gaztearoan bearrak eramaten ninduala mendira; eta orain, oster, zoragarri egiten zait gain oietan barrena ibiltzea, batez ere len izan ez naizen leku berriren batera banoa; eta eunka izan ditut leku berriak.

Eunka dauzka gure Gipuzkoa txikiak bosteun metrotik gorako mendiak. Eunka mendi zapaldu ditut nere oiñez, erreka arte, pagadi baso, piñudi, sasi sastraka zikin... Zer ibillera nekosoak batzuetan! Ler gaizto eginda amaika aldiz etxera...

Orain, berriz, etxe aldean geienbat, zaartu, nekatu eta erdi miñez. Urte askoren jabe eta kito!

Otzaurtetik Eginora

SEIRETAKO trenean Ortzautera joan eta zazpi t'erdietan ekin nion Aratz mendirako bideari.

Leoztaingo pagadian gora, Allarte gaiñera atera nintzan arri artean, oso nekoso. Gaillur onek 1241 metro ditu. Mendi bizkar luzea dana. Arri artean begiak zabalik eta oinkada zintzo egiñez, noizbait amaitu nuan mendia eta arri artea.

Umandi urrengo mendigaiña; 1218 metro altu. Bapo egin nuan igoera.

Errekara jetxi, ur edan bat egin eta ekin nion aiñar artean gora Albenitz gaiñera: 1011 metro.

Urrengoa erosoxeago neukan: Artzanegi, 981 metro.

Beste mendi koxkor bat igo eta, mendi artean jira aundi bat emanda, Olano gaiñera igo nintzan.

Denbora aurrera, bizirotu nekatur nengoan eta Eginor errixkara jeixteko ordua. Bide itxurakorik topatzen ez eta arkaitzetan bertan behera ekin nion! Zer jexkera nekoso eta bildurgarria! Egarriak, nekatur, txutik juxtu iritxi nintzan errira. Ur edan galanta egin ta laurak eta ogeiko trenean sartu nintzan etxerako.

Bildurrak berak ere egarria ematen duan iritzia izaten det. Eginoko arkaitzetako jexkera izugarriak neri beintzat eragin zidala uste det. Esan bezela, inguruan beste biderik somatu ez nualako, bertan beera ekin nion. Gaur, gogoratuak bakarrik ere bildurra ematen dit.

Andik illabete juxtura, 1986-ko urriaren 2-an, berriro aurreko ibilleratsua egin nuan. Lenengo trenean Otzaurtera joan, da Beundatik Altzania erre-kara jetxi. Perretxiko ale batzuk artu eta Atxukaldai, Apota eta Iturgaindik (988 metro) Arbarrain gainera. Onek 1118 metro ditu, eta Naparroa, Araba eta Gipuzkoako muga egiten du.

Beeko lepakatik aldapa latza du, eta naikoak eginda iritxi nintzan gaineko mugarrira.

Eseri, ogi artekoa jan eta beera, Eginorako bidea artu nairik ekin nion; eta ara nun leen illabete oztopo egin nuan arri berberan topo egin nuan. Egun artan ikusi nuan arunzko baso aldera oraingo autobide bat ekabia nola zegoan, eta asi naiz bide orri jarrai.

Baiña or sartu naiz baso zulo batera. Nik uste bainuan bide ark beera erri aldera eramango ninduala, baiña leku onean nenbillen!

Orduak aurrera zijoazen, trenerako garaiak gainean nituan eta ezin atzera jo. Ekin nion bertan beera arri arte, elorri arte, sasi eta zugaitz zartaka eta zepa kaskar, leen illabete jetxi nintzan arkaiztira. Ene ta bada! Biotzak eman zidan alako jira bat...

Leengokoan baiño jexkera obexegoa ote zeukan zirudian arkaiztiak. Baiña zein ausartu, illabete aurretik arkaitz artan igaro nuan izualdia gogoratu-ta? Jaungoikoaren bidalien laguntzaz ondo jetxi nintzan, eta eskerrak emana izango nintzan noski. Laurak eta ogeiko tren ori artu, bai, ta pozik etxeratu.

Milla beatzireun larogei ta sei,
urteko illa urria,
eguna berriz gaur bigarrena
nere gogoangarria.
Arbarrain gaiñak berekin dauka
leku ezagungarria:
Napar, Araba ta Gipuzkoa
mugatzen ditun arria,
ortxe daukagu iru aizpari
eskuz esku ezarria.
Bere gaiñean txartel kutxa bat
ere badauka jarria:
milla eun eta emezortzia,
ala det irakurria.
Nola baizegon egualdi-giro
alai ta zoragarria,
ogiarteko bat patxadan jan,
ardo busti eztarria.
Gero arkaitzak bera jetxi nai,
zer leku bildurgarria!
Len ere oixe gerta zitzaidan,
gaurko au ez da berria,
nai ordurako ez det zapaldu,
ai!, Eginoko erria.
Ur ozkirria *pol-pol* boteaz
enparantzan iturria,
zoratu nairik edan ta edan,
noizbait kendu egarria;
orduan zerbait piztu egin naiz,
ain nengon errukarria.
Betikan gora begiraturik
Egino-mendi arkaitzak,
oraindik ere dardarizoa
egiten zidan gorputzak.

Zegamatik Altsatsura

BOST bat aldiz iritxia nago Iturgain edo Arbarraingo inguruetan. Naiz Altsatsutik, naiz Otzaurtetik, ez dago oso aldean. Baiña 1989-ko urriaren 31-n egin nuan bidaldia da askozaz ere luzeena.

Eguraldi bikain batekin irten nintzan Zegamako geltokian trenetik, eta Intxusako lepakara. Aizkorri azpiko bide zearrean, Buenabista, Basain-zulo, Sancti Spiritus.

Emen zegamar batekin egon nintzan zerbait itzegiten. Baiña ez nion garbi esan noraiño joateko asmotan nijoan. Iru bat ordu inguru baneramazkian trenetik atera nintzala; baiña ori etzan ezer, gero egin bear nuanarekin konparatzeko.

Jetxi nintzan Altzania errekastoa sortzen dan iturbegiraiño. Ur asekada bat egin da aurrera jo nuan, Aratz-peko autobidean Leoztaingo pagadietan barrena. Ura basoaren edertasuna! Zugaitz bikaiñik badago baso oietan.

Arabar mutil gazte baten illarria dago leku ortan. Goian bego.

Baso oietan zear, bide zabala ebaki berria dago, Atxukaldai eta Apota deritzaien lekuetan barrena, Iturgain lepakara. Eta andik gora, Arbarrain gaine-

ra. Luzea izan ez ta ere, aldapa latza dago. Bitarte ortan ibilbide leguna bai; baiña oso luzea eta puska bat menderatua iritxi nintzan mendigaiñera: 1118 metro goi.

Jan-edanak artu, etzanaldi bat egin da Altsaturako bideari ekin nion gain-bera antxean eta oinbide jatorra, pago orbelean *zarra-zarra*, oso bide ona ibiltzeko. Baiña perretxikorik ez, arrunt legor baitzegoan. Ibirigain (1053 m.), Arbarrain, Arnabarreta (989 m.)... Ala ere, zugaitz artean ezer ikustarik ez. Orrela dio esaerak: “Zugaitzak galerazi basoa ikustea”.

Nekez bada ere, Altsasura iritxi. Kilometro asko daude Zegamako geltokitik onera.

Bear ez nitun pentsamentuak
pillaturikan buruan,
mendialdi bat egin bear nun
sasoi garaiko moduan.
Goitxoetara iritxi nintzan
nere jokera zoruan,
iru probintzin muga-arria
dagon Arbarrain onduan.

Perretxikoak ekarri ustez
mendi ortara abitu,
xartuta dagon aittona xarrak
beldurrak baztertu ditu.
Bost-sei orduan gora ta beera,
ez nintzan asko gelditu,
egiñal danak egiñagatik
bat benik ez nun aurkitu.

Bein bear eta nekea pranko
nere buruan kaltean,
alare pozik ibiltzen naiz ni
alako leku batean.
Aritz tantaiaak, pago-lizarrak,
mendi sail danak betean,
naiago nuke aiek baneuzka
nere etxeko atean.

Dana etzegon zotal garbia,
bazeuden leku malkatsak;
lorea gutxi ikusi nuen,
geiago elor arantzak.
Larra ere bai ortzak ageri,
ote motz, aiñar, lur-untzak,
ezagun da bai palta dirala
ardi, beor eta auntzak.

Orain izua emanagatik
pentsatzeakin bakarrik,
supritzen nengoan etxean ere
orixe egin bearrik.
Azkenerako makaldu nintzan
urikan ez ta egarrik,
Jaungoikoari esker alare
ez nuen izan okerrik.

Endara

GIPUZKOAREN goi aldetik erabat bee alderai-
ño joko det orain. Bertso bidez kontatuko
dizuet egun artan, 1989-ko urriaren 17-an, neri
gertatu zitzaidan ibillera txarra. Onela izan zan:

Irunen irten trenetik eta
ez oso bide motxian,
kilometroak amar bai noski
igoan eta jetxian,
gizon on batek eraman nindun
Erlaitza bere kotxian.
Pentsatu nuen: “Uste baiño len
gaur an nauk berriz etxian”.
Nik egindako kalkulo aiek
oso zuzenak etzian,
nai ordurako ez naiz iritxi
Endaran presa ertzian.
Endara errekan goitikan bera
ekin *tirri* eta *tarra*;
egia esan, pozik ni joan,
ain zegon giro ederra.
Bidean txukun asi bai, baiño
gero sortu zan okerra.
Bein bear eta laguntzarako
alboan nuan *Bearra*,

artxek bakarrik entzungo zidan
laguntzaren deadarra.
Erreka zintzur estua bean,
bi albotara malkarra.
Zutikan zuzen jarri nai eta
uraxen bazan negarra;
bazarretako sastraka zarrei
itsatsiaz atzaparra,
neretzat berdin ziran orduan
txillar, ote edo larra.
Endarlatzara irixtea zan
neraman amets bakarra,
nere buruai zutikan eusten
egiten nuan indarra,
pentsatzeko da ez neramala
joanera oso azkarra.
Ur garbi ona darama baiño
ain da erreka baldarra,
iru orduren buruan jo nun
Bidaso ibai baztarra.
Endarlatzatik artu berriro
egundoko abantara,
bi ordu pasan iritxi nintzan
Irungo Colón ortara.
Paseo ortan sal-etxe batek
izena dauka *Endara*,
artzekorikan ez nun ezer ta
ez nintzan sartu dendara.

Orrelaxe, or aurrean idatzi dedana ibilbide legu-
na eta ona baldin bazan ere, orain idatzi dedan au,
egun ontakoa, arrunt leku traketsa. Erreka bildur-
garria da, baiña Jaunaren laguntzaz onik atera
nintzan, berari esker.

Txarabeltz

BEASAINGO Salbatozetik ekin nion aldapa gora, sei kilometro ta erdi inguruan. Ordu ta erdian iritxi nintzan Mandubi gainera. Ez nekian asko nolako abentura pasatzeko nengoan egun artan.

Lañotan igo nintzan Mandubi gainera. Amar kilometro ingurura Mantxinbentako gainkaldera. Ekin nion autopistan gora. Bost ordu inguruan iritxi nintzan Txarabeltz gainera, eta an leku polit bat dago pago mordoxka batekin. Azpi artan dozena erdi bat untto billatu nituan.

Ara eramán ninduan bidea luzea zala-ta, laster-bidetik jokatzea erabaki nuan. Bai zoritxarrez. Egundokoak ikusi nituan piñu arte aietan. Abitu nintzan mendixka bixkar batean, Murumendi aurrekaldean nuala, eta baserri uts bat topatu nuan berealako batean, artzairen baten babesleku negurako egiten zuana.

Baiña gizaki baten zantzurik ere ez, zerbait galdera egin nai izanda ere. Aurrera or noa erreka aldera. Txakur zaunka erteten zan, baiña besterik ezer ez.

Piñupe batean beera jetxi nintzan erreka ziztor batera, eta ai zer ur edana egin nuan! Ura prexko-

-prexkoa zegoan, naiz ta San Permin eguneko eguzki beroa egon. Ain zan erreka zulo sakona eta ostrope illuna.

Ala ere, euliak naikoa erasotzen zidaten. Eske-
rrak ango ostro ta sasipeai. Baiña, beste aldetik,
ostrope arek etzidan ezer ikusten uzten. Tarteka-
-marteka Urraki edo Illaun alde oiek azaltzen zit-
zaizkidan, eta gaitz erdi.

Baiña nun ote nago? Nun ote dago Murumendi?
Nolabait irten nintzan sasipe artatik, neuzkan ille
bakanak bertan uzteko zorian.

Mendibide txinda edo bidetxior polit bat arkitu
nuan, da or agertu naiz goiko gainean autobidean,
Santa Ageda, Santa Marina edo Santutxora joan lei-
ken parajea.

Santutxora joan ezkerro, Tolosara jetxiko nindu-
ken autobusa irurak aldean neukan; baiña beran-
dutxo nenbillen ortarako. Azkar ibili bearra neu-
kan, eta ni gauza ez ortarako. Erabat nekatua bai-
nengoan.

Urki aldera edo nik al dakit nora, bertan beera
astea erabaki nuan trenean etortzeko. Bein bear eta
Bearra izan nuan lagun. Autobide zabala neukan;
baiña gerora sartu nintzan zingira edo basurdeak
bañatzen ziran loidi batean. Aurrera ta txarrago.
Otadi ta azkenik piñu ta lar, malkardi batean beera
sasia etenaz, azkenik egitako autobide onera, Itsa-
sondoko Urki auzo ortara.

Geltokira iritxi nintzanean, laster etzan nintzan,
eta trena ere bereala azaldu zan; da etxera pozik
eta osasuntsu.

Aruntzean nekoso joan nintzalako, onuntzerako
artu nuan beste bidea, eta ordubete geiago bear
izan nuan.

Elgea

GIPUZKOA, Napar eta Araba goi aldetik artu nuan, eta gero Irun aldera beeraiño jetxi. Erdi aldea ere ikutu det. Orain berriro Gatzaga aldera igoko naiz, Elgea gaiñeraiño.

Batean, 1990-ko abuztuaren 6-an, trenean Zumarragaraiño joan nintzan; eta *Pesa* auto oieta-koan sartu eta Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Ezkoriazta.

Aitzorrotzeko bideari ekin nion, eta an ere berea-lako batean ote eta larrekin topo egin nuan. Aitzo-rrazpe baserriko barruti batean, egundoko kamillo pillak ikusi nituan. Ura edertasuna!

Aitzorrotza igo nintzan: 738 metro. San Juan ermita dago an.

Aurreraxeago joan eta Uxar bi mendi mutur daude, 755 metro ingurukoak.

Andik gora, mendi pista batean, lañotan igo nin-tzan etxola berri eder batera. Aita-sume batzuk ziran. Inguruko berri eman zidaten, eta bai jatekoa ere.

Andik gora asi eta Urkita (1000m), Arriurdiñ (1002 m.), mendigain garbia. An, aize babesean, zerbait jan. Altxa egin bear izan nuan, aize otza bai-zebillen, eta aurrera jo nuan: Makatzagain (1000 m.), Pago Bedeinkatu lepoa (977 m.).

Idazabal edo olako leku batean, etxola bikain batean, bere sukalde, butano eta guzi, etzan-gela ere bai, gazte batzuekin egon nintzan.

Aurrera jo nuan eta beste gizon bat, pamili gazte-arekin. Berarekin egon nintzan beste apur batean, eta arek eman zizkidan inguruetakoa txetasunak.

Mugarriluzera abitu nintzan garaian, or sartu zitzaidan lainoa, aizea eta euri intza. Nik mundu guzitik Aumategigaiña arrapatu nai nuan; baiña eguraldia bizi- zikoiztu zitzaidan gogotik.

Bañuko galtzak eta elastiku txar bat soñean artu, beste jazkiak ez bustitzearren. Gaiñontzeko zarpak eta nituan gauzak Mugarriluzeko zartaka tarte batean sartu eta or abitu naiz korrika txikian Aumategigaiñera.

Korrika joan nai bai, baiña ezin, alde batera berandu nualako, eta bestetik aize otz eta zorrotz arek otzikara zaiñetaraiño sartzen zidalako. Erabateko laino josia sortu zan, eta aizeak indar artu zuan. Baiña nik segi aurrera.

Ez nintzan bildurtu. Mendigain garbia, leguna, eta moto ta autobidea zegoan danean; eta urrutitik ikusi nuan gain bizkar artan zegoan gurutzea, eta bai txartel kutxa ere.

Ez dakit Saiturriko lepoa dan ala Orben dagoan ur-putzu lekua. Bai; lekua esan bearko, ez baizegoan uraren tantarik ere. Eta azkenik iritxi naiz Aumategi ortara ere: 1191 m.

Ez nintzan nai baiño len Mugarriluzera (1109 m.) bueltatu. Eskuak erabat suminduta neuzkan ordurako. Artu nituan nere gauzak eta jetxi nintzan arratsaldean mutil gazte aiekin egon nintzan etxola artara. Baiña ordurako aldegin zuten aiek, eta barrurako sarbide gabe gelditu nintzan.

Etxola orrek atzekaldean bazeukan beste legorpe txoko bat, baiña sua egiteko eragozpena: gas-botilla

batzuk zeuden, eta oien artean bakar bat edo beste beteak zeuden. Beraz, atera egin bear atarira.

Ori bai: sua egiteko, txillar edo aiñar, egur igarra nai erakoa. Egur oiek jarri ta eman diet su, eta asi naiz aparia egiteko asmoz. Baiña zeïnek iraun barrunpe artan kearekin? Erre usaia etxeraiño ekarri nuan.

Ai ene! Eztarria, begia eta dana erreta, gau osoa lorik egin ezinda. Ez etzateko lekurik ere; alki txiki bat, ezin da egoera txarragoan. Nekez arrapatu nuan eguntxinta.

Goizean, an inguruan zegoan iturri batean txokolate pixka bat maskatu nuan, eta oiñetako ta jazki legorrak jantzita Eskoriatzako bideari ekin nion.

Ni errira jetxi nintzanerako, zeru aldea oneratu zan, ta an gelditu zan Elgeako mendi katea.

Orkatzategi

1 991-ko agorraren 6-an, ostirala, goiz aldera tximista-turmoia ziarduan. Baiña gerora eguraldia oberatu zan, eta gure alaba Miren Joxepe eta biok mendira ateratzeko gertutu giñan.

Ni, geientsuenetan, tren edo jendea erabiltzen duten autobus oietaz baliatu izan naiz mendi oietara inguratzeko. Baiña, Araotza joateko, alabaren laguntza bearrezkoa nuan, eta pozik lagundu zidan, berari ere gogoko baizaio mendian ibiltzea.

Araotza joateko, Arantzazu bidean Urtiaga inguruan artzen da erreka aldera. Nolako erreka zulo itxusia! Jaturabe erreka, ia bertara iritxi arte ez liteke ikusi.

Zubi batean pasatzerakoan, azpian indar-etxexar bat gaikaldean; Urrexolako arkaitz aundiaren azpian San Elias ermita; aurreraxeago, Jaturabeko urbildegia edo presa.

Autoa Agerre edo Agirre baserri apaiñean utzi eta ekin genion mendibide kaskar samarra eta aldapari.

Agerre baserri ura ez omen da zalako Lope de Agirre egoskorrenen jaiotetxea. Erakutsi zidan gizontxo batek zein baserri zan, izen eta guzi. Baiña nik izenik ez nuan artu, eta gogoan eduki gutxiago.

Esan bezela, ekin genion Orkatzategi mendiko bideari. Urrexola arkaizti orren gaikaldean dago, 874 metroko alturarekin.



Agustin Zinkunegi Iru-aitz mendian, 1991-IX-6-an.

Pena izan genduan, baiña laino artean igo giñan gain artara, eta ez genduan ezer askorik ikusi. Ikusmira ederra egongo da nolanai ere gaillur artatik.

Bee aldera abitu giñan tontorrik tontor: Ameztueta (824 m.), Iru-aitz (790 m.)... Mendi gaindi aiek kaskar samarrak izanik ere, inguru artan dago Gipuzkoak duan auzo politenetako bat; Ugaztegi: 750 metro inguru izango da alturan. Dozen erdi bat etxe txuri, belardi ederrak, ardi eta beor... Mendiak sakon antxera egiten dualako izkutu samar egiten da, eta bertaraiño iritxi arte ez da ikusten.

Gaikaldeko lepoan, Santa Kruz ermita (765 metro). Aurreraxeago, Txirikidaleku (836 m.), eta orrelaxe, oso leku politak.

Nere mendien zerrenda ugaritzeko, beste lau tontorren izenak artu, bai, ta etxera itzuli giñan pozik.

Degurixa

ANDIK bost egunera, 1991-ko agorraren 14-ean, berriz Araotzko bidea artu genduan alaba eta biok. Autoa laga Agerre baserrian eta gora ta gora. Oraingoan bidealdi luzeagoa eta latzagoa artu genduan.

Berriz, Santa Kutz ermitatik gora, Txirikidaleku eta Andarto-txiki (855 m.) Igo errezo egin giñan, jetxi baiño. Arkaitz kosketan beera, ura jexkera nekosoak egin genduan!

Beeko ordekan, baso artean, bi gizon topatu genituan, eta aiek jarri ginduzten Ezateko lepora bidean.

Ogi artekoa janda, Andarto-aundira igotzeari ekin genion, arkaitz gain utsean, 1076 metro alturan. Andik jetxi giñanerako, nere nerbioak lertu samartu ziran, arri gain aietan bilintz eta balantz.

Degurixara jetxi giñan, eta uraxe lekuaren polita! Uraxe mendi arteko zelaidi berdin gabea! Eta nolakoak bertako artzai-etxolak, apain eta txukun aukeran egindakoak!

Peña Santiago zanari irakurri izan diot, Gipuzkoan gutxientxoek ikuskatzen diran mendi aldeak ote diran Degurixa eta Elgea. Zer tamala!

Degurixa artan artzaiekin zerbait itzegin genduan.

Ur ozkirria edan eta biderako artuta, aurrera jo genduan. Neri, ala bearrez, zelai artan abitu giñalarik, zanko-belaunetan min-zurria asi zitzaidan, eta egun ederra neukan, beraz.

Zelai orrek 896 metro inguru edukiko ditu, eta berriro aldapari ekin genion, 1147 metro dauzkan Arlutz gainera. Bidea garbi eta legun-leguna zegoan, baiña ezin igo ezerगतik ere. Andarto artan ondatu nintzan iñolaz ere.

Orain goiak artuak genduzkan, eta patxara obean ibili gindezken. A zer nolako ikuspegia Aranguren azpiko mendi zearrean barrena. Arrasatetik Aramaio eta Gatzagaraiño ibarra ikusteko lekua.

Elorretako aitzia eta Kurutzeberriraiño iritxi giñan, 1146 metrotara. Baiña aitz mutur aietara igotzeko gauza ez nintzalako, ogei ta amar bat metro edo geiago zapaltzeko utzi nituan.

Beera jetxi giñan, Urbaltzako errekastora. Andik, Ugaztegi auzoan gora, berriz leengo tokira: Santa Krutz ermitara. Agorreko Gurutze eguna zan, ain zuzen.

Agerre baserrira jetxi ta Arantzazura igo giñan, eta zerbait erosketa ere egin genduan. Nik beintzat Txomin Agirreren *Garoa* liburua erosi nuan. Ordurako ere bi aldiz irakurria nintzan, baiña ez da izango atzena, Jaunak nai badu, eta naiko du. Ain baida liburu euskera garbia eta gozoa duana.

Etxera etorri giñan ondo eta pozik.

Erreka inguruetan

BETI ez nintzan mendian goiko tontorrera igo-tzen. Erreka baztarreko altz, urritz eta sasi arteetan ere ibillera galantak egiña nago, eta ez beti onak ala ere.

Zertan ibiltzen nintzan? Urritz makil billa, urritz-makil pinttarrak, mintza ori antzekoa zutenak, pinta txurixkakoak, txuxenak eta legunak.

Baiña zenbat ibillera txar! Jainkoak bakarrik jakin!

Amasamendi, Antxumeta, Aski, Ibarrola erreka, Berastegi, Inttubi eta baita Aiardo errekatik ere, ederrak ekarri nituan bein baiño geiagotan. Urritz-zartaka batetik bi ederrak ekarri nituan bein. Ez da erreza izaten zepa batek bi alakoak izatea.

Ormaki erreka, Neusabe ta Agerremendiko errekatik, eta geien bat Abalotz errekaen barrenetik asi eta Saratxotaraiño bi aldeetan, eta Andatza azpiko errekaetoetan barrena, zer ibillerak! Bakardadean oso pozik. Izadiaren laguntza musika bat irudi.

Ni orain ezindua nago, ta urritz makilla aukera ere asko urritu da. Gure mendi arteak erabat zikindu dira, orko ote ta lar, eta kito!

Oraindik ere biltzen dituzte norbaitzuek. Ni urte auetan joaten naiz San Antonio egunean Urkiolara, eta sortaka egoten dira saltzen azokan.

Lenago bai: gari soroan garia bezela izaten zan mendi arte auetan urritz ziorra. Aiek zardaiak, udazkenean gaztain botatzeko ta!...

Gogoratzen naiz: emen, Leitzaran ibarreko indar-etxe eta kanalzaiak, geienak sasi-opiziokoak izaten ziran: len aitatu dedan Tomax Xextero, gizon pottoloa ta abar. Egiten zuten lan ederrik, bizkar-otar, eserleku, asto-saski eta abar, erreka arte oietan bildutako urritz ziorrei ateratako zimitzekin.

Ni neroni ere zerbaitxo saiatua naiz, izaten nuan eguneroko lan-sari txikiari laguntzatxo bat egitearren.

Eskobare-kirtenak-eta egiteko ere, onak izaten ziran urritz makillak.

Aiek zumitz luze eta legunak ateratzen zituan gure auzoko Erramun nagusi zarrak! Artista zan gero, saskia naiz eserlekua igotzen ere.

Orain dana plastikoa darabilkigu, eta azkenik jan ere ala egin bearko degula uste det.

Gipuzkoako erriak

GIPUZKOAKO erriak ere, bat bakarrik utzi gabe dan-danetara iritxia naiz. Erri oietatik sail bat, ala bearrak bertara eramán izandu naualako; eta beste batzuk nere lagun batekin, geientsuak jaietan, kirol edo deportea egin orde, txirringa artu eta ibiltzen giñalako.

Gerora bakarrik joaten nintzan, lantegian orduak aldatu zizkigutelako. Orrela nenbillela, ara nun nere buru-muiñetan sartu zitzaidan Gipuzkoako erri danetara joan bear nuala. Pentsatu eta egin.

Makiña bat igo-jetxi egin nituan arribide edo kamio oietan. Bizikletako ibilia oso osasuntsua da, baiña bere neurria du orrek ere. Ni askotan neurritik atera egiten nintzan, ondoan pasatzen ziran auto eta kamioien zarata bera ere iraun ezin nua-neraiño menderatua.

Ibiliaren ibiliz, soin atalak zimeldu egiten dira, eta orduan urrengo egunerako len bezin gogotsu jartzen zera.

Gipuzkoako larogei ta geiago erriren artean, bat bakarra gelditu zitzaidan zapaltzeko: Gatzaga, Arlabango aldapa urruti samarrean. Baiña gero, urte batzuetara, nere alabak lagundu zidan autoarekin; eta, ala, nere amets gogoa beteta gelditu nintzan.

Jarindo mendi bizkar luze artan ibili bat egin da
etxera etorri giñan.

Gipuzkoa txikia dala esaten da; baiña, ni bezela
metroz metro asten bazera, igual pentsatuko dezu
aundia dala.

Piñu zomorroak

Goizean itzarturik
len orduak dira,
ta begiak zuzendu
zeru sapaidira.
Logelako leiotik
izarrei begira,
pozarren nabaitu det
beroién dirdira,
pentsamentu berriak
sorturik arira:
“Goizean jeiki eta
joan biet mendira,
len arizti ziraden
gaurko piñudira”.
Zomorro likitsekin
estalirik jira,
nazka da egotea
lurrera begira,
etziran or egongo
ederrak balira,
gauz nazkagarri gorik
zer sortu ludira?
Utsa denborarekin
galduko balira...
Arizti, pago-baso
eder aik nun dira?

Amaia Usabiaga,(1)
zer mendi ustela!
Piñu puntan abiak,
zabor, zikin, tela,
Zugaitz gerrian bera
jexten dira bela,
aldiren baterako
utzirik logela,
ematen du zerbaiti
itxogiten dela...
Badakigu norbaitek
deiturik ez dela,
orrenbeste millaka
zergatik bestela?

* * *

Bereak eta besteren gauzak
gobernatutzen gizona,
t'azkena bera zikiñak jaten
Jainko bat izan nai duna.

(1991-III-5)

(1) Andoaingo mendiak aztertzen ibili zan neska gaztea.

San Juan sua

1 Larogei ta bosteko
San Juan bezperan,
oitura zar batentzat
tokatzen dan eran,
Jaunak ematen badit
argia aukeran,
bertsotan esango det
zer pentsatzen dedan.

2 Munduan badira, bai,
gauz onak ugari,
ta danak ezin lortu,
samiña da ori.
Aizbeltzetik begira
San Juan suari,
Andoaingo errian
gaur bazan ugari.

3 Aitonen oiturari
nai guk gogoz eutsi,
ta ondorengoeri
al badegu utzi.
Mitoe dala ori
gazteak iritzi,
txoriak ontza gisan
burlaka gabiltzi.

4 Aizbeltzko bizkarretik
auxen ikusmira!
Sua egiñaz pozik
errira begira.
Barru danak egin dit
alako mugira,
pentsatuz: "San Juanen
berri onak dira".

5 Gurutzean josteko
naiz ez egon gertu,
espiritu asnasa
nai genduke artu.
Gazteak olakorik
ezin du onartu,
ez dakit ote diran
materi biurtu.

6 Aita San Juan, luza
goitar intzentsua,
gaiñetikan ken zagun
pekatu kutsua.
Gordetzen badidazu
urte osasuntsua,
urrengo urtean ere
egingo det sua.

Urederra-ri aintzaz

Arri bidetik irten da bertan,
arturik bidetxiorra,
ez ain nekoso, eroso're ez
arkaitz azpiko zearra.
Iñoizka zugaitz zain-sustrai edo
baitare arri konkorra,
baso itzala eskeinka dezu
pago, urritz ta lizarra.
Iñaki lagun prestua nuen
nere laguntza bakarra,
urrundik nekez entzun ziteken
gure izketa marmarra.
Orratx nun kolpez agertu zaigun
ain sonatu Urederra,
betiraundeko sorburua dun
Pilaton arkaitz malkarra.
Aitzetan bera zartaka dator
laño bisuts ta aparra,
uste gabeen amaitu zaigu
gendukan asti laburra,
olako zerbait arkitutzea
ez baida gauza xamurra,
ibai aundi bat ez dalarik e
ez da iturri xiorra.
Amilka bera marmarka doa
egiñaz bide okerra,

Zudaire eta inguruetan
badute zure bearra.
Eguzki galdak kiskalia du
soro, baratz ta ibarra,
egarriturik zure zai dezu,
lur zikoitz, belar igarra.
Izadiaren asnasa zera,
ta gizadien indarra,
orain akabo baidoa beruntz
Urbasaren Urederra.
Urbasa aundik sabel barruan
gorde ur garbi, leiarra,
zeñen tamala Ebro likitsak
ola kirastu bearra!

(1991-VIII-8)

Udaberri goiz batez (1992)

1 Bazkaldu ondorian
irten naiz mendira,
Atxularko ttonttorra
deitzen dan tokira.
Pixka bat alaitu naiz
kukuan arira,
nere bertso kaxkar ok
ordun irten dira.

2 Bertsotan ekin diot
nere buruari,
eduki badadukat
zer esan ugari.
Baiña erantzuterik
ez daukat danari,
betaz nagonerako
utziko det ori.

3 Munduan danok berdin
ez degu jokatzten:
batzuk beti deskantsun,
besteak nekatzen.
Jan bearrrak pobrea
artara beartzen,
dauzkagun arazoak
ez dute barkatzen.

4 Aberats eta pobre
ez gabiltz nastuan:
aberatsak zaldian,
pobreak astuan.
Badakigu nortsu dan
lapurren puestuan,
nortzuk dauken dirua
eta nork eztuan.

5 Aberats eta pobre
gabiltza aparte,
pobriak geralako
ez gaituzte maite.
Orrela jarraitzea
ez da gure kalte,
oraingo lege auek
daduzkagun arte.

6 Bertso auek osatuz
nijoa birian,
kukuari entzunaz
denbora berian.
Oinbeste leku dago
talentu nerian,
ditudan danak jarri
ditut paperian.

Besaide

Iru probintzin muga arria
Besaideko bizkarrean,
Bizkai, Araba ta Gipuzkoak
dauke eskumuturrean,
arrizko orma borobilduan
ta ez sartua lurrean.


Bosteun metro eta oitabost
dauzka bere gendorrean,
arrizko zutoi, gurutz ta kanpai
dauzka torre muturrean,
piñuz gelegi inguratua
baiña ez leku txarrean.

Tellamendia ezkerretara,
Anboto aitzia aurrean,
Memaia eta Udalaitez berriz
ipar aldera urrean,
ezaupideak auetxek dira
adierazpen laburrean.

Pozik etorri nintzala andik
nago esan bearrean,
nekoso ibili banintzan ere
Udalaitezko zearrean,
guziagatik nago Jaunari

esker eman bearrean.
Len ere badet ainbat oinkada
neke-izerdiz emana,
Jaunak lagunduz, beti iritxi
nik egin izan dedana.

(1991-VIII-13)



Besaideko oroitarria

Atxular mendiko bidean

1 993-ko ostegun santu goizez, Atxularra nindoa-
larik, izan nituan gogoetak, Yosuren Nekaldia-
ri buruz.

Jetsemaniko baratza artan
Kristoren otoi larria!
Atsekabezko izerdi otza
nasturik odol gorria:
“Aita, ez izan nere kupira,
salbatu zure erria,
jarri didazun ontzi ortatik
kenduko det egarria”.

Gogor loturik Pilatonera,
gero Eroden etxera,
arrek galdetu: “Mesias edo
erregeren bat al zera?”
Salatzailleak gogor zemaika
gaizkille bati antzera,
Pedro irutan allegatu zan
bere Maisua saltzera.

Gurutza artu sorbaldan eta
ekin zion Golgotari,
aurrera balantz, ezker-eskubi
edo lurrera erori.
Alboetatik laguntza gutxi,
saltzaillea bai ugari,
zenbat iseka ta birao zikin
zeru ta lurren Jaunari!

“Aita, zergatik utzitzen nazu
gurutza ontan bakarrik,
iru giltzatan zintzilikatuz
oñazez eta egarrik?
Jauna, iltzera noa, ez daukat
geiagorako indarrik,
Zugan uzten det nere gogoa
ez bada beste bearrik”.

Ni pekatari aitor natzaio
Aita Jaun betikoari,
Pedrok bezela ukatu zaitut
jarraituaz munduari.
Lagun urkoen atsekabeak
zer ajola zaizkit neri?
Eskatuko dit beste aldean
emen egin detan ori.

Tellamendi eta Murugain

1 981-ko San Bartolome egunez, Tellamendi gainera igo giñan nere alaba Miren Josebe eta blok.

Santa Ageda auzo inguruan gora, malkardi itxusi batean iritxi giñan lenengo baserrira. Gero oiñez ekin genion aldapa biziari; eta, gora eta bide legunagoa eta giro onagoarekin, ondo iritxi giñan Tellamendira. Zer ikuspegi ederra! Pozik etorri giñan etxera.

Bost egun lenago Murugaiñen izan nintzan, eta andik ere alakoxe bista ederrak daude. Ori dala-ta, bertsotxo auek idaztea gogoratu zitzaidan:

Gurutze batez gaindurik dago
Murugaiñeko tontorra,
Tellamendi're alaxe dago,
ez Murumendi bakarra.
Gain oietatik begiraturik
biotz zar onen dardarra!
Ikusten dira Arrasate ta
Aramaioko Ibarra,
mendizalea dan batentzako
zer ikuspegi ederra!

Tellamenditik begiraturik
arrizko mendi-katea,
sartaldetikan Arangio ta
Izpizte berriz bestea.
Iparrerago Anboto dago,
Udalaitz berriz ostea,
izerdi tantak kostatzen dira
oiek andik ikustea.

Bertso berriak Gipuzkoa eta bere mendiei jarriak

1 Apirillak amabi
larogei ta lauan,
illundu ta gauan,
bertso batzuk nebilzkin
buruan ta auan.
Ale batzuk jartzeko
ai zer gaia dauan!
Len ere iñoiz zerbait
egin izan nuan
Jaunaren laguntzakin,
al dedan moduan

2 Gipuzkoa txikia
ote dan diote,
baiña ala ote?
Ori egia danik
ez naiz pio bate.
Ala uste duanak
beretzako kalte,
xabal-xabal jarrita
neurtutzen badute
Aiako Arritikan
Aizkorrira arte.

3 Gipuzkoa ontako
erreka ta mendik,
sakon eta gaindik,
zer luze-zabal duten
ez dakit oraindik.
Makiñat ibillera
egiña badet nik,
naiz ta ez arrapatu
nun duan atzenik;
ezin sinistatu det
ain txikia danik.

4 Mendira igo nai ta
auxen da negarra,
ez da gauz edarra:
sasian mende daude
zelai ta malkarra.
Piñu zarran azpian
ote eta larra,
goietan piñu ñañar
erdia igarra,
azpian itzal gutxi
ta gainean arra.

5 Artzaiak menditikan
aurrean bialdu,
beor ta ardik saldu;
iñoiz izan ez duan
bizikera eldu.
Zedukan bizi-poza
lenaz ere auldu,
mendi, baso, zugaitzak
ebaki ta soildu;
piñuak balioa
oinbeste bai al du?

6 Piñua landatzea
ontzat dadukat nik,
erdiak bedenik;
beste motaik ez al da
balio duanik?
Beste klase batzuek
bagiñuzen lendik,
izan ere badira
aleka oraindik;
pena da ikustea
orla gure mendik.

7 Aziendak libre gaur
daude mendietan,
naikoa dietan,
belar zaborra janez
or piñudietan,
beian zingiran edo
goiko egietan,
esnea gutxi oi da
paraje oietan;
illeak ere galduk
sasian larretan.

8 Mendiak gauza asko
zitun ongarriak:
borda ta iturriak,
losa edo zurezko
teilla ta arriak,
beartzen zanarentzat
kostata jarriak;
askotan gertatu oi
gera egarriak,
eta antxen freskatu
gure eztarriak.

9 Mendira joanda ere
bada naiko lana,
ematen du pena:
jo ta bertan txikitu
arrapatzen dana.
Danon serbitzurako
jarrita zegona,
berak ezer egin ez,
puska len dagona;
zertarako nai dezu
olako pertsona?


10 Jende asko keja da
arrazoiarekin
lanik ezarekin;
nik billatuko nuke,
nai duanak egin.
Bordak eta etxolak
zutitzeai ekin,
premian ez gaudela
ez esan beñepin;
orratx nere sermoia
amar bertsorekin.

Arkibidea

Itz bi	7
Jaiotetxea	11
Urrizti, nere jaiotetxea	13
Mendi-abereak	17
Sutea	22
Bertso zaarrak	24
Artzaiak	26
Lenengo lanak	28
Ezibidea	31
Bearrak eragiten zigun bear	34
Ganaduak	36
Lanak	38
Jai-egunak	40
Apustua	42
Apustu-bertsoak	45
Jornalean	49
Guda-ibillerak	51
Errepublika	53
Andoaindik Itziarra	55
Itziarko egonaldia	59

Itziartik Gernikara	61
Legutianoko burruka	65
Legutiano	70
Gernika	72
Berriro ere Gernikan	74
Bizkaiko erasoak	76
Joxinixio Etxeberria zanari	88
Etsaien mende	90
Soldadu	96
Domingo zanari	100
Moscardón	102
Teruelko lurretan	110
Lauaxeta zanari	119
Blas Garmendia zanari	121
Lanean	123
Berriro ekin bear	125
Leitzaran ibai aldeko lanak	131
Martin Iyuya	134
Nere lantokiak	137
Etorkizunaren kezka	139
Mendi-ibillerak	143
Mendia	145
Otzaurtetik Eginora	150
Zegamatik Altsatsura	153
Endara	156
Txarabeltz	158
Elgea	160
Orkatzategi	163
Degurixa	165
Erreka inguruetan	167
Gipuzkoako erriak	169
Piñu zomorroak	171
San Juan sua	173
Urederra-ri aintzaz	175
Udaberri goiz batez	177

Besaide	179
Atxular mendiko bidean	181
Tellamendi eta Murugain	183
Bertso berriak	
Gipuzkoa eta bere mendiei jarriak	185



Agustin Zinkunegi

Agustin Zinkunegiren liburu onek argi eta garbi azaltzen digunez, ondo zaildua zan euskal jende garai batekoa; orduko bizimodu estu eta gogorrari arpegi ematen zekiana. Aski ez balitz bezela, beste zigor erruki gabeko bat: 1936-ko gerra.

Baiña Agustiñen gizaldiak biotza bazuan zailtasun guztiak gainditzeko, naiz eta burruka latza jo bearra izan. Ortik liburuaren izena: *Bizi naiak lege zorrotzak*.

Denbora berean, egilleak bere maitasunak azaltzen dizkigu: euskera eta Euskadirena, euskal bertsoarena eta izadiarena. Oiek dituana biotz aberatsaren jabe dala esan bearrik ez da.

ISBN 84-89080 28-3

